



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko maiatzaren 23a

41. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kudeaketaren azterketari buruzko txostena, Comptos Ganberak
egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kudeaketaren azterketari buruzko txostena, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko irailaren 6an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kudeaketaren azterketaz egindako aholkulartza-txostena argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko irailaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kudeaketaren azterketari buruzko txostena, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburuak (3. or.).
- III. Esparrua eta mugak (4. or.).
 - III.1. Esparrua eta metodologia (4. or.).
 - III.2. Mugak (6. or.).
- IV. Iruzkina, ondorioztapenak eta gomendioak (6. or.).
 - IV.1. Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Eremua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa (I. eta II. eranskinak) (6. or.).
 - IV.2. ^oNUPen kudeaketa-egitura (III. eranskina) (12. or.).
 - IV.3. Finantzaketa-eredua (IV. eranskina) (14. or.).
 - IV.4. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kostu-sistema (21. or.).
 - IV.5. Aurrekontu-, ekonomia- eta finantza-magnitudeen bilakaera (V. eranskina) (22. or.).
 - IV.6. Irakasleak eta ikertzaileak (VI. eranskina) (25. or.).
 - IV.7. Administrazioiko eta zerbitzuetako langileak (VII. eranskina) (32. or.).
 - IV.8. Irakasleak, irakasgaiak eta ikasleko aurrekontu-gastua (VIII. eranskina) (36. or.).
 - IV.9. Ikerketa eta Jakintzaren Transferentzia (IX. eranskina) (41. or.).
 - IV.10. Inbertsioak eta ekipamendua (X. eranskina) (45. or.).
 - IV.11. Tuterako campusa (XI. eranskina) (47. or.).
 - IV.12. Unibertsitate-Gizarte Fundazioa (XII. eranskina) (49. or.).
 - IV.13. Inkesta Nafarroako enpresaburuei, Nafarroako Unibertsitate Publikoko tituludunei buruz (XIII. eranskina). (51. or.).
 - IV.14. Unibertsitateen rankinga eta NUPen posizioa (XIV. eranskina) (52. or.).
- V. Amaierako ondorioa (52. or.).

(Oharra: Aipatutako eranskinak Ganberako Zerbitzu Orokorren Bulegoetan dauzkate Foru Parlamentariak, bai eta web-helbide honetan ere: www.cfn Navarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Nafarroako Aurrekontu Orokorren Legearen babesean eta 7/2009 zenbakiko in voce parlamentu-zuzenketaren bidez, Unión del Pueblo Navarro, Convergencia de Demócratas de Navarra eta Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeek honako erabaki hau hartu zuten: "Guztizko babes instituzionala eta finantzarioa ematea Nafarroako Unibertsitate Publikoari, eta haren bideragarritasun ekonomikoa bermatzea; horretarako, erabakia sinatzen dutenek lehentasunezko zat jotzen dute Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak hitzarmena berritzea 2010-2013 aldirako, bikaintasunaren, berrikuntzaren, etengabeko hobekuntzaren eta nazioartekotzearen sustapene-

an oinarrituta. Gobernuaren eta NUPen arteko hitzarmen hori babesteko tresna gisa, NUPen baliabideak eta kudeaketa ekonomikoa optimizatzeko azterketa zehatz bat batera egitea proposatuko da, kudeaketaren hobekuntzan eta gastuen optimizazioan egindako aurrerapausoak unibertsitate-erakundearen beraren mesederako izan daitezen.”

Hasieran, azterketa hori kanpoko aholkularitza-entresa batek egitea zegoen aurreikusita. Geroago, Unibertsitate Publikoak eskatuta, azterketa Comptos Ganbera honek egitea proposatu zen, eta proposamenak Hezkuntza Departamentuaren eta Nafarroako Parlamentuaren oniritzia jaso zuen.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2009ko ekainaren 22an egindako bilkuran, aholkularitza-txosten hori Comptos Ganberari eskatzea erabaki zuen.

2009ko irailaren 11n, Comptos Ganberak “Plangintza Memoriaren Aurrerapena” bidali zion Parlamentuari, eta lanaren norainoko zehatza azaldu, haren adostasuna jasotzearen. Aipatu batzarrak 2009ko irailaren 21ean erabaki zuen bat etortzea adierazitakoarekin.

Kontu-ikuskaritzako bost teknikariz eta kontu-ikuskari batez osatutako talde batek egin zuen landa-lana 2009ko urritik 2010eko martxora bitartean. Era berean, Comptos Ganberaren zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboen laguntza izan dugu.

Txostena bost epigrafetan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarren eta hirugarren epigrafeetan, egindako lanaren helburuak eta norainokoa aurkezten dira; laugarren epigrafean, berriz, lortutako ondorio orokorrak eta egindako gomendioak jasotzen dira. Azkenik, bosgarren epigrafean laburpen bat aurkezten da, amaierako ondorio gisa. Txostenak, gainera, aurreko ondorioak garatzen dituzten 14 eranskin dauzka.

Eskerrak ematen dizkiegu Nafarroako Unibertsitate Publikoko eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko langileei lan hau egiteko emandako laguntzagatik.

II. HELBURUAK

Eskaera parlamentarioaren arabera, aholkularitza-lan honetan Helburu orokor hauek planteatu dira:

1. Unibertsitate Publikoak Nafarroako gizarteari eman beharreko kontuak osatzea, eta, horretarako, informazio adierazgarria ematea, egindako jardueraren nola gauzatu den azaltzeko, bai eta unibertsitateak bere kontrolpean zituen baliabide publikoen kudeaketan izandako eraginkortasunaren eta gardentasunaren berri emateko ere.

2. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kudeaketa ekonomikoaren bilakaera aztertzea.

3. Hobekuntza-ildoak ezartzea, Unibertsitatearen baliabideak eta kudeaketa optimizatzeko.

4. Etorkizuneko erronka berrietara egokitzeko jarduerak proposatzea: bereziki, Nafarroako Gobernuarekiko finantza-hitzarmena eta Bologna-ko prozesuaren eragina.

Aurreko helburu horien zabaltasuna eta heterogeneotasuna direla eta, azpigelburu hauen bidez garatu ditugu:

1. Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Eremua eta NUP

2. NUPen kudeaketaren egitura

3. Finantzaketa-ereduak

4. Kostuen sistema

5. Aurrekontu- eta ekonomia-magnitude nagusien bilakaera

6. Irakasleak eta ikertzaileak eta Administrazio-ko nahiz Zerbitzuetako langileak

7. Ikasleak eta irakasgaiak

8. Ikerkuntza

9. Inbertsioak

10. Tuterako campusa

11. Unibertsitate-Gizarte Fundazioa

12. NUPi buruzko txostenak, inkestak, ikerketak eta planak

13. Unibertsitateen rankinga

Komeni da zehaztea administrazio zentralak daukala oinarritzko eskumena antolaketaren, egituraren, kudeaketaren, finantzetaren eta unibertsitateko irakasleen esparruetan; horregatik, txosten honetan jasotako gomendio edo alderdi hobegarri jakin batzuk ezin dira aplikatu, Estatuko oinarritzko legedia aldatu ezean.

III. ESPARRUA ETA MUGAK

III.1. ESPARRUA ETA METODOLOGIA

Hitz batez, eta finkaturiko helburuak kontuan harturik, gure lanaren norainokoa hau izan da:

Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Eremua eta NUP (I. eta II. eranskinak)

Bolognako adierazpena eta hura gero zabaldu eta garatu duten adierazpenak aztertu dira. Era berean, Espainian Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Eremu (EEES) horretara egokitzeko aplikatutako prozesuaren garapena aztertu da; haren planteamendu teorikoa “Unibertsitate Estrategia, 2015” (“Estrategia Universidad 2015”) dokumentuan jasota dago. Horren guztiaren osagarri, prozesuaren berrikuspen kritiko orokorra egin da.

NUPi bagagozkio, EEESra egokitzeko egin duen prozesua berrikusi da; prozesu horretan, Espainiako gainerako unibertsitateetan bezala, oinarritzko hiru jarduerara-ildo bereizi dira:

a) Espainiako goi-mailako irakaskuntzaren oinarritzko araudiaren erreforma. Estatuak, gai honetan eskumena duen administrazioa baita, pentsatu du ezin egin zitekeela prozesu hau, alde aurretik sakon aldatu gabe unibertsitate-erakundeen araubidea, erakundeon alderdi guztietan aldatu ere: ikasketa berrien oinarritzko egitura, erakundeen gobernu, irakasle eta ikertzaile diren langile (IIL) funtzionarioen arauketa, irakaskuntza- eta ikerkuntza-jardueraren ebaluazioa... Prozesu horren gida aipatutako “Unibertsitate Estrategia, 2015” (“Estrategia Universidad 2015”) dokumentuan jasota dago.

b) Unibertsitatearen beraren jarduerak, batez ere ikasketa berrien eta haien aplikazioaren azterketan eta diseinuan.

c) Nafarroako Gobernuaren jarduerak, ikasketa berrien ezarpena baimentzen duen administrazioa eta Unibertsitate Publikoaren jardueraren finantzatzaile nagusia baita.

Era berean, aztertu egiten da zer eragin ekonomiko daukan NUPentzat 2010/2011 ikasturtetik aitzina irakatsiko diren titulazioen mapa berria abiarazteak, kontuan harturik, honi dagokionez, txosten honetako III.2. atalean aipatzen diren mugak.

NUPen kudeaketa-egitura (III. eranskina)

Unibertsitateko gobernu-organoak aztertzen dira –bai kide anitzekoak, bai pertsona bakarrekotak–, bai eta haien aukeraketarako beharrezko hauteskunde-prozesuen eskema orokorra ere.

Era berean, hauek ere berrikusi dira: irakaskuntza-, ekonomia- eta administrazio-antolaketa,

Unibertsitateak 2001 eta 2009 artean izandako plangintza estrategikoa eta erabakiak hartzeko prozesu orokorra. Gainera, unibertsitate-komunitatearen defendatzailearen eginkizunari buruzko aipamenak jasotzen dira.

Unibertsitateetan erabiltzen diren gobernantza-ereduak eta Espainian EEESra egokitzeko prozesuaren barruan ikusten den joera aztertu dira.

Finantzaketa-ereduak (IV. eranskina)

Hauei buruzko azterketa bat egin da:

- Unibertsitate-ereduak eta haiek finantzatzeko iturriak

- Unibertsitate publikoak finantzatzeko nazioarteko ereduak

- Espainian aplikatutako ereduak

- NUPen finantzaketan erabilitako ereduak

NUPeko aurrekontu-, ekonomia- eta finantzamagnitude nagusien bilakaera (V. eranskina)

2001 eta 2008 arteko aldiari bagagozkio, ondoren aipatzen direnei buruzko adierazle eta ratio nagusien bilakaera aztertu da:

- Aurrekontuaren likidazioa

- Aurrekontuko gastuak eta diru-sarrerak

- Aurrekontu-emaizta

- Diruzaintzako gerakina

- Egoerari buruzko balantzea

Aurrekontuaren likidazioari buruzko azterketan, 2009ko ekitaldiaren amaierako behin-behineko datuak ere jaso dira.

Irakasle eta ikertzaile diren langileak (IIL) eta Administraziooko nahiz Zerbitzuetako langileak (AZL) (VI. eta VII. eranskinak)

Eranskin horietan, NUPeko langileen tipologia bakoitzean, hauek aztertu dira:

- Aplikatzekoa den araubide juridikoa

- Langileak

- Ordainsariak eta Espainiako beste unibertsitateetan dituztenekiko aldea.

- Lanaldiak

- Lan-baldintzak

- Ebaluazioak

- Prestakuntza

- Presentzia fisikoaren kontrolak

- Absentismoa

- Langile-ratioak

Ikasleak, irakasgaiak eta ikasleko aurrekontu-gastua (VIII. eranskina)

Gure lanean, hauek ukitu ditugu:

- Matrikulaturiko ikasleen kopuruaren bilakaera
- Titulazio bat lortzeko batez besteko aldiaren bilakaera
- NUPeko ikasleen mugikortasuna eta haren erakarmena
- Nafarroako unibertsitarioak eta non ikasten duten
- Ematen diren irakasgaiak eta ikasleek lortutako emaitzak
- Ikasleko aurrekontu-gastuaren bilakaera

Ikerketa eta Jakintzaren Transferentzia (IX. eranskina)

Eranskin honetan honako hauek aztertu dira: zer eginkizun betetzen duen ikerketak Espainiako egungo unibertsitate publikoan; ikerketari buruzko zer estrategia jasotzen den NUPen plan estrategikoetan; NUPen, jakintza transferitzeko, zer politika orokor erabiltzen den; ikerketari laguntzeko antolakuntza- eta administrazio-egitura; ikerkuntza-jardura horri buruzko kudeaketa- eta kontrol-mekanismoak; eta jardura horren zenbait adierazle esanguratsuren bilakaera.

Eranskin hau osatzeko, ikerketaren ondorio diren zeharkako kostuak nola zehazten diren aztertzen da, eta hori Espainiako beste unibertsitate batzuei buruzko informazioarekin alderatzen da.

Inbertsioak eta ekipamenduak (X. eranskina)

Eraikinetan, irakaskuntza- eta ikerkuntza-ekipamenduetan, bibliografia-funtsetan, ekipamendu informatikoan eta 2010-2012 aldirako inbertsio-planetan egindako inbertsioen gastuaren bilakaera aztertzen da.

Tuterako campusa (XI. eranskina)

Gure lanean, hauek ukitu ditugu:

- Tuterako campusean egindako inbertsioaren kostua zehaztea
- Campus horretan matrikulatutako ikasleen eta titulazioen bilakaera
- Bertako langileak
- Kudeaketa-egitura
- Aurrekontu-gastuaren bilakaera

Unibertsitate-Gizarte Fundazioa (XII. eranskina)

Fundazioak betetzen duen eginkizun estrategikoa, haren adierazle ekonomiko nagusien bilakera, langileena eta gastu nahiz diru-sarrera guztiena zein jardueraz jarduerakoena aztertu ditugu.

Jardura horiek Unibertsitateari ekarri dioten kostuak osatzen du azterketa hori.

Inkesta, ikerketa, plan eta txosten soziologikoak, sozioekonomikoak eta irudiari buruzkoak (XIII. eranskina)

Eranskinaren hasieran, ganbera honek enpresa espezializatu bati kontratatutako inkesta baten emaitzak jasotzen dira. Nafarroako enpresaburuek NUPeko tituludunei buruz zer iritzi duten jakin nahi zen inkesta horren bidez.

NUPek egindako ikerketa hauetatik ateratako ondorio nagusiek osatzen dute eranskina:

- NUPek egindako ekarpen sozioekonomikoan izandako eragina
- NUPen ezagutzari eta balorazioari buruzko azterketa soziologikoa
- NUPeko tituludunen profila

Era berean, NUPeko Gizarte Erantzukizunaren Plana deskribatzen da.

Unibertsitateen rankinga eta NUPen posizioa (XIV. eranskina)

Lan hau egin dugu esparru honetan:

A. Nazioko nahiz nazioarteko bibliometria-ranking garrantzitsuenak berrikusi dira. Ranking horiek zenbait web-orritatik lortu dira, eta ranking-mota eta haien aukeraketa-irizpideak azaldu dira, bai eta NUPek haietan betetzen duen lekua ere.

B. Bibliometrikoak ez diren rankingei dagokienez, Espainiako Unibertsitateko Errektoreen Konferentziaren (CRUEren) "Espainiako Unibertsitatea kopurutan. 2008" ("La Universidad Española en cifras. 2008") lanari heldu diogu. Lana 2008. urtearen amaieran argitaratu zen, eta Espainiako unibertsitate-sistemari nahiz 47 presentziazko unibertsitatei buruzko datuak jasotzen ditu; zehazki, 2006. urtekoak eta 2006/2007 ikasturtekoak. Gainera, 2006ko txostena ere kontuan hartu da, 2004/2005 ikasturteari buruzko datuak eta kopuruak baitauzka.

Jakintza eta Garapen Fundazioak (Fundación Conocimiento y Desarrollo/CYD) Espainiako unibertsitateaz egindako txostenak ere erabili dira, kalitate-kontzeptuei buruzko rankingak egiten dituelako (irakasleen, ikasleen eta beste batzuen

esparruan), zenbait ranking/adierazleren azterketa bateratuaren bidez, CRUE txosteneko eta beste iturri batzuetako datuak erabiliz. Lortutako rankingak gai hauen arabera multzokatu dira:

- Ikasleak- Ikasle berriak erakartzeko gaitasuna
- Gastuaren egitura
- Gastua Foru Komunitatearen BPGd-arekin alderatuta
- Diru-sarreraren egitura
- Irakaskuntza-kalitatea
- Ikerkuntza-kalitatea
- Giza baliabideak

Haietan guztietan, Nafarroako Unibertsitate Publikoak betetzen duen lekua aztertzen da.

Arau orokor gisa, gure lanean 2001etik 2008ra bitarteko aldia aztertu dugu. Hala ere, esparru jakin batzuetan ezinezkoa izan da aldi hori erabiltzea, zaila baitzen informazioa lortzea; beste esparru batzuetan, ordea, zeukaten interesagatik eta informazioa zegoelako, 2009ko eta 2010eko datuak ere jaso dira.

Eskaera parlamentarioaren izate bera dela eta, ez dira berrikusi aztertutako gaien kontabilitate-eta aurrekontu-tratamenduarekin eta legezkontasunarekin zerikusia zuten hainbat gai. Hala ere, komeni da azpimarratzea Unibertsitate Publikoaren Kontu Orokorrak Comptos Ganbera honek fiskalizatu dituela, jarduten hasi zenetik 2007ko ekitaldira arte.

Metodologiari dagokionez, Espainiako Kanpo Kontrolerako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsitako "sektore publikoko auditoriako printzipio eta arauak" aplikatu dira, Comptos Ganbera honetako fiskalizazio-eskuliburuan garrantutakoak.

III.2. MUGAK

Hauek dira gure lanean ikusitako mugen iturriak:

- Kostuen sistemak Unibertsitate Publikoan gaur egun duen egoerak ez du biderik eman irakaskuntza-jardueraren eta gainerako zerbitzuen kostuari lotutako adierazle nagusiak zehazteko.
- Baliteke Unibertsitate Publikoaren beraren datuen eta informazioaren arteko konparagarritasuna eta azterketa desitxuratuta egotea, kasuan kasuko artxiboetatik noiz atera ziren kontuan hartuta, artxibo gehienak etengabe eguneratzen direlako.

- Beti ezin izan dira egin beste unibertsitate batzuetako informazioarekiko alderaketak, nola daturik ez izateagatik, hala datuak heterogeneoak izateagatik.

- Azterketan erabilitako rankingak unibertsitate-ek berek jakinarazitakoak dira, baina informazio hori ez zegoen beti kanpoko ezein erakundek homogeneizatua edo baliozkotua.

Aurreko muga horiek guztiak gorabehera, uste dugu aholkularitza-txosten honen ondorioak baliagarriak direla eskaera parlamentarioari erantzuteko.

IV. IRUZKINAK, ONDORIOZTAPENAK ETA GOMENDIOAK

Orain, iruzkin batzuk eta egindako lanetik jasotako ondorio eta gomendio nagusiak azaltzen dira; horiek guztiak txosten honi atxikitako eranskin egokietan daude garatuta.

IV.1. EUROPAKO GOI MAILAKO HEZKUNTZA-AREN EREMUA ETA NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA (I. eta II. eranskinak)

1. Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Eremuaren (EEESren) sorrera europar herritartasun orokorra sortzeko Helburuaren barruan kokatzen da; horretarako, herritar gisa dagokien erantzukizunaren kontzientzia harrarazi zaie ikasleei, irakasleei eta ikertzaileei, eta lankidetzan aritzeko nahiz harreman iraunkorrak izateko sare bat eratu da Europako unibertsitateen artean. Helburua izan da Europako unibertsitate-ikasketen arteko koordinazio-rik eza eta bateraezintasuna gainditzea, eta, horretarako, unibertsitate-tituluak ezagutzeko administrazio-trabak kentzea, Europar Batasunaren oinarriko printzipioetako bat den hau errazago lortzea bideratzeko: bertako langileen mugikortasuna.

Eremu hori funtsezko lau printzipiotan dago oinarrituta:

- Kalitatea
- Mugikortasuna
- Lehiakortasuna
- Aniztasuna

1999ko ekainean, "Bolognako Adierazpena" sinatu zen, eta Europako 29 estatuk bat egin zuten harekin. Gaur egun, ordea, guztira 47 estatuk dute izenpetua adierazpena, bai eta Europar Batasunak berak ere –beste estatu bat baliatzen bezala–. Adierazpen horretan, EEES eraikitzeke oinarriak zehazten dira, eta haren aplikazio orokortua

2010ean gertatzeko denbora-helburua du. Adierazpen horri beste komunikatu batzuk gehitu zaizkio⁽¹⁾, europar eremu hori garatuz, osatuz eta zehaztuz joan direnak.

2. Espainia, Bolognako Adierazpena sinatua baitu, eta Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Eremura egokitzeko bere prozesuaren barruan, ahaleginak egiten ari da, ez bakarrik Europako unibertsitate-tituluak ezagutzeko egon daitezkeen administrazio-trabak kentzeko, bai eta, aukeraz baliatuta, Espainiako unibertsitate-sistema sakon berritzeko prozesuari aurre egiteko ere, unibertsitateen funtzionamenduaren beharrezko arrazionalizazioa lortzeko esparru askotan; besteak beste, tituluen diseinuan eta irakaskuntza-metodologiaren berrikuntzan. Horrenbestez, planteatzen den eredu berriak hauek ditu oinarri:

- Espainiako unibertsitateetako antolaketa-, betearazpen- eta finantzaketa-egiturak modernizatzeko eta berritzeko estrategia, Hezkuntza Ministerioak 2009an onartutako "Unibertsitate Estrategia, 2015" ("Estrategia Universidad 2015")⁽²⁾ dokumentuan gauzatua.

- Unibertsitate-autonomia handiagoa; horrek aukera emanen die unibertsitateei beren tituluak proposatzeko eta beren ikasketa-planak diseina-

tzeko, Unibertsitateen, Zentroen eta Tituluen Erregistroa sortuta (UZTE).

- Unibertsitateek kontuak zorrozki ematea gizarteari, finantza-alderdiak ez ezik, baliabide publikoen erabileraren eraginkortasuna eta efizientzia ere kontuan hartuta.

- Ikasketa-eredu malgua, gizarte-eskaerei egokitu ahal izateko.

- Irakaskuntzen metodologia-aldaketa, prozesuan garrantzi handiena ikasleek ikaskuntzari emateko, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren ikuspuntutik.

- Emandako tituluen hasierako egiaztapena, jarraipena eta aldiaren behingo ziurtapena, haien kalitatea segurtatzeko.

- Unibertsitateetan ikasi dutenen enplegarritasuna handitzea, lortzen dituzten gaitasunak eta trebetasunak sustatzearen bidez, lanbide-garapen handiena izan dezaten.

- Pizgarriak eskaintzea, unibertsitate-estamentu guztien nazioko zein nazioarteko mugikortasuna bultzatzeko.

3. Planteatzen den ikasketa-egitura berria taula honetan dago laburtuta:

Gradua. 4 urteko iraupena (240 ECTS kreditu)⁽³⁾. Graduatuak bere lanbide-jarduerako beharrezko prestakuntza orokorra jasotzen du.

Unibertsitate Masterra: 60 eta 120 ECTS kreditu artean (ikasturte bat edo bi). Graduatuak prestakuntza aurreratua jasotzen du, espezializaturik edo diziplina anitzekoa, lanbide-espezializaziora bideratua, edo ikerketa-lanetan hastea sustatuz. Gainera, lanbide jakin batzuetan (medikua, abokatua, zenbait ingeniari, bigarren mailako hezkuntzako irakaslea...), ezinbesteko baldintza izanen da lanbidean aritu ahal izateko.

Doktoregoa, batez beste 3-4 urtekoa; magisterrari prestakuntza aurreratua emanen dio ikerketa-tekniketan, eta beharrezkoa izanen da kasuan kasuko doktore-tesia egin eta aurkeztea.

(1) Praga (2001), Berlin (2003), Bergen (2005), Londres (2007), Lovaina (2009) eta Budapest-Viena (2010).

(2) www.educacion.es

(3) Ikasleak ikasketa-programaren helburuak lortzeko zenbat lan egin behar duen adierazten dute ECTS kredituek; helburu horiek, lehenetsunez, ikasketaren emaitzen eta lortu beharreko gaitasunez bidez zehaztu behar dira. Gaur egun, irakasleak emandako eskola-orduak arabera neurtzen da kreditua, eta 10 eskola-ordu dagozkie; ikasleak ikasketa-planean aurreikusitako helburuak lortzeko zer ikasketa-lan egin behar duen neurtzen du ECTS sistema berriak, eta ikaslearen 25 ordutik 30 ordura bitarteko lan-karga dagozkie.

Ikasketa-egitura hori partzialki abiarazi da 2009/2010 ikasturtean, eta osorik aplikatuko da 2010/2011 ikasturtetik aurrera. Hala ere, lehengo ikasketak eta berriak batera emanen dira 2015. urtera arte.

Espainiak Bologna aplikatzeko darabilen eredu –lau urteko graduak, eta gehienetan urtebeteko masterra–, prozesua sinatu duten 47 herrialdeetatik hirutan soilik baliatzen da –Bulgaria, Ukraina eta, Erresuma Batuaren barruan, Eskozia–. Herrialde gehienek 3 urteko graduak eta 2 urteko masterrak abiaraztea hautatu dute; edo, bestela, zenbait eredu batera erabiltzea, tituluaren arabera.

4. EEESri egindako kritikak. Zenbait sektoretan⁽⁴⁾, zalantzan jarri da europar esparrua sortzeko prozesu hori, bai eta Espainian izan duen aplikazioa ere; kritika nagusiak hauek dira:

- Bolognako Adierazpena eta geroko komunikatuak asmo-adierazpen hutsak dira, eta ez dute ezein herrialde behartzen. Hortaz, adibidez, ez da zuzena esatea prozesu, prozedura edo erreforma jakin batek ez duela betetzen Bolognako plana.

- Titulazioek EEESko herrialdeetan dute “balio juridikoa”, baina ez dago argi “eraginkorrak” izanen diren lanbide-kualifikazioak ezagutzeko.

- Gradu-ikasketetako zenbait ikasgaitan izan daitezkeen prestakuntza-gabeziak direla eta, arazo masterren bidez konponduko da⁽⁵⁾. Masterren kopurua izugarri handituko da, baina ez da guztiz ziurtatuta egonen haien kalitatea eta prestakuntza-balioa, eta ikuspegia ez da behar bezain egokia izanen jakiteko epe ertain eta luzean finantza-iraunkortasuna izanen duten ala ez. Gainera, Espainiako master askok eta askok ikasturte bat irauten dute, eta horrek haien nazioarteko homologazioa eta lehiakortasuna zail dezake, herrialde gehienetan masterrak bi urtekoak izaten baitira.

- EEESra egokitzeko prozesu guztia batez ere esparru akademikoan zuzendu, planifikatu, diseinatu eta ebaluatu dute, eta zer esan gutxi izan dute unibertsitatez kanpoko eragileek.

- Unibertsitateetan, ikasketa-plan berriak prestatzean, irakasleen interes korporatiboak nagusitu dira une jakin batzuetan, etorkizuneko ikasleek lan-merkatuan sartzeko beharrezko izanen dituzten gaitasun eta trebetasunen bilaketaren kaltetan.

- Oro har, ikusten da irakasleak gutxi inplikatzen direla prozesua benetan abiarazteko ahaleginean; horren ondorioz, baliteke aldaketa itxurakoa baino ez izatea, hau da, zer eta nola irakasten den funtsean ez aldatzea. Era berean, ez da ikusten irakasleak irakaskuntza-metodologia berrira egokitzeko inolako prestakuntza-programarik planifikatuta dagoenik.

- Graduetan matrikulatzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoen homogeneotasunari eusten zaio, nahiz eta Espainiako unibertsitateetan edukiak desberdinak izan, eta haietako bakoitzaren kostu-egitura kontuan hartu gabe. Gainera, masterrren prezioa ere sartzan da homogeneotasun horretan, eta horrek mugatu egingen du unibertsitateek masterren bidez baliabideak lortzeko daukaten aukera.

- Irakasteko metodologia berriak talde txikiagoak eta praktikei, mintegiei, lantegiei, tutoretzei eta lan pertsonalei kasu handiagoa egitea ditu oinarri, baina, guztiz garatuz gero, ezinbestekoa izanen da irakasleen kopurua eta/edo haien dedikazioa handitzea eta, horrenbestez, zerbitzu publikoaren kostua areagotzea. Gainera, irakaskuntzan erabiltzen diren teknologia eta tresna berrien kostua ere kontuan hartu behar da.

5. Aurreko iruzkin horiek guztiek, hala nola gure unibertsitateetako langileen egituraren zurruntasunak eta azpiegiturretan eta teknologia berrietan izanen diren premia handiagoez, agerian uzten dute aurreikusteko modukoa dela unibertsitateen finantzaketa publikoa handituko dela –bai Estatuarena, bai autonomia-erkidegoena– ekonomia nazionalaren une bereziki zail hauetan.

Hala bada, batzuek diote Bolognako prozesua kosturik gabe egin beharko litzatekeela, baina egindako ikerketen arabera, baliabide publiko gehiago beharko dira horretarako: Espainiako BPGd-aren %0,10-0,12 –“Espainiako Unibertsitate Sistemaren Finantzaketa” (“Financiación del Sistema Universitario Español”) txostena (2007)–, edo urteko beste 200 milioi euro sei urtez –“Espainiako unibertsitateen finantzaketa-politiken hobekuntzari buruzko gogoeta-dokumentua” (“Documento de reflexión sobre la mejora de las políticas de financiación de las universidades españolas”) (2009)–. Azken txosten horren arabera, gainera, Espainiako

(4) Ikus adibidez: Recalde Castells, A. eta Orón Moratal, G., “Zer da eta zer egiten da Bolognaren babesean?” (“¿Qué es y qué se hace al amparo de Bolonia?”), *Cuenta con la IGAE aldizkaria*; Martín Vallespín, E., “Finantzaketak Bolognako prozesuan betetzen duen eginkizuna” (“El papel de la financiación en el proceso de Bolonia”), *Presupuesto y Gasto Público aldizkaria*.

(5) 2006/07 ikasturtean, Espainiako unibertsitateek 829 master eskaini zituzten guztira, eta haietan ia 17.000 ikasle matrikulatu ziren; 2008/2009 ikasturtean, eskaintza 1.753 masterrekoa izan zen, eta 50.000 ikasle matrikulatu ziren. 2009/10 ikasturterako, masterren eskaintza argi eta garbi 2.000tik gorakoa izanen dela aurreikusten da.

unibertsitateetan 13,4 ikaslekoa da irakasleko ratioa, hau da, Europako batez bestekoa baino txikiagoa (16,7 ikaslekoa); hortaz, txostenak dio egungo giza baliabideak aski direla EEES abiarazteko, baina uste du komeni dela aipatutako dirukopurua inbertitzea, irakaskuntza-karga gutxiko esparruetan dauden 10.000 bat irakasle karga handiko beste esparru batzuetara aldatzea finantzatzeko. Azkenik, Unibertsitate Kontseiluaren eta Unibertsitate Politikako Konferentzia Orokorraren txostenak (2010) dio beharrezkoa dela, egungo krisi ekonomikoan, nolabait bateratzea EEES prozesuaren funtsezko helburuak eta egungo krisi ekonomikoak eragindako finantzaketa-murrizketak.

Aurreko arrazoibideen ildotik, nabarmentzekoa da ez dagoela azterketa zorrotzik Espainiako unibertsitate-sisteman jakiteko zein den irakasleek eta ikertzaileek (IILk) oinarritzko unibertsitate-zereginetan (irakaskuntzan eta ikerketan) duten benetako dedikazioa. Izan ere, kalkuluen arabera, zuzeneko irakaskuntzan (eskolak ematen) –Irakaskuntza Antolatze Planen bidez kontrolatzen den jardura bakarra– ematen den denbora asteko lanaldiaren %25 inguru da (10 ordu, asteko orduak, guztira, 37,5 baitira); lanaldi osoa osatu bitarteko gainerakoa, irakaskuntza-laguntzan, ikerketan eta, hala egokituz gero, kudeaketan egiten dituzten lan osagarrietan erabiltzen dituzte irakasleek eta ikertzaileek. Hitz batean, unibertsitate-ereduan kontrol-gabeziak ikusten dira irakasleen eta ikertzaileen benetako jarduerari dagokionez; hau da, giza baliabideei benetan esleitutako zereginiei dagokienez.

Hortaz, EEES abiarazteari lotutako langileen gastua nabarmen ez handitzeko bide bat irakasleen eta ikertzaileen dedikazioa berriro antolatzea izan liteke, eta, horrenbestez, oreka handiagoa lortzea irakaskuntzaren eta ikerketaren artean, irakaskuntza-jardura sustatzea, dedikazioak eta esleipenak berregokitzea eta jardueraren murrizketa guztiak irakaskuntza-zereginari lotuta egotearen arrazoizkotasuna aztertzea; horrela, egungo giza baliabideen bidez, Bolognako prozesutik ondorioztatutako eskakizun askori aurre egin leke.

6^a. Nafarroako Unibertsitate Publikoa Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Eremura egokitzeko prozesua legedi orokorrak araututako prozeduren eta izapideen arabera egin da, eta, Espainiako gainerako unibertsitateetan bezala, hiru jardueraildo bereiz ditzakegu:

a) Espainiako goi-mailako irakaskuntzaren oinarritzko araudiaren erreforma. Estatuak, gai honetan eskumena duen administrazioa baita, pentsatu du ezin egin zitekeela prozesu hau, aldez

aurretik sakon aldatu gabe unibertsitate-erakundeen araubidea, erakundeon alderdi guztietan aldatu ere: ikasketa berrien oinarritzko egitura, erakundeen gobernuak, irakasle eta ikertzaile funtzionarioen arauketa, irakaskuntza- eta ikerkuntza-jardueraren ebaluazioa... Hori guztia Europan guztiz integratutako eta globalizatutako jakintzaren gizarteranzko aldaketa-prozesuaren barruan.

b) Unibertsitatearen beraren jarduerak, bereziki ikasketa berrien ikerketan, diseinuan eta ezarpenean, eta ordenazio akademikoaren barne-araubidea.

c) Nafarroako Gobernuaren jarduerak, ikasketa berrien ezarpena baimentzen duen administrazioa eta Unibertsitate Publikoaren jardueraren finantzatzaile nagusia baita.

7. Hitz batean, ezaugarri hauek izan ditu NUPek titulazio-mapa berria onartzeko aplikatutako prozedurak:

- Aurretiko diseinuan, Unibertsitate Publikoko kolektibo guztiek parte hartu dute, eta, beste unibertsitate batzuetan ez bezala, foru-komunitateko eragile ekonomikoak eta sozialak ere integratu dira; hala ere, beste unibertsitateetan gertatu bezala, diseinu horretan argi eta garbi da handiagoa eragile akademikoaren kopurua.

- Bere konplexutasuna, bilera asko eta asko egin izana, eta azken erabakia hartzeko beharrezko informazioa.

- Egiaztapen- eta onarpen-prozesuan Unibertsitate Publikokoak ziren nahiz unibertsitate horretakoak ez ziren eragile askok parte hartu izana.

- Txosten honen idazketa-egunera arte, aldekoak izan dira Unibertsitateen Kontseiluak NUPeko titulazio berriei buruz emandako egiaztatze-irizpeak.

- Estatuko araudiak oso kasu gutxi egiten dio titulu berrien eragin ekonomikoari, eta, bere eskumenaren arabera, batez ere alderdi akademikoak, kalitateari lotutakoak eta EEESrekiko egokitzapena kontuan hartzen ditu.

- Nafarroako Gobernuak, administrazio finantzatzailea baita, kasu egiten dio titulazio berrien eraginari edo gastuari, baina gastua handitzen duten aldetik. Hala ere, titulu berriak onartzeko foru-araudia prozesua hasita zegoela argitaratu zen, eta horrek haren kudeaketa zaildu du; gainera, dokumentazioa eskatzean ere ez da kontuan hartu unibertsitateak ez zeukala informazio-sistema egokirik eta egiaztaturik.

2010eko maiatzean, NUPeko Gizarte Kontseiluak gradu berrien –16–, doktorego-programen

–23– eta masterren –23– barne-onarpenerako prozesua amaitu zuen.

2010eko ekainaren 21ean, Nafarroako Gobernuak behin betiko onartu zuen NUPeko ikasketa-mapa berria.

8. Titulazio-mapa berria abiaraztearen eragin ekonomikoaren kalkulua oso mugatua izan da, arrazoi hauengatik:

- NUPen ez dago kostu- eta simulaziorako tresna-sistemarik, titulazio berriak abiarazteak eta, are gehiago, titulazio zaharrak izateak dakarten kostua zehaztasunez zehaztu/proiektatu ahal izateko. Gabezia hori komun dute Espainiako unibertsitate publiko guztiek.

- 2015. urtera arte, titulazio berriak eta zaharrak emanen dira; horregatik, NUPek bi mapa horiek finantzatu beharko ditu aldi horretan.

- Titulazio horiek abiarazteko prozesua 2010/2011 ikasturtean hasten da benetan, eta haren ondorio ekonomiko orokorrak ezinen dira neurtu gutxienez promozio batek amaitu arte ikasketak. Era berean, zailtasunak egon daitezke jakiteko zenbat ikasle matrikula daitezkeen titulazio berrietan.

- Hezkuntza-paradigma berria ikaskuntzan dago oinarrituta, eta berekin dakar irakaskuntza-azpiegiturak egokitu behar izatea, eta teknologia

berriak erruz erabiltzea, paradigmen lorpene lehenesteko. NUP orain ari da planifikatzen eta gauzatzen egokitzapen hori.

- Nafarroako Gobernuak onespina emateko eskatutako baldintzen artean, aurreikusita dago gastuak gora egingen duela –egungo egoeraren aldean–, titulu berriak abiaraztearen ondorioz, langileei dagokienez bezala, gastu arruntari eta inbertsioei dagokienez ere. Kalkulu horren emaitzak ondoren iruzkintzen dira.

9. Titulazio ofizialen mapa berria abiarazteak eragindako gastu garbiaren hazkundera. Nafarroako Gobernuak, titulazio ofizialen mapa berria abiaraztea baimen dezan, kontuan hartu behar duen prozedura arautzen duen foru-aginduak (114/2009 Foru Aginduak), besteak beste, baldintza batzuk jartzen ditu, abiarazte horrek helburua lortzeko giza baliabideen premia berriei eta beharrezkoak diren gainerako gastuei lotuta daukan eraginari dagokionez.

Dokumentazioa (bai Unibertsitatearena berarena, bai Hezkuntza Departamentuarena) aztertu ondoren, honako hauek azpimarratzen ditugu:

Gradu berrien –16 titulazioren– eragin ekonomikoa kalkulatzeko, Unibertsitateak litezkeen bi egoera eta bi aukera planteatzen ditu, taula honetan adierazita dagoen bezala:

1. egoera	Irakaskuntza-jarduerak talde handitan
2. egoera	Irakaskuntza-jarduerak talde txikitan
A aukera	Egungo irakasleen kategoriak
B aukera	Irakasleen kategoriak, LOUk (Unibertsitateen Lege Organikoak) adierazitako irizpidearen arabera (kontratatuak <math><49\%</math>)

Hau da, litekeen lehen egoeran ia guztiz eusten zaio egungoari, eta talde handiak lehenesten dira; bigarrenagoan, berriz, gehiago hurbiltzen da Bolognako helburuetara, eta irakaskuntza talde txikiagotan zehazten da, bai eta lan-kargan duen eraginari dagokionez ere.

IIL (DOB)	% NUP	% LOU
Irakaskidegoak	49	51
Kontratatuak	51	49

NUPek gradu berrietarako kalkulaturako irakaskuntza-karga, egungo egoeraren aldean, hau da, irakasleek ikasleei astean eskaintzen dizkieten orduen kopurua, ehuneko 14 handitzen da lehenengo egoeran, eta ehuneko 29 bigarrenagoan. Handitze hori, neurri handi batean, titulazio berriek batez beste gehiago irautearen ondorio da; berriek lau urte irauten dute; aurreko egoerakoek, berriz, 3,4 urte.

Era berean, graduondo berrien kasuan –23 master eta 23 doktorego-programa–, beste bi ego-

Aukerez den bezainbatean, lehenengoak NUPeko titulazioko irakasleen eta ikertzaileen egungo egiturari eusten dio; bigarrenagoan, berriz, irakaskuntza-karga LOUren lege-irizpidera hurbilduz proiektatzen da. 2008an, hau da egitura orokorra:

era izan daitezke: egoeran, irakasle elkartuek (%90) eta kontratatutako doktoreek (%10) hartzen dute beren gain ikasketa berriak abiarazteak eragindako irakaskuntza-kargaren gehikuntza; II. egoeran, berriz, ordezkaturako titulazioko irakasleen eta ikertzaileen egitura banatzen da karga, eta irakasle iraunkorren erabilgarritasunei ematen zaie lehentasuna.

Hitz batean, mapa berria abiarazteagatik gastu garbian kalkulaturako gehikuntza taula honetan adierazten da:

	1. egoera		2. egoera	
	A aukera	B aukera	A aukera	B aukera
Graduak	2.638.296	5.048.277	5.685.544	8.420.011
Masterrak eta doktoregoa (I)		-121.487		
Masterrak eta doktoregoa (II)		242.238		
Guztira I	2.516.809	4.926.790	5.564.057	8.298.524
Guztira II	2.880.534	5.290.515	5.927.782	8.662.249

Hortaz, kalkulaturako gastu garbia 2,5 eta 8,6 milioi bitarte handitzen da. Gastu horren %88 eta %97 artean pertsonalari dagokio.

NUPen 2010erako aurrekontuko kapitulu horri berari dagokionez, aurreko tarte horrek emendatze hau dakar:

2010eko aurrekontuko kapituluak	Gastuaren hazkundera, ehunekotan
Langileria	6,13tik 18,20ra
Ondasun arruntak	1,40
Inbertsioak	1

10^a. Aurreko gastuaren hazkunde-aurreikuspe-
nek iruzkin hauek merezi dituzte:

- 114/2009 Foru Aginduak mapa abiarazteak dakarren gastu-hazkunderari eta haren bideragarritasunari heltzen die bereziki. Nafarroako Gobernu-arentzat, administrazio finantzatzailea izaki, hori da kezka nagusia; hau da, prozesuak zer eragin daukan Nafarroako aurrekontu orokorretan.

- Unibertsitateak ez dauka informazio- eta simulaziorako tresna-sistematik, ezarpen osoari buruzko proiektio arrazoizko eta ongi oinarrituak egin ahal izateko.

- Tituluz titulukoa da Nafarroako Gobernuak erabakitako prozedura; horregatik, emaitzen gehitze hutsak bazter uzten ditu prozesuak ekar litzakeen eskalako ekonomiak.

- Gastua langileengan handitzen da nagusiki. Bolognako prozesuak irakasleei irakaskuntza-dedikazio handiagoa eskatzen dielako justifikazioa ematen da.

- Dedikazio edo irakaskuntza-zama handiago horri kontratazio berrien bidez egin dakioke aurre –NUPek bere azterketan bide horri heldu dio nagusiki–, edo egungo irakasleen dedikazioak eta esleipenak berregokituz.

- Titulazio-mapa berri baten kostua zehazteko, askotariko aldagaiak, egoerak eta oso erabaki konplexuak kontuan hartu behar dira; besteak beste, izan dezakeen gizarte onarpena eta haiek finantzatzeko dauden aukerak. Horregatik, informazioa nahikoa eta egiaztatua izatea, erakundeen konfiantza eta gastua kontrolatzeko politika zorrotzen aplikazioa ezinbesteko elementuak dira NUPek, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako gizarteak eta, azken batean, garrantzitsuena dena, Nafarroako ikasleek Bolognako prozesuaren bidez aurreikusitako helburuak erdiets ditzaten.

- Aurreko kostuei, hala egokituz gero, Medikuntza-ikasketak abiarazteak ekarriko lituzkeenak gehitu beharko litzazkieke. NUPek –Nafarroako Parlamentuak eskatuta– agindutako finantza-plannaren arabera, titulazio berri horrek 20,2 m.e.ko gastu osoa beharko luke –8 milioi langileen gastuengatik, 2,7 milioi funtzionamendu-gastuengatik eta 9,5 milioi inbertsioengatik–, eta kopuru horren %93 Nafarroako Gobernuak finantzatuko luke; hau da, guztira 18,8 milioi euro sei urtean.

IV.2. NUPEN KUDEAKETA-EGITURA (III. eranskina)

11. NUPeko gobernu-organoak Estatuko oinarritzko araudien –unibertsitateari buruzko lege organikoen– eta indarrean dauden Unibertsitatea-

ren Estatutuen –maiatzaren 12ko 110/2003 Foru Dekretuak onartutakoen– bidez daude araututa. Eta hala, 2007ko LOU berrituaren arabera, Espainiako unibertsitate publikoetako gobernu-organoak, gutxienez, hauek dira:

a) Kide anitzekoak: Gizarte Kontseilua, Gobernu Kontseilua, Unibertsitate Klaustroa, Eskola eta Fakultate Batzarrak eta Departamentu Kontseiluek.

b) Kide bakarrekoak: Errektorea, errektoreordeak, idazkari nagusia, gerentea, fakultateetako dekanok, eskoletako zuzendariak, departamentuetako zuzendariak, ikerketarako unibertsitate-instituetako zuzendariak eta unibertsitate-komunitatearen defendatzailea.

Organo horietaz gain, unibertsitateek, autoantolatatzeko duten ahalmenaren barruan, komenigarritzat jo ditzaketen beste batzuk ere izan ditzakete; horiek beren estatutuen bidez arautuko dituzte. Adibidez, NUPek Zuzendaritza Kontseilua eta Ikasleen Kontseilua dauzka, haietako lehendabizikoa 2001eko LOU legean jasota zegoen arren.

Era berean, indarreko estatutuek kide anitzeko organo espezifiko edo batzorde batzuk aurreikusten dituzte: Doktorego Batzordea, Ikerketa Batzordea, Kalitate Batzordea eta Hizkuntza Plangintzarako Batzordea.

12. NUPen irakaskuntza-antolaketa, Espainiako gainerako unibertsitate publikoetan bezala, departamentuen eta fakultateen edo eskolen bidez dago funtsean egituratuta.

Gaur egun, NUPek 22 departamentu eta sei fakultate edo eskola dauzka.

Departamentuen barruan batzordeak daude; horietako batzuk arauzkoak edo iraunkorrak dira, eta beste batzuk unean unekoak edo arazo jakin batzuetarakoak.

13. NUPen gobernamendurako antolaketa-egitura –ikus organigrama III. eranskinean– indarreko legediaren arabera eratuta dago, Espainiako unibertsitate publiko guztietan aplikatu daiteke, eta merezi du honako iruzkin hauek egitea:

- Kide anitzeko organo gehiegi dago, 100 inguru.

- Ez dago zehaztasunik organoei eta unitateei esleitutako eskumenen esparruan, eta horrek zailagotu egiten du erabakiak hartzea; izan ere, antzeko funtzioak ikusten dira organoen artean, neurrien hurrenez hurrengo onarpenak dira beharrezko, eta erantzukizunak lausotu egiten dira.

- Hautatutako karguen kopurua izugarri handia da; NUPen 500 pertsona inguru direla kalkulatu da, eta lan-karga handia daukate, bileretan besterik ez bada ere. Eta hori, gainera, kontuan hartuta NUPek, oro har, irizpide murriztaile bat hartu duela –LOUko gutxieneko tartea– kargu hautetsien kopurua zehazteko.

- Haustele-eroldan eta hautetsien artean, nagusi dira irakasleak eta ikertzaileak; hitz batean, Unibertsitatean erabakiak hartzeko prozesua, funtsean, pertsonal akademikoari dagokio.

- Hautetsiak sektoreen interes korporatiboen mende jartzeko aukera; bereziki, irakasleen interesen mende. Edo “hauteskunde-loturak” esapidea-rekin izendatu ohi dena.

- Irakasleen eta ikertzaileen irakaskuntza-kargaren murrizketan izan dezakeen eragina, haiek zenbait karguren ardura izateagatik.

Hitz batean, “unibertsitatea kudeatzeko eredu horrek barne-esparruan galtzen du ia bere indar guztia, irakasleak kudeatzaile baitira aldi batez, eta guztizko lehentasuna ematen baitaio hautatze-ereduari, kargu nagusiak izendatu beharrean. Askoz garrantzitsuagoa da kolektibo akademikoaren barne-interesak betetzea, gizartearen beharrei erantzutea baino” (Unibertsitate Estrategia, 2015).

14. NUPen administrazio-antolaketa gerentzearen zuzendaritzapean dago eratuta; izan ere, hark, bere funtzioen arabera, unibertsitatearen administrazioa zuzentzen du, eta honako hauek dauzka esleituta: administrazio- eta ekonomia-zerbitzuen kudeaketa; unibertsitatearen aurrekontuen eta ondarearen administrazioa eta kudeaketa; administrazio- eta zerbitzuetako langileen zuzendaritza; Giza Baliabideen Zerbitzua eta Informatika Zerbitzua; obrak eta mantentze-lanak; zerbitzu orokorrak eta unibertsitate-egoitza –emakida bidez kudeatua–.

- Ez dago ofizialki onartuta administrazio-egitura horren inolako organigramarik; hala ere, Ganbera honek egindako bat aurkezten dugu III. eranskinean.

- Orokorrean, izendapenak alde batera utzita, ez dago inolako akordiorik edo dokumenturik, zerbitzuen, atalen eta bulegoen ardura, eskumenak eta funtzioak zehaztuko dituenik.

- Administrazio-antolaketa 10 zerbitzu, 29 atal eta 42 bulegoren bidez dago eratuta, eta, hala egokituz gero, beste unitate batzuk ere badaude; besteak beste, informazio-bulegoa, teknologia-unitatea, ikuskaritza-, antolaketa- eta kalitate-unitatea eta Agrobioteknologia Institutua.

Hitz batean, antolaketa konplexua da, ez da piramidala, eta aginte-ildo horizontalak eta bertikalak dauzka. Ezinezkoa da aginte-ildoak argi adieraztea esparru berean, zerbitzu baten, departamentu baten, zentro baten eta/edo errektoreordetzaren erantzukizun bateratua izan daitekeelako. Aginte- eta eskumen-ildoak argi eta garbi zedarrituta ez daudenez gero, erantzukizunak ere ez daude behar bezain zehaztuta, eta horrek, oro har, eta logikoa denez, disfuntzioak eragin ditzake funtzionamendu arruntean.

Beharbada, gerentzia “autoritarioa” ez litzateke egokia izanen antolaketa-egitura edo –diseinu horretarako, ezinen baitaie gailendu gai garrantzitsuetan esku hartu behar duten kide bakarrek eta anitzeko askotariko organo konplexuei. Aitzitik, erabakiek, aurrera eginen badute, adostasunean egon behar dute oinarrituta; prozedura hori motelagoa da, baina, azkenean, eraginkorragoa izan daiteke.

15. Gaur egun, unibertsitate publikoen gobernuaren edo gobernantzaren kontuan gai errepikatu eta erabilienetakoa da erakunde horien modernizazioari eta berrikuntzari buruzko txostenetan eta ikerketetan.

Hala ere, alde aurreko kontu batetik abiatu behar da: Espainiako unibertsitate publikoek auto-antolatzen duten ahalmena estatuan indarrean dagoen esparru arau-emaileak mugatuta dago. Hortaz, kasurik gehienetan, ondoren iruzkintzen diren gobernantzaren erreformen aplikazioak behar-beharrezkoa luke alde aurretik aipatu esparru hori aldatzea.

Hitz batean, aztertutako txostenetatik ezaugarri hauek ondorioztatzen dira, Espainiako unibertsitateen gobernantzaren joerari dagokionez:

- Oro har, guztiek azpimarratzen dute kudeaketa-ahulgune garrantzitsuak daudela, gure unibertsitateetan erabakiak hartzeko prozesu estrategikoak garatzen diren eredu burokratiko eta kolegiatuaren ondorioz.

- Enpresan oinarritutako eta/edo estatubatuar jatorriko eredu berri bat ezarri nahi da, mundu akademikotik kanpoko eragileek presentzia handia izanik, eta baliabide pribatu asko eskuratuz, enpresetatik batez ere.

- Pertsona bakarrek kudeaketa-organok sus-tatzen dira, kide anitzekoen kaltetan, eta azken horiek kontsultarako gelditzen dira. Organoetako pertsona horiek izendapen bidez zehazten dira gehiago hauteskunde bidez baino, eta izendatzen diren pertsonen esperientzia eta prestakuntza izan beharko dituzte zuzendaritzan eta lidertzan; gaine-

ra, ez dira bakarrik izanen esparru akademikokoak.

- Indartu egiten da gizarteari kontuak ematea Gizarte Kontseiluen bidez –esparru akademikokoak ez diren kideak gehiengoa izanik haietan–, helburuen, adierazleen eta zerbitzuen kostuen araberrako ebaluazioa eginez. Horretarako, beharrezkoa da unibertsitateak kudeatzeko sistemak egokitzea, informazioa modu zehatz, sendo, egoki eta konparagarrian lortzeko.

- Premiazkoa da kostu-sistema bat eta zenbait adierazle homogeen eta ebaluagarri prestatzea, kudeaketa-helburuetarako ez ezik, Espainiako unibertsitateen arteko konparagarritasuna ahalbidetzeko ere.

- Unibertsitate-kudeaketaren arauketa publikoaren egokitzapena; horrek haren autonomia indartuko luke, bai irakaskuntza- eta ikerketa-alderdietan, bai giza baliabideetan.

- Administrazioan eta zerbitzuetan lan egiten dutenen espezializazio teknikoaren bultzatzea, funtsezko laguntza eman dezan unibertsitate-kudeaketaren esparru guztietan. Ildo berean, unibertsitate-erakundeek, entitate publikoak diren aldetik, barne-kontrolerako mekanismo egokiak izan behar dituzte, zuzendaritzaren helburuak eta politikak lortzen direla bermatzeko.

- Beharrezkoa da unibertsitateak gehiago nazioartekotzea, ikasleak, irakasleak eta ikertzaileak berenganatzeari dagokionez.

IV.3. FINANTZAKETA-EREDUA (IV. eranskina)

16. Espainiako unibertsitate-sistema. 1983an Unibertsitate Erreformatarako Legea onartzearekin batera, Espainiako unibertsitate-sistema publiko bakarraren ordez 17 unibertsitate-sistema autonomiko ezarri ziren. Unibertsitate-eskumenen transferentzia-prozesu horrek hamaika urte iraun zuen.

Eskumenak deszentralizatzeko hasierako epe horretan, hazkunde nabarmenak gertatu ziren goimailako irakaskuntzaren magnitudeetan. Hernández Armenterosek⁽⁶⁾ Espainiako gizartearen ahalegin kolektiboa azpimarratzen du, unibertsitate-sistema oso denbora gutxian aldatu baitu; izan ere, lehen elitista zen, eta gutxi arduratzen zen produkzio-sarearen beharrez; ondoren, oso irakaskuntza dibertsifikatuen eskaintza egiten zuen lurralde osoan. Espainiako unibertsitatearen

egiturazko hazkunde hori sektore publikoak finantzatu du gehienbat.

1996tik 2006ra bitarteko aldirian, unibertsitate publikoaren beste eredu bat finkatu da. Lurralde-deszentralizazioa da eredu horren ezaugarria, bai eta eskariaren jaitsiera jarraitua ere –matrikulatutako ikasleen kopuruak behera egitea–; horri dagokionez, titulazio berrien eskaintza etengabe handitzea izan da sistemaren erreakzioa.

Ziur aski, horren ondorioz, hasierako finantzaketa-moduak –matrikulatuen kopuruan oinarritutak– modulatu eginen dira, murrizketa hori hautesman bezain laster, ponderazio-indizeen bidez, titulazio jakin batzuen esperimentaltasunaren bidez, adibidez, –ikasle bat, dirulaguntzen ikuspegitik, 1,8 balitz bezala hartzen da titulazioaren zernolakoaren arabera–; edo, besterik gabe, aurrekontuko lehen eta bigarren kapituluaren finantzaketa publikoak ziurtatzen duten beste batzuek ordeztu eginen dituzte, urte anitzeko inbertsio-planak bazter utzi gabe.

Honi dagokionez, gogoraz dezagun Espainia dela, OCDEren barruan eta 1995-2006 aldirian, goimailako hezkuntzako ikasleen kopurua gutxitu den herrialde bakarra –%6–; OCDEn eta EBn, berriz, %34 handitu da kopuru hori. Hala ere, gastua %47 handitu da, bai Espainian, bai OCDEn eta EBn.

Eskaera jaitsi arren, titulazioen eskaintza handitu egiten da. Horren ondorioz, irakasleen, ikertzaileen eta administrazioan nahiz zerbitzuetan dihardutenen kopuruan ez da jaitsierarik gertatzen; aitzitik, kopuru hori etengabe handitzen da. Espainiako unibertsitateko gastu arruntaren %75 inguru hartan lan egiten duten gastuei dagokionez, unibertsitateak gero eta finantza-baliabide handiagoak eskuratu behar izan ditu, eta baliabide horiek, nagusiki, zergadunengandik jaso ditu, finantza-administrazioaren bidez.

OCDEren barruan, Espainia da, Islandiaren ondoren, unibertsitateen funtzionamendurako gastuetatik ehuneko handiena erabiltzen duena haietan lan egiten dutenak ordaintzeko; irakasleei soilik bagagozkie, lehen lekuan dago.

Hala ere, eskumenak autonomia-erkidegoei eskualdatu zitzaizkien hasierako aldiria gaindituta, zeinean ahalegin txalogarria egin baitzen eskaintza akademikoaren aniztasuna eta maiztasuna areagotzeko, hura gizarte- eta, are, produkzio-eskaeretara egokitu nahian, eztabaidagarria da,

(6) Hernández Armenteros, J. "Presentziako unibertsitate publikoaren finantzaketa. Autonomia-erkidegoen bana-banako azterketa, 1996tik 2004ra bitarteko aldirari dagokiona" ("La financiación de las universidades públicas presenciales. Análisis por Comunidades Autónomas del periodo de 1996 a 2004"). *Revista de Estudios Regionales*, 78/2007

gutxienez –Hernández Armenterosen iritziz–, unibertsitate publiko guztiek etengabe jarraitzea gero eta irakaskuntza-eskaintza handiagoa egiten.

Hori tokian tokiko gizarte-presioen, klaustro akademikoen interesen eta, askotan, unibertsitateen irakaskuntza-eskaintzetan diseinu espezializaturik ez egotearen ondorio izan daiteke. Hortaz, unibertsitate berdintsuak sortzen dira, baina neurri desberdinekoak, eta, horrenbestez, orain erronka da zehaztea zein den unibertsitate bakoitzaren prestakuntza-profila esparru gero eta lehiakorrago horretan. Horri guztiari, gainera, gehitzen diogu ezen, irakasleen espezializazio nabarmenaren –egituraren zurruntasunaren– ondorioz, are beharrezkoagoa eta premia-koagoa dela titulazio berriak izatearen azterketa zehatza egitea, irakasleen eta ikertzaileen premia irakaskuntza-beharrek eragindakoa baita, eta ez ikerketa-beharrek.

Hortaz, eskaria jaisteak eta, horrekin batera, eskaintza handitzeak berekin dakarte gutxiegiako jarduera-egoerak izatea eta/edo irakaskuntzako

zerbitzu-unitate bakoitzeko batez besteko kostuak, handiak izaki, nabarmenki eraginkortasunik gabekoak izan ahal izatea, eta, gainera, horrenbestez, merkatuan titulazio gehiegi egotea eta, horri lotuta, berehalako enplegarritasuna urritzea.

Hala, CRUEren (Espainiako Unibertsitateko Errektoreen Konferentziaren) datuen arabera, ikasleen kopurua %8,28 jaitsi da Espainiako unibertsitate-sisteman –1.222.679 ikasletik, 1996an, 1.121.427 ikaslara, 2004an–; aldi berean, titulazio akademikoen eskaintza, berriz, %48 handitu da, 1.671 titulaziotik 2.478 titulaziora. Irakasleen eta ikertzaileen kopurua %32 handitu da (67.283 kide-tik 86.611 kidera); administrazioan eta zerbitzuetan dihardutenen kopurua, berriz, gehiago handitu da, %40 (32.108 pertsonatik 45.079 pertsonara).

1983 eta 2009 artean, guztira, presentziazko 19 unibertsitate publiko sortu dira, eta unibertsitate pribatuak kopuru bera. Oro har, presentziazko unibertsitateak bikoiztu baino gehiago egin dira 1983 eta 2009 artean.

	1983 arte	1984-2009	Guztira
Presentziazko unibertsitate publikoak	28	19	47
Presentziazko unibertsitate pribatuak	4	19	23
Guztira	32	38	70

17. Espainiako unibertsitate-sistemaren finantzaketa garbia %211,64 handitu da 1996tik. Horrek esan nahi du 2006an BPGd-aren %0,85 zela; 1996an, %0,78 zen. Handitze hori gorabehera, Espainia beheko tartean dago EBko herrialdeen artean; hala ere, Espainiako balioak batez bestekora hurbiltzen ari dira.

Unibertsitate-finantzaketaren gehikuntza horrek administrazio publikoetan du jatorria nagusiki. Finantzaketa horren %81,76 administrazioetik dator zuzenean; edo, bestela, %2,03, ikasleen beken bidezkoa da. EBko herrialdeetan, %81 da finantzaketa publikoaren batez bestekoa.

Ikusten da bekek, ehunekotan, jaitsiera jarraitua izan dutela; %3,72tik, 1996an, %2,03ra, 2006an.

Finantzaketa pribatuaren parte-hartzea txikia da eta, batik bat, ikerketa-jardueretatik eta matrikula-eskubideetatik dator. Ekarpen pribatu horiek denboran zehar izandako bilakaerari dagokionez, tasen ordainketatik datorrenak beherantz egin ohi du 1996tik –matrikulatutako ikasleen kopuruak beherantz egin du–, bai sarrera-iturrien gutzitzkoaren ehunekotan, bai BPGd-arekiko pisu erlatiboaren ikuspuntutik.

Hala ere, finantzaketa pribatuaren ehunekoak, Espainian, bat datoz EBko batez bestekoarekin, eta taularen erdialdeko balioen artean daude. Europako zazpi herrialdeetan da Espainian baino txikiagoa finantzaketa pribatuaren ehunekoak.

Funtsen aplikazioari dagokionez, haren egitura iraunkorra da denboran zehar. 2006an, eragiketa arruntak %72,2 dira, inbertsioak %20 eta finantza-eragiketak %7,8. Ikusten da azpiegituretan eta ekipamenduetan egindako gastua ikerketa-jarduerarekin zerikusi zuzena duten inbertsio ez-materialetarantz aldatzen dela; horrek argi adierazten du haien inplikazioa gero eta handiagoa dela, produkzio-saretik datozen ikerketa-eskariez den bezainbatean.

18. Unibertsitate-sistema autonomikoen finantzaketa-ereduen konparaketa. Baliabide publikoak Espainiako unibertsitateei esleitzeko modu tradizionala negoziatua da, eta aurrekontu-aurrekarietan eta unibertsitatearen eta administrazio finantza-tzailearen negoziazio-ahalmenean dago oinarrituta.

Bestalde, komeni da azpimarratzea unibertsitate-sistema autonomiko jakin batzuen finantzaketa haien lurraldean zenbait unibertsitate publiko ego-

tearen mende dagoela. Haien arteko banaketa-irizpideak izaten dira sistema horien alderdi kritikoenetako bat.

1992. urtera bitartean, Espainiako unibertsitatearen finantzaketa inkrementalista zen, hasierako dirulaguntzak, LRUren ondoren, sistematikoki handitu zirelako, finantzetan honako hauek izandako eraginagatik: lantaldeek, irakasleen eta ikertzaileen ordainsari-tarte berrien finkapenak, titulazio berriek eta ikasleen kopurua handitzeak.

Autonomia-erkidegoek unibertsitate-eskumenak berenganatu ondoren, unibertsitate eta titulazio berriak sortu dira, eta sistematikoki handitu da transferitutako zerbitzuen benetako kostua. Finantzaketak negoziatua eta inkrementalista izaten jarraitzen du.

Autonomia-erkidegoetan erabilitako finantzaketa-moduek unibertsitateen gastu-aurrekontuko 1. eta 2. kapituluari aurre egitera jotzen dute, administrazio publikoaren transferentzien bidez, eta bide ematen dute ondorioztatzeko finantzaketa publiko horren bi heren baino gehiago nomina ordaintzeko erabiltzen direla. Baldintzatu gabeko funts gehiagoren edozein eskaerak edo erabilitako moduen edozein aldaketak, hasiera batean, langile-kopuru handiagoa finantzatuko du, edo haiei ordaindu behar zaien handitzea, edo bata zein bestea aldi berean.

Horrelako finantzaketa eraginkortasunik gabekotzat hartzen da, ez baitu loturarik helburu zehatzekin. Gainera, administrazioaren eta unibertsitateen arteko etengabeko negoziazioak mintzaideek izena galtzea dakar, edo helburu argi eta garbi politikoak bilatzea⁽⁷⁾. Era berean, bat dator aurrekontuak egiteko eredu tradizionalekin, eta horiek finantza-kudeaketa onerako printzipio guztien aurkakoak dira; finantzaketa-beharraren oinarria gastu historiko bat egote hutsa da⁽⁸⁾.

1992tik aurrera, eredu horien krisia gertatu zen, une hartan defizit publikoa gutxitzeko zegoen premia larriak ezarritako aurrekontu-murrizketa zorrotzen ondorioz. Gaur egun, oro har, nagusi den sistema baliabideen esleipenean dago oinarrituta, deszentralizatuagoa da, eta helburuak lortzera dago bideratuta. Zenbait esperientziaren ondoren, eskualdeetako goi-mailako hezkuntza-sistemek gastu-behar objektiboak kalkulatzeko antzeko eskemetara jotzen dute, oinarritzko finantzaketa

zehazteko, eta haiek kontratu-mekanismoen bidez osatzen dituzte, kalitatea sustatzeko.

Helburuen araberako finantzaketaren abantailen artean, honako hauek aipatzen dira: alde bateatik, goi-mailako sistema jakin bateko erakunde guztientzat antzeko tratamendua bilatzea; bestetik, gardentasun handiagoa izatea funts publikoak esleitzean; eta, azkenik, gobernu autonomikoak malgutasun handiagoa izatea, unibertsitatea gizar-tearen ikuspuntutik nahi izatekoak diren helburuak lortzera bideratzeko, aldi berean haren autonomia tradizionala errespetatuz.

Valentzia izan zen finantzaketa-eredu arau-emaille bat abiarazten aitzindaria (1994). Urte horretan bertan, Unibertsitate Kontseiluak unibertsitateen finantzaketa buruzko txosten bat argitaratu zuen, eta baliabideak esleitzeko zenbait irizpide finkatu zituen, Valentzian erabilitako eredutik jasota. Handik gutxira, Andaluziako, Galiziako, Gaztela eta Leongo, Murziako eta Nafarroako autonomiek jarraitu zioten Valentziakoari, bai eta Kataluniakoak ere, irakaskuntza berrien esparruan.

Autonomia-erkidegoen lehen multzo hark abiapuntutzat hartzen dituen finantzaketa-moduek, batzuetan, unibertsitateetara bideratu behar diren baliabideak kuantifikatzen dituzte, eta, beste batzuetan, administrazioak aurrez zehaztutako zenbatekoak banatu besterik ez dute egiten.

Beste autonomia-erkidego batzuetan, finantzaketa, edo haren zati bat, unibertsitateekin programa-kontratuak sinatuz bideratzea aukeratu dute. Nahiz eta oso ezaugarri desberdinak izan, horrelako sistemak Kanarietan erabiltzen dira 1996tik, bai eta Kataluniako Unibertsitate Politeknikoan ere, eta komunitate horretako gainerako unibertsitateetara zabaldu dira.

Geroago, urte anitzeko bigarren planak sinatu dira, eta hobekuntza handiak egin dira, finantzatzeko eredu etako zenbait alderditan bezala programa-kontratuetan ere; horren ondorioz, baliabideak esleitzeko metodologia parekatzen ari da Espainiako unibertsitate-sisteman.

Hortaz, finantzaketa-ereduen belaunaldi berri bat dagoela ikusten da, neurri batean aurrekoen lekua hartzen ari dena. Eta, hala, prozedura inkrementalistak zerabiltzaten unibertsitate-sistemek

(7) "Unibertsitate Txostena 2000" edo, bestela esanda, Bricall txostenaren arabera; txostena Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziak (CRUE) egin zuen.

(8) "Unibertsitate-zerbitzuen erreferentziako kostuak zehazteko eta oinarritzko finantzaketa kalkulatzeko eredu" ("Modelo para la determinación de los costes referenciales de los servicios universitarios y cálculo de la financiación básica") izeneko lanaren arabera. Unibertsitate Koordinaziorako Batzordea, 2007.

formula- eta kontratu-prozedurak hartu dituzte; adibidez, Kantabrian, EAEn eta Errioxan. Madrilgo erkidegoak, formula-eredua alboratu, eta formula- eta kontratu-eredua hartu du, eta Gaztela-Mantxa-ko unibertsitate-sisteman, kontratuzko eredu inkrementalista utzi eta formula nahiz kontratu bidezkoa hartu dute.

Extremaduran izan ezik, unibertsitate-sistema transferentzia izendunen bidez finantzatzeko baitu, gainerako autonomia-erkidegoetan erabiltzen diren mekanismoetan, alde batetik, oinarrizko finantzaketa deritzona erabiltzen dute, nahikotasunezkoa edo operatiboa, berarekin formula baten aplikazioa ekarri ohi duena, eta, bestetik, programa-kontratuak baliatzen dituzte, edo helburuen arabera finantzaketa, zeinak, jakina, adierazle-sistemaren bat izan behar baitu. Elementu horiez gain (aztertutako eredu guztietan agertzen dira), beste batzuk ere izaten dira; adibidez, finantza-saneamendurako aurreikuspenak (Andaluzia, Gaztela-Mantxa eta Galizia), finantza lehiakorreko beste ildo batzuk eta, kasu guztietan, urte anitzeko inbertsio-plan bat.

Joera hori bat dator unibertsitate publikoak finantzatzeko nazioarteko esperientziekin. Laurogeiko urteen amaieratik, OCDEko herrialdeetan lanean ari dira unibertsitate-sistemek lehiakortasun eta kalitate handiagoa izan dezaten lortu nahian; horretarako abiarazitako ereduak, irizpide estandarren bidez, oinarrizko finantzaketa egiten dute, baina, aldi berean, finantzaketa hori Helburu jakin batzuen lorpenari lotutako baliabideekin osatzen da.

19. NUPen finantzaketa-eredua. NUP sortzeko foru-legean (8/1987), ezohiko kreditu bat onartu zen (75 milioi pezeta), haren hasierako funtzionamendu-gastuak diruz laguntzeko, eta "Nafarroako Unibertsitate Publikoarentzako Dirulaguntza" kontusail espezifikoak sortu zen. Orduz geroztik, unibertsitatea Foru Komunitateak urtero erabakitako dirulaguntza orokorraren bidez finantzatu da, bai eta honako hauen bidez ere: kasuan kasuko matrikula-eskubideak, beste transferentzia publiko edo, bestela pribatu batzuk, beste jarduera batzuetatik iritsitako etekinak, eta kontratuei zein hitzarmenei lotutako diru-sarrerak; hori guztia, betiere, indarreko legediaren arabera.

Nafarroako Parlamentuak, 2000. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 18/1999 Foru Legeko hogeita laugarren Xedapen Gehigarriaren bidez, honako hau agintzen du: "Nafarroako Gobernuak Nafarroako Unibertsitate Publikoa finantzatzeko hitzarmen bat aurkeztuko du sei hilabeteko epean."

Aurreko agindu hori betetzeko, 2001eko martxoan, lehen 2001-2003 hitzarmena sinatu zen; geroago, bigarren hitzarmena izenpetu zen, 2006tik 2008ra bitarteko ekitaldietarako. Berarizko hitzarmenik izan ez duten ekitaldietan, indarreko aurrekoaren luzapena aplikatu da; bestela, aurrekontuei buruzko foru-legeetan zehaztu dira zuzenean haietako kopuruak.

Gaur egun –2010–, beste finantzaketa-hitzarmen bat aztertzen ari da, Unibertsitate Koordinazi-orako Kontseiluko Finantzaketa Batzordearen 2007ko Txosteneko "Unibertsitate-zerbitzuen erreferentziazko kostuak zehazteko eta oinarrizko finantzaketa kalkulatzeko eredu" oinarri hartuta.

2001-2003rako lehen hitzarmena

Lehen eredu horren erreferentzia gisa hauek zehazten dira: hurrengo urteetan gertatuko den ikasleen kopuruaren jaitsiera; NUPek, sorreran planteatutako helburuen arabera, lortutako neurria, nahiz eta konpondu beharreko zuzkidurazko gabeziak izan oraindik; eta Espainiako batez beste-koaren gainetik egotea ikasleko gastu publikoan eta matrikulatutako ikasleko irakasleetan.

Diseinatutako ereduak, Espainiako eredu gehienek bezala, honako hauek dauzka: baldintzatu gabeko oinarrizko dirulaguntza bat (2001ean, guztiaren %94,9 izan zen, inbertsioak kontuan hartu gabe), ordainsari-homologaziorako zuzkidura bat (%3,97), eta zazpi proiekturako beste zuzkidura bat (%1,10), lortu beharreko helburuekin eta finantzaketarekin. Hau da, hiru multzotan dago egituratuta:

- Oinarrizko finantzaketa
- Proiektuei lotutako finantzaketa
- Inbertsioetarako finantzaketa

Oinarrizko finantzaketa talde baliokidea oinarri hartuta zehazten da, gutxieneko eta gehieneko ikasle-kopuru batekin, honako hauen bidez haztatuta: irakasgaiaren iraupena (60 ordu edo 6 kreditu oinarri gisa), experimentalak den ala ez, aukera askekoa den ala ez eta lehenengo eta bigarren matrikulen kopurua. Eta hala, oinarri-urtean, kostu bat erabaki zen multzo-mota bakoitzerako, orduan zegoen ekipamenduaren birjarpenari eta funtzionamenduari lotutako inbertsio-gastuengatik eta gastu arruntengatik. Ordainketa multzo guztien baturari dagokiona izanen da; baina horri urte bakoitzean zehaztu beharreko kopuru bat gehitu beharko zaio, eta unibertsitatearen atxiki gabeko sarrerak kendu (matrikulak nagusiki). Urte bakoitzerako eguneratzen da, dauden talde baliokideen arabera, eta KPIa +3,25ekoa izanik. Hau da, lehen

urteko dirulaguntza finkatzen da, eta gerokoetarako teknika instrumentalista erabiltzen da.

Ordainsari-homologaziorako zuzkidura irakasleen banakako osagarriei aurre egiteko erabiltzen da; osagarri horiek 19/1998 Foru Legea ordainsari-en tarte autonomikoei dagokienez aplikatzearen ondorio dira.

Barneratutako proiektuei dagokienez, esan behar dugu haien finantzaketa zehaztuta dagoela, baina duten Helburua, hasiera batean, orokorregia dela, laburkiro dagoela garatuta, eta helburuak ez direla beti kuantifikatzen. Ez da adierazle-sistemarik ezartzen.

Unibertsitateak, 2009-2012rako Finantzaketa Hitzarmenaren proiektu-zirriborroan, esaten du talde baliokidearen kalkuluaren konplexutasuna dela hitzarmen honen desabantaila nagusia. Alderdi onen artean, azpimarratzen du eskariari egokitutako finantzaketa aldagarria ematen duela, diru-doikuntzak ahalbidetzen dituela behin betiko likidazioetan, hobekuntza-proiektuak finantzatzen dituela, eta lerratze horizontalak ahalbidetzen dituela obrak egiteko.

2006-2008rako bigarren hitzarmena

Egitura hau dauka:

Finantzaketa	2006	2007	2008
Transferentzia arruntak			
Irakaskuntza eta ikerketa	46.770.000	48.406.960	50.101.193
Irakasleen ordainsari osagarriak	2.230.000	2.308.050	2.388.832
Proiektuak	664.223	677.507	691.057
Ikasketak Tuteran abiaraztea	650.000	2.170.000	3.410.000
Transferentzien guztizko partziala	50.314.223	53.562.517	56.591.082
Inbertsioak			
Iruñeko Campusa	1.700.000	1.700.000	1.700.000
Tuterako Campusa	2.087.450	4.800.000	8.600.000
Inbertsio espezifikoaren guztizko partziala	3.787.450	6.500.000	10.300.000
Guztira	54.101.673	60.062.517	66.891.082

Bigarren hitzarmen honek, urte anitzeko finantzaketa iraunkorraren ikuspuntutik, Foru Administrazioak ordaindu beharreko gehieneko kopuruak zehazten ditu. Soildu egiten da hitzarmenaren edukia aurrekoarekin alderatuta, eta egitura honako hau da:

- Transferentzia arruntak
- Inbertsio espezifikoak

Baldintzatu gabeko irakaskuntza- eta ikerketa-finantzaketa ikasleen kopurua eta kostu arruntak oinarri hartuta kalkulatzen da, bai eta ikerketaren jarduera-maila kontuan hartuta ere.

Proiektuen araberako finantzaketak haiek aipatu besterik ez du egiten batzuetan, edo geroagoko akordioetarako uzten ditu. Haietako batzuek ez dute helbururik, eta askok ez dute adierazlerik.

Espainiako unibertsitateetako finantzaketa-ereduak buruz egindako konparazio-azterlanaren arabera, hitzarmen hau errazenetakoa da zenbatekoak kalkulatzeko, informazio gutxien dutenetakoa, zehaztugabeenetakoa (ez baitu biderik ematen adierazitako zenbatekoak eta haien egokitasuna egiaztatzeko), eta finantzaketa baldintzatua den ikusteko aukera ere ez du ematen.

Unibertsitateak, 2009-2012rako Finantzaketa Hitzarmenaren proiektu-zirriborroan, ereduaren alde sendoak eta ahulak aipatzen ditu. Alde sendoen artean, azpimarratzen du kalkuluak errazagoak direla, eta berariaz jasotzen dituela irakasleen ordainsari osagarriak. Alde ahulak hauek dira: zifrak itxiak dira, eta ezin dira egokitu denboraldaketetara; zaila da ordainsari-tarteak lau urtera aurreikustea; eta zenbatekoen lerratze bertikalak ez ditu konpontzen obretako atzerapen-arazoak.

2009-2012rako hitzarmenaren zirriborroa

Hitzarmen honen zenbait zirriborro daude, baina ez da onartu behin betiko dokumentua; 2009an, aurreko hitzarmenaren luzapena aplikatu zen, eta, 2010ean, finantzaketa ekitaldi horretarako Nafarroako aurrekontu orokorretan zehaztu zen zuzenean.

Eta hala, aipatu 2010. urte horretarako, kopuru finko batzuk aurreikusi ziren transferentzia arrunt gisa, hauek finantzatzeko: irakaskuntza eta ikerketa (57,17 m.e.; horietatik, %2 baldintzatuak dira); irakasleen ordainsari osagarriak (1,14 m.e.); eta Tuterako ikasketak (2,12 m.e.) Inbertsioetarako kapital-transferentzia gisa, 2,69 m.e. aurreikusten dira guztira.

20. NUPen etorkizuneko finantzaketa-sistemari buruzko gogoetak. Gaur egun, eztabaida bizia egiten ari da Espainiako unibertsitateen –eta, jakina, NUPen– finantzaketa-ereduari buruz, bai administrazio finantzatzailetan, bai unibertsitateetan, bai komunikabideetan.

Kontua da oraintxe zaila dela iritzia ematea finantzaketa-ereduaz ikuspuntu autonomikotik, arazo hau baitugu: gobernu zentralak ereduaren oinarritzko eta funtsezko alderdiak arautuko ditu, eta ereduaren zati txiki bat finantzatzen du; baina unibertsitate-finantzaketaren zatirik handiena autonomia-erkidegoei dagokie.

Erreforma-prozesu hori garapen-fasean dago, unibertsitate-jardueraren egitura orokorra eta, horrenbestez, haren finantzaketa noiz zehaztuko zain. Hasieran, 2015ean abiaraztea zegoen aurreikusita, baina 2010eko apirilean, Unibertsitateen Kontseiluak eta Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorrak finantzaketari buruz batera egindako adierazpen baten bidez adierazi zen, krisi ekonomikoaren larritasuna ikusita, 2015-2020 aldira arte atzeratzen zela Espainiako unibertsitatearen finantzaketa-ereduaren finkapena. Eredu hori iritsi bitartean, besteak beste, neurri hauek proposatu ziren:

- Informazioaren gardentasuna hobetzea, unibertsitatearen informazio-sistema integratua landu eta garatzearen bidez, aukera eman dezan jakiteko zein diren irakaskuntza-kalitateari, ikerketari, jakintza-transferentziari eta kontuak emateari buruzko adierazleak; bai eta kontabilitate analitiko-rako sistema bat ezartzea ere, jardueren benetako kostua zehazteko.

- Espainiako unibertsitateen ebaluazio- eta jarraipen-sistema diseinatzea.

- Ekonomikoki aurrezteko lortzeko planak abiaraztea unibertsitate-jarduera guztietan, horren

ondorioz kalitatea galdu gabe. Horri dagokionez, eta adibide gisa, NUPek egindako kontratu nagusien berrikuspenari esker, 0,7 milioi euro aurreztu ditu 2009an.

- Unibertsitateen bereizkuntzarik gabeko hazkunde mugatzea.

- Nabarmen gutxitzea zenbait esparrutan atzemandako eraginkortasunik eza; adibidez: ikasketen uzte-tasak; errepikatzaileen kopuru handia; ikasketen gehiegizko iraupena. Horretarako politika, matrikulen prezioak zigortzea litzateke.

Testuinguru horretan, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren finantzaketa ziurgabetasunean eta behin-behinekotasunean dago murgilduta. Gainera, honako faktore hauek egoera hori larriagotzen dute: unibertsitatea EEESra egokitzeko prozesuaren erdian dago; epe ertainean, ez dago Espainiako unibertsitate publikoak finantzatzeko ereduaren oinarritzko arauketarik; eta ekonomia- nahiz finantza-krisiaren eragina, gizarte osoan nabaritzen baita.

Ondorioz, erakunde horrek Nafarroako gizartearen betetzen duen eginkizun guztiz garrantzitsua onartuta ere, eta unibertsitate-erakundearen autonomia- eta haietan sartzeko berdintasun-printzipioa errespetatuta, NUPen etorkizuneko finantzaketa-hitzarmenak printzipio orokor hauek izan behar ditu abiapuntu:

Erakundearen arteko konfiantza-printzipioa: Nafarroako Gobernuak eta Unibertsitateak elkarrekin konfiantzan oinarrituta arautu behar dituzte beren arteko harremanak, gizartearen egokitu zaien eginkizunari errespetu instituzionala izan behar diote, eta adostasunez jokatu behar dute erabaki nagusietan.

Finantza-arloko nahikotasun-printzipioa: Nafarroako Gobernuak Unibertsitatearen funtzionamendu egokia bermatu behar du finantzarioki, gutxienezko kalitate-parametroak bete ditzen, eta kudeaketa ona egin dezan bere jardueren garapenean.

Finantza-arloko egonkortasun-printzipioa: Nafarroako Gobernuak finantza-iturrien egonkortasuna bermatu behar dio Unibertsitateari epe ertainean.

Aurrekontuen egonkortasun-printzipioa: Unibertsitateak, gainerako administrazio publikoek bezala, egungo egoera ekonomikora egokitu behar ditu bere aurrekontuak; izan ere, egoera hori gastu publikoa nabarmen kontrolatzera behartzen ari da foru-sektore publiko osoa.

Gobernu onaren printzipioa: Unibertsitateak bere gastu- eta sarrera-politikak berrikusi behar ditu, bere kudeaketaren zer alderdi izan daitezkeen eraginkortasunik gabekoak atzemateko, eta aurrezteko neurri zehatzak hartu behar ditu, gutxieneko kalitate-mailen kaltetan izan gabe.

Gardentasun- eta kontuak emate-printzipioa: Unibertsitateak oro har Nafarroako gizarteari eta bereziki foru-administrazioari (bere finantzaketaren arduraduna baita) ahalik eta argien, zehatzen eta egokien jakinarazi behar dizkie bere kudeaketan lortutako emaitzak, bai eta bere helburuak zer neurritan betetzen ari den ere. Horretarako, ezinbestekoa da kostuei, helburuei, adierazleei eta egindako jarduerari buruzko kontabilitate-informazioa biltzeko sistema bat aplikatzea.

Soiltasun-printzipioa: Hitzarmena, betiere zehaztasun teknikoa behar adinakoa izatea ziurtatuta, erregulaziorako formulazio eta tresna soiletan oinarritu behar da, informazioa arin, koherentziaz eta trinkotasunez lortu eta tratatzeko, bai eta haren barne- nahiz kanpo-jarraipen eta -ebaluazio egokia bideratzeko ere.

Goi-mailako hezkuntza-zerbitzuaren onuradunaren erantzunkidetasun-printzipioa, erreferentziazat egiaztatutako benetako kostua daukaten prezio publikoen politikaren euskarri gisa.

Aurreko printzipioetatik abiatuta, eta kontuan hartuta ez dela ganbera honen zeregina zehaztea NUP finantzatzeko eredu, baizik eta gogoeta batzuk helaraztea Parlamentuari, Gobernuari eta Unibertsitateari, uste dugu eredu hori ildo hauen arabera zehaztu beharko litzatekeela:

a. Baldintzatu gabeko oinarrizko finantzaketa: Irakaskuntza-jardueratik ondorioztatutako funtzionamendu-gastuei aurre egiteko –langileenak eta gainerako gastu arruntak–. Gaur egun ezinezkoa denez jarduera horren titulazioko eta/edo ikasleko benetako kostua zehaztea, oinarrizko finantzaketa horren kuantifikazioa unibertsitateetan erabili ohi diren formula edo magnitudeetakoren batekin lotu beharko da. Era berean, komeniko litzateke mugaren bat aplikatzea –egungo foru-leggedian adierazten den bezala– dirulaguntza hori zehaztean; muga hori kreditu edo irakasgai finantzaragari lotuta egonen litzateke, edo are irakasleen eta ikertzaileen kopuruaren hazkundeari ere.

Bere ikerketaren funtzionamendu- edo egitura-gastuei aurre egiteari dagokionez, uste dugu ikerketa-jarduera bere-berea dutela egungo unibertsitate-ereduak eta jakintzaren gizartearen beharrek; hortaz, botere publikoek ikerketaren funtzionamendu-gastuen finantzaketa bermatu behar dute. Oinarrizko finantzaketa horren kalkulua ikertzaile

huts –irakaskuntza-lanik gabeko– diren langileen kostuarekin eta ikerketarako kapital finkoa mantentzearekin lot liteke.

Aurreko oinarrizko finantzaketaren kalkulua behin-behinean egingen da aurrekontuak prestatzeko aldiaren barruan, estimazio eta aurreikuspen egokien arabera. Hasierako zenbateko hori, hala egokituz gero, aurrekontu-zikloaren amaieran doitu da, benetako informazioaren arabera.

Gainera, kontingentzia-funts bat kontuan hartu behar da (adibidez, oinarrizko finantzaketaren %2), edozein finantza-gorabeherari aurre egiteko.

Finantzaketa hori hiruhileko bakoitzaren hasieran ordainduko zaio unibertsitateari, eta haren zenbatekoa hurrengo ekitaldiko lehen hiruhilekoa- ren ordainketan doitu da behin betiko.

b. Unibertsitatearen jardueraren bidez lortutako finantzaketa: Unibertsitateak bere kontratuzko irakaskuntza- eta ikerketa-jardueraren ondorioz lortutako baliabide guztien estimazioa jasoko da, baliabide horiek sektore pribatutik iritsi, zein sektore publikotik. Jakina, Unibertsitateak, zenbateko hori kalkulatzeko, kontratatutako prestazioaren benetako kostuak kontuan hartu beharko ditu, bai eta mozkin-tartea zentzuzkoa izatea ere.

c. Irakaskuntza-, ikerketa- eta kudeaketa-jardueren emaitzek eta helburuek baldintzatutako finantzaketa. Finantzaketa horren zenbatekoak, ondo kudeatzeko benetan akuilagarria izan dadin, adierazgarria izan behar du –oinarrizko finantzaketaren %10 inguru–, eta, adibidez, honako hauei lotua:

- Irakaskuntza-jarduera: ikasketen uzte- eta titulazioko arrakasta-tasak hobetzea, irakasleen kreditazio-ehunekoa handitzea, edo irakaskuntza-bikaintasunak lortzea.

- Ikerketa-jarduera: Nafarroako Gobernuaren ustez gizarterako lehentasunezkoak diren ikerketa-esparruak lehenetsi beharko lirateke, betiere Gobernuak lehentasunezkoak direla adierazi ondoren. Era berean, kalitatekoa den eta gizarte-ri teknologia- eta jakintza-transferentzia handiena helarazten dion ikerketa sustatuko da.

- Kudeaketa-jarduera: hasieran aurreikusitakoak baino urteko ekonomia- eta finantza-emaitza hobek lortzea.

d. Inbertsioak gauzatzeko baldintzatutako finantzaketa: Nafarroako Gobernuak eta Unibertsitateak gauzatu beharreko urte anitzeko inbertsio-plan bat egingen dute, unibertsitatea beharrezko azpiegituz eta ekipamenduez hornitzeko; hala ere, kontuan hartu behar da oinarrizko azpiegitu-

rak eraiki berri direla NUPen, eta, horregatik, lehentasuna eman lekiok ekuipamendu berrien hornidurari –haien artean, EEESren eskakizunetatik ondorioztatutakoak–. Era berean, plangintza horrek gauzatu izateko beharrezko baliabideen eta horretarako epearen zentzuzko estimazioa izanen du.

Finantzaketa hori gradualki ordainduko zaio unibertsitateari, kontratazio administratiboaren prozesuko item nagusiak kontuan hartuta, eta dagozkion kontratuzko dokumentuen bidez justifikatuta. Hala bada, inbertsioaren finantzetaren %25 kontratua esleitzen eta sinatzen denean eman liteke; %50, inbertsioaren ehuneko hori lortu dela ziurtatzen duten agirien bidez; eta gainerakoa, haren likidazioa egitean.

Finantzaketa horretan, muga hauetako txikiena aplikatuko da:

– Urte anitzeko aurreikuspenen zehaztutako zenbatekoa; eguneratua, hala egokituz gero.

– Inbertsioaren ziurtagirietatik ondorioztatutako zenbatekoa.

e. Matrikula-prezioen edo -eskubideen politika. Indarreko legediaren barruan, Estatuaren ahalmena da prezioen tartea finkatzea –irakaskuntzaren kostu teorikoaren arabera–, eta Nafarroako Gobernuak tarte hura oinarri hartuta erabakitzen du ikasurte bakoitzeko graduoko eta graduondoko ikasketetan zein den aplika daitekeen zenbateko zehatza. Hortaz, gobernuak oso maniobra-tarte estua dauka ekitaldi bakoitzean. Hala ere, tarte horren barruan, eta prezioak zehaztean uniformetasunari eutsiz gero, prezioen diskriminazio-politika batzuk jasoko lituzkeen sistema bat bilatu beharko litzateke, kontuan hartuta, adibidez, ikaslearen ahalmen ekonomikoa⁽⁹⁾, edo hurrenez hurrengo matrikulazioak –gaur egun egiten den bezala–. Horri dagokionez, gaur egun, Espainiako unibertsitateez orokorrean egindako kalkuluen arabera, botere publikoak 7.000 euro inguruko dirulaguntza ematen ari zaizkio ikasle bakoitzari.

f. Ikasketei laguntzeko politika. Nafarroako Gobernuaren bekei dagokienez, aurreko prezioen aldaketatik bildutako kopuru handiagoa errenta txikiaren ikasleei beka gehiago edo handiagoak emateko erabil liteke. Era berean, Nafarroako Gobernuak, laguntzeko egon daitekeen beste bide bat bezala, ikasketetan zerga-kenketak egitea azter lezake.

Hitz batean, proposatzen den ereduak, NUPen finantza-nahikotasuna bermatzeaz gain, bidea eman behar du kudeaketaren gardentasuna, kalitatea, eraginkortasuna eta efizientzia sustatzeko esparru guztietan: irakaskuntzan, ikerketan eta baliabideen kudeaketan. Jakina, eredu horrek behin-behinekoa izan beharko luke, bai estatuak egin dezakeen oinarritzko arauketa iritsi bitartean, zeina esparru honetan unibertsitate publiko guztietan aplikagarria izanen bailitzateke, bai Unibertsitatearen beraren benetako kostuei buruzko informazio zehatzagoa lortu bitartean.

IV.4. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN KOSTU-SISTEMA

21^a. Gaur egun, NUPek, unibertsitate publiko askok bezala, ez dauka kontabilitate analitikoak egiteko sistemarik, eta, horrenbestez, ezin du jakin zein den bere irakaskuntza- eta ikerketa-jardueraren kostua, ez eta unibertsitate-hedapenerako jarduerarena ere. Ondorioz, ezin izan dira zentzuz eta koherentziaz zehaztu kostu-adierazleak eta haien bilakaera, Comptos Ganberak lan honen plangintzan hasieran aurreikusita izan arren; kostuok hauei zegozkien bereziki:

- Egungo titulazioei lotutako kostua
- Matrikulatutako ikasleko kostua
- Irakaskuntza-taldeko kostua
- Kostuak zer mailatan estaltzen diren berezko sarreraren bidez
- Zerbitzu osagarrien eta unibertsitate-hedapenerakoaren kostua
- Ikerketaren zeharkako kostuak
- Bolognara egokitutako titulazio berrien maparen gainean egindako kostuaren proiektzioak.

22. Unibertsitateak badaki beharrezkoa dela kontabilitate analitikorako sistema hori ezartzea, eta uste du Espainiako unibertsitate publiko guztiek komun dituztela egoera eta kezka horiek. Horretarako, eta Unibertsitate Lankidetzarako Bulegoaren bidez (OCU, unibertsitate-kudeaketarako tresnen enpresa hornitzailea), sistema informatiko komun bat prestatzen ari da instituzio guztietarako, aipatu kontabilitate hori ezarri ahal izateko, eta, horrenbestez, nork bere erabakiak har ditzan beharrezkoa den informazioa lortzeko, eta, gainerako unibertsitateekiko konparagarritasuna ahalbidetearren, hitzartutako adierazleak fida-

(9) Hala ere, eredu jakin batzuei dagokienez, bide hori kritikatu egin da, ahalmen ekonomiko hori aitortutako errentaren arabera baino ez delako neurtzen.

garritasunez lortzeko. Gaur egun, unibertsitate batzuk hasita daude sistema hori ezartzen.

Jakinaren gainean egonda azken urteetan Unibertsitatearen erabateko lehentasuna izan dela bere titulazioen mapa EEESra egokitzea, uste dugu komeni dela, mapa hori abiarazi ondoren, kudeaketa-ahaleginak aipatu ezarpen horretara bideratzea.

Gomendatzen dugu egutegi zehatz bat egitea kudeaketa-tresna hori ezartzeko, erabakiak hartzeko prozesuari funtsezko laguntza emateaz gain, guztiz erraztuko duelako kontuak emateak beharrezkoa duen gardentasuna. Ahaztu gabe kostuek eta adierazleek ezinbesteko elementua izan behar dutela Unibertsitatearen finantzaketa publikorako edozein sistemaren definizioa, jarraipena eta kontrola egiteko.

IV.5.AURREKONTU-, EKONOMIA- ETA FINANTZA-MAGNITUDEEN BILAKAERA (V. eranskina)

23. NUPen aurrekontu-likidazioa Hauek azpimarratzen ditugu:

- Unibertsitatearen onartutako gastuak hauek izan dira: 50,3 m.e. 2001ean, eta 90,2 m.e. 2008an. Termino arruntetan, %79 handitu dira; termino konstanteetan, berriz, %45.

2009ko behin-behineko likidazioaren arabera, gastuak 81,7 m.e. izan dira; hau da, aurreko urtean baino %9 gutxiago. Datu hori 2001ekoarekin alderatzen badugu, Unibertsitatearen gastuak %62 handitu dira; edo %31 termino konstanteetan.

Komeni da azpimarratzea 2008an Tuterako campuseko lanak amaitu zirela.

- NUPen 2001eko aurrekontuetan onartutako sarrerak 55,2 m.e. ziren, eta 2008an, 90,9 m.e.; hau da, %65 gehiago termino arruntetan, edo %34 gehiago konstanteetan.

Komeni da azpimarratzea onartutako 2008ko sarreren likidazioa geroago doitu egin zela, Nafarroako Gobernuaren 3,45 m.e.ren transferentziak gutxitu zirelako.

2001 eta 2009ko behin-behineko likidazioa alderatzen baditugu, ikusten dugu azken urte horretan sarrerak 79 m.e. direla; horregatik, 2001. urtearekiko hazkundera %43 edo %16 da, kontuan hartzen diren terminoen arabera: arruntak ala konstanteak.

24. Aurrekontu-gastuak:

- Gastu arruntak 42,4 m.e. izan ziren 2001ean, eta 70,5 m.e. 2008an; hau da, %66ko hazkundera

gertatu da termino arruntetan, eta %35ekoa termino konstanteetan.

- Kapital-gastuek bilakaera hau izan dute: 7,9 m.e. 2001ean, eta 19,7 m.e. 2008an; hau da, hazkundera %149koa izan da termino arruntetan, eta %102koa termino konstanteetan.

- Kapituluka, hazkunde handiena –zenbatekoa ere kontuan hartuta– langileenek –%78 termino arruntetan, edo %44 konstanteetan– eta inbertsiogastuek –%149 edo %102–izan dute.

- Unibertsitateak 2001-2008 aldian gastatutako 100 euroko, euro horiek hauek finantzatzeko erabili dira: 52 euro, langileak finantzatzeko; 28,5 euro, beste funtzionamendu-gastu batzuetarako; eta 19,5 euro, inbertsiok finantzatzeko.

25^a. Aurrekontu-sarrerak:

- Sarrera arruntak 52,3 m.e. izan ziren 2001ean, eta 80,9 m.e. 2008an; hau da, %55eko hazkundera gertatu da termino arruntetan, eta %25ekoa termino konstanteetan.

- Kapital-sarrek bilakaera hau izan dute: 2,9 m.e. 2001ean, eta 9,9 m.e. 2008an; hau da, hazkundera %245ekoa izan da termino arruntetan, eta %180koa termino konstanteetan.

- Kapituluka, hazkunde handiena –zenbatekoa ere kontuan hartuta– transferentzia arruntek –%57 termino arruntetan, edo %27 konstanteetan–, tasek eta beste sarrera batzuek –%45 edo %18– eta kapital-transferentziek –%245 edo %180–izan dute.

- Nafarroako Gobernuak emandako sarrerak. Ekarpen horiek Unibertsitatearen sarrera guztien ia %77 dira batez beste, eta unibertsitatearen finantza-mendekotasun handiaren adierazgarri dira.

- Unibertsitatean 2001-2008 aldian sartutako 100 euroko, euro horiek honela lortu dira: 75 euro, transferentzia arruntentz bidez; 16 euro, tasen eta beste sarrera batzuen bidez; 8 euro, kapital-transferentzien bidez; eta euro bat, bere ondarearen sarreren bidez.

26. Epe luzeko zorra. Unibertsitateak ez du kanpo-zorrik izan aztertutako ekitaldietan (2001-2008); berezko baliabideak eta transferentziak (Nafarroako Gobernuarenak, nagusiki) dira bere finantzaketa-bide bakarrak. Alde horretatik, Espainiako unibertsitate saneatuenetako bat da.

27. Diruzaintza eta diruzaintzako gerakina.

- Diruzaintzako saldoak 2005etik gutxituz joan dira, eta 2008an haren zenbatekoa 2001ekoaren ia maila berean zegoen –6 m.e. tik gertu–.

- Diruzaintzako gerakinaren bilakaerari dagokionez, zenbateko handiena 2007koa izan zen $-22,7$ m.e.–; hala ere, 2008an aurreko ekitaldian baino %16 txikiagoa izan da.

- Bere osaeraz den bezainbatean, atxikitakoaren zenbatekoa ia bikoiztu egin da aldian; atxiki gabekoak edo erabilera librekoak, berriz, balio egonkorragoak dauzka.

- Diruzaintzako gerakinaren erabilera. Gerakina, sarreretako beste kontusail bat balitz bezala⁽¹⁰⁾, aurrekontua finantzatzeko erabiltzen den neurrian, Unibertsitateak galdu egiten du pixkanaka bere maniobra-tarte finantzarioa edo likidezia, bai etorkizuneko kreditu-sarrerak finantzatzeko –nagusiki, ekipamendua erosteko erabiltzen dira–, bai beste finantza-egoera batzuei aurre egiteko; hurrengo taula esandakoaren adierazgarria da (zenbatekoak milioi eurotan):

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Gerakina guztira	13,98	15,13	18,87	12,59	12,85	15,49	22,67	19,14	14,28
Atxikitako gerakina	5,08	5,60	5,28	4,58	5,60	6,47	9,62	10,87	11,88
Atxiki gabeko gerakina	8,90	9,53	13,59	8,01	7,25	9,02	13,05	8,27	2,90
Hurrengo urteko aurrekontuaren finantzaketa	1,89	0,93	3,00	4,00	4,00	2,65	5,41	8,00	0,90
Aurrekontuak finantzatu ondorengo gerakina	7,01	8,60	10,59	4,01	3,25	6,37	7,64	0,27	2,00
Hurrengo urteko aurrekontuan sartzea aldaketen bidez	4,07	3,29	5,89	4,01	2,83	3,85	1,80	0,21	
Erabilera libreko gerakina	2,94	5,31	4,70	0,00	0,42	2,52	5,84	0,06	

Hau da, ekitaldietan, diruzaintzako gerakinaren zati bat hurrengo ekitaldiko aurrekontuko hasierako zifrak koadratzeko erabili da. Hori, batez ere 2003ko datuetatik ikusten da, eta garrantzi berezia dauka 2007ko eta 2008ko gerakinetan –2008ko eta 2009ko aurrekontuetan erabiliak–. Sobera geratzen den kopurua aurrekontu-aldaketen bidez jasotzen da, eta kopuru bat beste egoera batzuk finantzatzeko geratzen da. 2008an, ordea, soberako hori ia guztiz desagertu da, atxiki gabeko gerakina zuzenean jaso baita 2009ko aurrekontuan; egoera horrek, joera bihurtzen bada, Unibertsitateak finantza-maniobra eskas izatea ekar dezake.

Hala ere, NUPek hartutako kudeaketa-erabakiek ere eragina dute egoera horretan, handitu egiten baitute atxikitako diruzaintzako gerakina, eta,

beraz, mugatu atxiki gabekoaren sorrera; horren adierazgarri dira ikertzaileentzako diruzaintza-aurrerakinak –2008an, 4,6 milioi euro izan ziren– eta justifikatu gabe dauden zeharkako gastuen kontusailerako zuzkidura –0,5 milioi euro 2008an–.

28. Kobrantzen eta ordainketen epe ertainak (egunetan), 2005etik 2009ra arteko ekitaldietan. Unibertsitateak 2. kapituluari (“Ondasun arruntak eta zerbitzuak”) eta 6. kapituluari (“Inbertsioak”) lotutako gastuak ordaintzeko batez beste zenbat egun behar dituen kalkulatu da; kobrantzei dagokionez, 3. kapituluari (“Tasak eta beste sarrera batzuk”), 4. kapituluari (“Transferentzia arruntak”) eta 7. kapituluari (“Kapital-transferentziak”) lotutako egunak kalkulatu dira. Lortutako emaitzak taula honetan daude:

(10) Unibertsitatei buruzko 6/2001 Lege Organikoko 81.3 artikuluko g) idatz-zatiak dio unibertsitateen hasierako sarrera-aurrekontuak beharrezko diruzaintzako gerakinak izan ahal izanen dituela.

	2005	2006	2007	2008	2009
Ordainketen epea (egunetan)					
2. kapitulua	57	68	68	54	46
6. kapitulua	86	81	100	40	101
Kobrantzen epea (egunetan)					
3. kapitulua	29	37	45	38	36
4. kapitulua	20	23	47	37	32
7. kapitulua	66	237	364	365	207

2. kapitulari lotutako ordainketa egiteko batez besteko egunen kopurua 60 egunetik beherakoa da azken bi urteetan; inbertsioak ordaintzeko batez besteko egunen kopurua, ordea, aldagarriagoa da, nahiz eta, batez beste, horretarako hiru bat hilabete behar izan.

Kobratzeko batez besteko egunei dagokienez, 30 egun inguru behar dira 3. eta 4. kapituluei dagokienez. Hala ere, kapital-transferentzien kasuan, 200 egunetik gora behar dira; aipatu egun-kopuru hori hain handia izatea, nagusiki, Nafarroako Gobernuak bere kapital-transferentzien ordainketan erabiltzen duen sistemaren ondorioa da. Izan ere, egiaztagiri egokiak Unibertsitate

jaso eta izapidetu ondoren egiten ditu ordainketak; horren ondorioz, gutxienez 100 eguneko tartea izaten da –2008an, 300 egunetik gorakoa izan zen– Unibertsitateak esleipendunari egiten dion ordainketaren eta hark obren finantzaketarako jasotzeko itxaron behar duen denboraren artean. Inbertsio handiak –adibidez, Tuterako campusa– egin diren ekitaldietan, sistema horrek tentsioak eragin ditzake Unibertsitatearen diruzaintzan.

29. Nafarroako Gobernuak Unibertsitate Publikoaren finantzaketan eginiko finantza-ahalegina. Adierazle hauen bidez, Nafarroako Gobernuak Unibertsitate Publikoa finantzatzeko egiten duen “finantza-ahalegina” neurtzen da⁽¹¹⁾.

	2001	2005	2008
Finantza-ahalegina (1)	%0,36	%0,33	%0,36
Ikasleko finantza-ahalegina (eurotan)	4.535	6.334	8.312
Ekarpen arruntak (2)	%0,33	%0,31	%0,31
Ikasleko ekarpen arruntak (eurotan)	4.223	6.014	7.080

(1) Gobernuak NUPen egindako gastu guztia –4. eta 7. kapituluak–, Nafarroako BPGd-a erreferentziazat hartuta.

(2) Nafarroako Gobernuak NUPentzat egindako ekarpen arrunten bidezko gastu guztia, Nafarroako BPGd-a erreferentziazat hartuta.

Ikusten denez, Gobernuak NUP finantzatzeko egindako ahalegina, batez beste, Nafarroako BPGd-aren %0,35 da.

Ahalegin hori, matrikulatutako ikasle bakoitzeko ekarpenaren ikuspuntutik, 8.312 eurokoa izan zen 2008an; hau da, 2001ean baino %83 handiagoa.

Nafarroako Gobernuak egindako ekarpen

arruntei soilik erreparatzen badiegu, ikasle bakoitzak 7.080 euro jaso zituen guztira 2008an; hots, 2001ean baino %68 gehiago.

Aurreko datuak NUPek matrikulatutako ikasle bakoitzeko egiten duen gastu osoarekin –haren aurrekontuen arabera– erlazionatzen baditugu, gastu horren finantzaketa-iturriak lortuko ditugu:

(11) NUPen 2008ko sarreraren likidaziotik 3,45 milioi euro kendu dira, Nafarroako Gobernuaren transferentzia arrunten murrizketagatik; murrizketa hori Lanbide Heziketa eta Unibertsitateetako zuzendari nagusiaren ebazpen bidez gauzatu zen, eta 2009ko martxoan jakinarazi.

	2001	2005	2008
Ikasleko gastu guztia, NUPen aurrekontuaren arabera (eurotan)	5.452	8.354	11.170
Nafarroako Gobernuaren ikasleko finantza-ahalegina (eurotan)	4.535	6.334	8.312
NUPen berezko sarrerak	917	2.020	2.858

2001 eta 2008 artean, ikasleko gastu guztia 5.452 eurotik 11.170 eurora aldatu da; hau da, %100 baino gehiago handitu da. Gastu horren %75 inguru Nafarroako Gobernuaren ekarpenen bidez finantzatzen da, eta %25 inguru NUPen berezko sarreraren bidez –batez ere, matrikula- eskubideak eta ikerketari lotutako sarrerak–.

IV.6. IRAKASLEAK ETA IKERTZAILEAK (VI. eranskina)

30. Orokorrean, Espainiako unibertsitate publikoetako irakasleak eta ikertzaileak eta, partikulariki, NUPekoak sistema dual baten bidez daude araututa: irakaskidegoetako funtzionarioei estatuko arautegia aplikatzen zaie nagusiki; kontratatuei, berriz, foru-arautegia.

31. NUPeko irakasleen eta ikertzaileen plantilla antolatzeko irizpideak. NUPen irakaskuntza-jardura hasi zenetik, zenbait erabaki edo irizpide onartu dira irakasleen eta ikertzaileen plantilla-eredua zehazteko. Erabaki horien guztien bidez, honako hauek lortu nahi dira: irakasleen eta ikertzaileen plantillaren egitura estandarra eta benetakoa zehaztea –kopuruari dagokionez bezala kategoriei ere–; plantilla hori egonkortzea; doktore ez diren irakasleak prestatzeko neurriak; jarduerari eskainitako dedikazioa; irakaskuntza-ahalmena eta haren

murrizketa zenbait arrazoiren ondorioz; plaza berrien zuzkidura eta sustapena lortzeko arauak; eta Irakaskuntza Antolakuntzarako Plana (POD) prestatzeko lanak erraztea

Era berean, irakaskuntza-enkarguaren eta -ahalmenaren arteko oinarritzko oreka-printzipioa jasotzen dute. Arlo baten irakaskuntza-enkarguak hiru zikloetako titulazio ofizialen irakaskuntza hartzen du barruan, haiek indarreko araudiaren arabera kontabilizatuta egonik. Irakasleen irakaskuntza-ahalmena estatutuetoako arauetan eta indarreko legedian adierazitakoa da, ikerketagatik, karguengatik eta erabakitako kudeaketa-zereginengatik izan daitezkeen murrizketak kontuan hartuta. Hortaz, egungo testuinguru arau-emailean, irakaskuntza-jardura handitzen bada, irakaskuntza-ahalmena areagotu beharko da; hau da, irakasle gehiago, eta alderantziz. Araua hau da: ezagutza-esparru osoko murriztutako irakaskuntza-dedikazioaren koefizienteak %80 eta %90 artekoa izan behar du (2008an)⁽¹²⁾, noizean behingo bajei eta antzekoei aurre egiteko. Printzipio horrek erabakitzen ditu irakaskuntza-behar berriak edo haien murrizketa.

32. Plantilla estandarren egituraren bilakaera, onartutako irizpideak kontuan hartuta, taula honetan agertzen da:

(12) 2008ra arte, ehuneko hori %85etik %95era bitartekoa zen.

	1996	2001	2002	2006	2008
Unib. katedradunak				%14	
Unib. titularrak					
UEko katedradunak eta titularrak				%42	
Irakasle eta ikertzaile funtzionarioak guztira	%60-%70	%60-%70	%51-%60	%56	+ %50
Elkartuak	%15-%20	%15-%20	%5-%15	%9	
Beste batzuk					
Kontratatutako irak. zuz.			%10-%20	%9	
Irakasle lagun. zuz.					
Laguntzaileak	%15	%15	%15-%25	%26	
Bisitariak	%5	%5			
Kontratatutako irakasleak eta ikertzaileak guztira	%40-%30	%40-%30	%49-40	%44	- %50

Gainera, beste baldintza bat ezarri zen 2008an: ezagutza-esparru bakoitzean, doktore diren irakasle eta ikertzaileek %70 izan behar dute.

Ikusten denez, plantillaren egitura-eskakizunak samurtuz joan dira denbora igaro ahala, irakasle eta ikertzaile funtzionarioen pisua 1996ko %60-%70etik 2008ko %50 baino gehiagora jaitsi delako.

2008ko benetako egoerari dagokionez, eta kontuan hartuta Unibertsitateen Lege Organikoak (LOU) eta Plantilla Irizpideek berek gai honetan jasotako eskakizunak, honako hauek ikusten dira:

- LOUk dio kontratatutako irakasleak eta ikertzaileak, denbora osoko baliokidetasunetan ulertuta, ezin direla izan irakasle eta ikertzaile guztien %49 baino gehiago. 2008an, NUPeko kontratatutako irakasleak eta ikertzaileak (DOB) %51 ziren.

- Aipatutako LOU horrek, halaber, esaten du aldi baterako lan-kontratua duten irakasleak eta ikertzaileak ezin direla izan irakasle guztien %40 baino gehiago. 2008an, plantillaren %54k aldi baterako kontratua dauka.

- Plantillaren antolaketarako irizpideei dagokionez, irakasle eta ikertzaile funtzionarioek %50 baino gehiago izan behar dute. 2008ko datuen arabera, irakasle eta ikertzaile funtzionarioak %41 dira.

- Antolakuntza-irizpideen aldetik, doktore diren irakasle eta ikertzaileek %70 baino gehiago izan

behar dute ezagutza-esparru bakoitzean. 2008ari dagokionez, doktoreen ehuneko osoa %45 ingurukoa da.

Hortaz, NUPi oraindik asko falta zaio LOUren eskakizunak betetzeko, eta bere plantilla-irizpideetan jasotako helburuak lortzeko.

33. Irakasleen eta ikertzaileen dedikazioa. Unibertsitateko irakasleen dedikazio-erregimena apirilaren 30eko 898/1985 Errege Dekretuan dago araututa. Eta hala, denbora osoko unibertsitate-irakasle baten asteko dedikazioa 37,5 ordukoa da, eta urteko lanaldia 1.647 ordukoa.

Lanaldi horren barruan, irakasleek eta ikertzaileek esparru hauetan dihardute:

- Irakaskuntzan
- Ikerketan eta ezagutzaren transferentzian
- Unibertsitatearen kudeaketan

Irakasleek hiru jarduera horietako bakoitzean benetan duten dedikazioari dagokionez, ez dago hura kuantifikatzen duen edo balio adierazgarriak lortzen dituen inolako azterketarik.

Irakasle-mota bakoitzak irakaskuntzan emandako orduak (kredituek) osatzen dute irakaskuntza-karga. Hala ere, baldintza edo egoera jakin eta berezi batzuetan, baliteke irakasle bakoitzari esleitutako irakaskuntza-karga murriztea. Eta hala, oro har, asteko irakaskuntza-karga teorikoa hemen jasotzen da:

Irakasleak eta ikertzaileak	Asteko zuzeneko irakaskuntza-orduak	
		Kredituak
Unibertsitateko katedraduna	8	24
Unibertsitateko titularra	8	24
UEko katedraduna	8	24
UEko titularra	12	36
Doktore den kontratatutako irak.	8	24
Irak. elkartua	kontratua	
Irak. laguntzailea	kontratua	
Irak. bisitaria	kontratua	

Hortaz, zuzeneko irakaskuntza irakasleen eta ikertzaileen asteko dedikazioaren %25 inguru da (dedikazio osoa 37,5 ordukoa da).

Dedikazio-ordu horiek eskolak emateari dagoz-
kio; bai eskola teorikoak, bai praktikoak. Baina lan horretaz gain, irakaskuntzak hauetan ere dedikazioa izatea eskatzen du:

- Eskolen prestaketa; zaila da denbora hori kalkulatzea.
- Nahitaezko tutoretzak, gehi tutoretzen plana; gehienez ere asteko 6 ordu NUPen.
- Ebaluazioak eta azterketak: prestatzea, zuzentzea eta berrikustea.
- Irakaskuntzari lotutako administrazio-lanak; besteak beste: aktak idaztea, fitxak prestatzea, departamentuko bilerak...

Ez dago ikerketarik edo txostenik, jarduera horiek guztiek astean zenbat ordu eskatzen dituzten modu fidagarrian eta adostuan kuantifikatzen duenik.

Ondorioz, ez dakigu zein den irakasleek eta ikertzaileek Unibertsitatean egiten dituzten jardueretan daukaten benetako dedikazioa; bereziki, zuzeneko irakaskuntzaz kanpokoetan.

34. Irakasleen eta ikertzaileen irakaskuntza-karga teorikoaren murrizketak honako hauek justifikatzen dituzte nagusiki: ikerketan dedikazio berezia izateak; unibertsitateko karguak betetzeak; eta, hezkuntzan diharduten langile guztiekin gertatzen den bezala, irakasle eta ikertzaile funtzionarioek adin jakin bat betetzeak. Irakaskuntza-karga teorikoaren murrizketa guztiek benetako irakaskuntza-jarduera gutxitzea dakarte berekin, eta jaitsiera horri giza baliabide berriekekin erantzun beharko zaio ezinbestean, edo daudenen dedikazioan doiketak eginez.

Irakaskuntza-ahalmenaren murrizketaren bilakaera, 2005/06 ikasturtetik 2008/09 ikasturtera bitartean, irakasle eta ikertzaile iraunkorrei dagokionez, eta asteko ordu-kopuruan neurtuta –hau da, irakaskidegoetako irakasleak eta kontratatutako doktoreak–, hurrengo taulan agertzen da laburtuta:

Irakasle eta ikertzaile iraunkorrak	2005/2006 ikasturtea	2006/2007 ikasturtea	2007/2008 ikasturtea	2008/2009 ikasturtea	Aldaketa ehunekotan 2008/09an, 2005/06aren aldean
Irakasle eta ikertzaile iraunkorren kopurua	383	384	398	427	%11
Irakaskuntza-ahalten teorikoaren orduak (astean)	3.280	3.288	3.406	3.562	%9
Murriztutako ordu-kopurua (astean)	562,94	564,61	751,28	722,67	%28
Batez besteko murrizketa irakasleko	1,47	1,47	1,89	1,69	%15
Murrizketaren ehunekoa	%17	%17	%22	%20	%18

Azterketatik, hauek azpimarratzen ditugu:

- Astean murriztutako ordu guztien kopurua %28 handitzen da aldi horretan; 2005/06 ikasturtean 563 izan baitziren, eta 2008/09an, berriz, 723 ordu.

- Emendatze hori handiagoa da irakasle eta ikertzaile iraunkorren kopuruan –%11– eta asteko irakaskuntza-ahalmen teorikoan –%9– gertatutakoa baino.

- Irakasle bakoitzeko asteko batez besteko murrizketa %15 handitzen da; 1,47 ordutik 1,69 ordura. Balio handiena 2007/08 ikasturtekoa izan zen: 1,89 ordu.

- Murrizketaren ehuneko osoari dagokionez, lehenengo bi ikasturteetan berdina izan zen (ordu-

en %17); gero, 2007/08 ikasturtean nabarmen handitu zen; 2008/09an, berriz, handitze hori apalagoa izan zen. 2007/2008 ikasturteko handitze horren arrazoia izan zen ikasturte horretan hasi zela adinagatik murrizketa.

- Murrizketa-motaren arabera, kudeaketaren ondoriozkoa %45 izan zen; ikerketari lotutakoa, %32; eta adinagatik nahiz beste kausa batzuegatik gertatutakoa, %23.

- Irakasleen kategoriei dagokionez, haietako bakoitzean gertatutako asteko murrizketaren ehuneko adierazten da: Ikusten denez, katedradunek eta unibertsitateko titularrek batez bestekoa gainditzen dute; lehendabizikoek bereziki.

Irakasle eta ikertzaile iraunkorrak	2005/2006	2006/2007	2007/2008	2008/2009
Unibertsitateko katedraduna	%27	%27	%31	%29
Unibertsitateko titularra	%18	%17	%21	%23
Unibertsitateko titularra, 6 ordu	%0	%0	%3	%3
Unibertsitate Eskolako kated.	%12	%13	%25	%19
Unibertsitate Eskolako titularra	%15	%15	%24	%14
Unibertsitate Eskolako titularra, 6 ordu	%0	%0	%0	%0
Kontratututako doktorea	%6	%9	%9	%8
Guztira	%17	%17	%22	%20

Hitz batean, ondorio gisa esan dezakegu asteko irakaskuntza-lanaldia batez beste 8,3 ordukoa bada, irakasle eta ikertzaile iraunkorrek 1,7 orduko batez besteko murrizketa dutela.

Aurreko taulatik ondorioztatzen denaren arabera, irakaskuntza-murrizketen kopuru handiena dakitena ikasleei transmititzeko kalitate handiena duten eta kategoria handienekoak diren irakasleen artean gertatzen da; horregatik, nekez uler daiteke irakasle horiei beren irakaskuntza zuzena daukaten eskola-kargaren laurdena baino gehiago murriztea. Unibertsitateak beste motibazio-bide batzuk aurkitu behar ditu bere irakasle eta ikertzaileentzat, haien ondorioz zuzeneko irakaskuntza ezinbestean murriztu behar izan gabe.

2008/09 ikasturtean murriztutako ordu horien guztien ondorioz –722,67–, beharrezkoa litzateke 120 bat irakasle kontratatu izatea –sei irakaskuntza-orduri lotuta–, ahalmenaren murrizketa horri aurre egiteko. Abiapuntutzat hartuta 2008an irakasle elkartu baten batez besteko kostua 12.000 eurokoa zela, aurreko kontratazioak 1,4 m.e.ko gutxi gorabeherako guztizko kostua ekarriko luke berekin; hau da, irakasle eta ikertzaileen aurrekontu-gastu osoaren %5 inguru.

Honi dagokionez, NUPen egoera Espainiako gainerako unibertsitate publikoekin konparatzea zen Ganbera honen asmoa. Hala ere, unibertsitateetan ez dago homogeneotasunik irakaskuntza-ahalmena murrizteko eskubidea ematen duten kontzeptuen inguruan, eta ez dago informazio fidagarririk haietan guztira murriztutako orduen kopuruari buruz; horregatik, ezin izan dugu ondorio zentzuzkorik eta koherenterik atera.

35. Irakaskuntza Antolatzeko Plana (POD) da Unibertsitatearen eskaintza akademikoa garatzeko beharrezko irakaskuntza-bitartekoen arauketarako oinarritzeko tresna. Horretarako, departamentu eta ezagutza-esparru guztietan azterketa bat egiten da, jakiteko pertsonal akademikoaren egitura egoia den lortu nahi diren helburuen ikuspuntutik, langile haien kopuruari, kategoriari, dedikazioari eta kualifikazioari erreparatuta, eta honako hauek kontuan hartuta: programatutako irakasgaiak, haien kredituak, matrikulatutako ikasleen kopurua, irakaskuntza-taldeak egiteko irizpideak, izendatutako irakasleak eta emandako kredituak. Era berean, irakaskuntza-ahalmen teorikoa murrizteko aurreikuspenak jasotzen ditu, bai eta ikasturteko eskaintza akademikoari erantzuteko zer behar

berri dauden ere irakasleen plazetan; behar horiek kontratuak berritzea eta/edo plaza berriak sortzea izan daitezke.

Irakaskuntza Antolatzeko Plana programa informatikoan etengabe eguneratuta dagoen dokumentua da. Ikasturtean zehar, departamentuak aldaketa guztiak jakinarazi behar dizkio Irakasleen Errektoreordeari, aldaketok giza baliabideetan eragina badute. Iraupen luzekoak ez diren baja medikoak, ezohiko beste egoera batzuk eta funtzio publikoaren estatutuan jasotako baimenak departamentuko beste irakasleek hartzen dituzte beren gain, horrek berekin Irakaskuntza Antolatzeko Plana aldatzea ekarri gabe.

Gure ustez, baliteke Irakaskuntza Antolatzeko Planaren jarraipena eta kontrola egiteko NUPen erabilitako prozedurak berrikuspen sistematiko eta orokor bat behar izatea ikasturte bakoitzaren amaieran, benetan nola gauzatu den jakiteko, bai eta hasierako aurreikuspenekin alderaketa egitea ere. Ganbera honek aurreko fiskalizazio-txostenean adierazi bezala, uste dugu planifikatutako irakaskuntza-enkarguaren eta benetan gauzatutakoaren azterketa funtsezko informazioa dela NUPeko giza baliabideen plangintza egokia egiteko.

Unibertsitate honek 2009/2010 ikasturtean abiarazi zuen Irakaskuntza Antolatzeko Planaren jarraipen-prozesu hori.

Horregatik, uste dugu urtero, funtsean, honako hauek egiaztatu beharko lirakeela: Irakaskuntza Antolatzeko Planaren oinarrian dagoen informazioa; irakaskuntza-jarduerak –teorikoak eta praktikoak– benetan egiten diren; taldeak nola gauzaten diren; programatu eta iragarritako ordutegiak betetzen diren; irakaskuntza benetan zertzen den; eta tutoretzako orduak zorrotz betetzen diren. Kontrol-lan hori irakasleen eta ikertzaileen Ikuskaritza Unitatearen esku utz liteke; unitate hori berriki sortua du NUPek.

36. Irakaskidegoetako irakasleen eta ikertzaileen ordainsarien egitura eta kontzeptuak estatu osorako daude araututa, eta kontzeptu hauek dagozkie:

- Oinarrizko soldata
- Hirurtekoak
- Aparteko ordainsariak
- Lanpostu-mailako osagarria

- Osagarri espezifikoak (orokorra, kargu akademikoak betetzeagatik eta irakaskuntza-merituengatik)

- Produktibitateari edo ikerketa-jarduerari lotutako osagarria

- Tarte autonomikoa

Tarte autonomikoa izan ezik, gainerako ordainsari-kontzeptuak eta haien zenbatekoa berdinak dira Espainiako unibertsitate guztietan.

Irakaskuntza-merituei edo “bosturtekoei” lotutako osagarria eta ikerketa-jarduerari edo “seiurtekoei” lotutakoa ebaluazio-prozesu bat gainditu ondoren lortzen dira; prozesu hori barne-prozesua edo unibertsitatearena berarena izaten da⁽¹³⁾ lehen kasuan, eta kanpo-prozesua –CNEAren bidez– bigarrean.

37. Ordainsarien tarte autonomikoa. Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak dio banakoen merituei lotutako irakasle eta ikertzaile funtzionarioentzako ordainsarizko osagarri bidezko ordainsari gehigarriak autonomia-erkidegoen eskumena direla; hala, Nafarroan, apirilaren 20ko 37/2009 Foru Dekretuaren bidez onartzen dira, hartan jasotzen baita Nafarroako Unibertsitate Publikoan denbora osoko dedikazioa duten irakasle eta ikertzaile funtzionarioei irakaskuntza-, ikerketa- eta kudeaketa-arloko banakoen merituengatik ordainsarizko osagarriak esleitzeko araubidea.

Osagarri horiek pertsonalak, banakakoak, metagarriak eta bateragarriak dira, kasuan kasuko merituen ebaluazio positiboa egin ondoren. Denbora osoan diharduten irakaskidegoetako irakasleei eta ikertzaileei baino ezinen zaizkie esleitu.

Gizarte Kontseiluari dagokio, NUPeko Gobernu Kontseiluak proposatuta, osagarri horiek esleitzea; hauek dira osagarri-motak:

- Irakaskuntzakoak, banakoen merituengatik, irakaskuntza-jardueraren ebaluazioaren arabera (bosturtekoak).

- Ikerketakoak, banakoen merituengatik, ikerketa-jardueraren ebaluazioaren arabera (seiurtekoak).

- Kudeaketa instituzionalari lotutakoak, banakoen merituengatik, NUPeko kudeaketa-arduren ebaluazioaren arabera.

(13) NUPen, aplikatutako prozedura ANECAk egiaztatu du; era berean, haren ezarpena eta jarraipen-txostenak ebaluatu ditu.

Aurrekotik ondorioztatzen denez, osagarri horiek estatuko ordainsari-egituran jadanik jasota dauden kontzeptuak ordaintzen dituzte.

Esleitutako tarte bakoitzeko, ordainsaria hileko 115,62 eurokoa da, eta hilabeteak hamabi dira.

Gainerako unibertsitateekiko konparaketari dagokionez, komeni da zehaztea ia-ia guztiek daukatela araututa osagarri autonomiko hori. Ordaintzen duten kontzeptua, zenbatekoa eta esleipenerako baldintzak alderatzen badira, ikusten da heterogeneotasun handia dagoela beti bezala, eta, horrenbestez, ezinezkoa dela ondorio fidagarriak eta koherenteak ateratzea. Hala ere, esan dezakegu gehienek Nafarroako kontzeptu berak ordaintzen dituztela tarte autonomikoan: irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa. Askotarikoak dira tarteen zenbatekoak, bai osagarriko zenbatekoari dagokionez, bai osagarri dagokienez. Onuradunei bagagozkie, irakaskidegoetako irakasleei eta ikertzaileei aplikatzen zaizkie oro har, baina unibertsitate jakin batzuetan laneko pertsonal iraunkorrari, laguntzaileei eta are denbora partzialeko pertsonalari ere helarazten zaizkie.

38. Kontratututako irakasleen eta ikertzaileen ordainsari-egitura, estatuko araudiko alderdi batzuez gain, foru-arautegiak zehazten du funtsean –kasuan kasuko foru-dekretuen bidez–, eta haien zenbateko osoa soldata-aula egokietan finkatzen du; era berean, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle eta ikertzaile kontratatuen Lehen Hitzarmen Kolektiboak ere zehazten du (hitzarmen hori 2008ko maiatzean onartu zen, eta lau urteko indarra du).

Kontratututako pertsonal horri oinarrizko ordainsariengatik eta osagarrikoengatik ordainduko zaio. Oinarrizko ordainsariak hauek izanen dira: soldata, antzinatasuna eta aparteko ordainsariak –urteko bi, osoak–. Antzinatasuna doktore diren irakasle kontratatu bakoitzari ez zaie aplikatuko.

Kargu akademikoengatik jaso ditzakete osagarriak, eta doktore diren irakasle kontratatuak osagarri pertsonalak ere jaso ahal izanen dituzte, banakako irakaskuntza-, kudeaketa- eta ikerketamerituengatik, betiere azken horretaz kanpo-ebaluazioa egin bada; era berean, doktore den irakasle laguntzaileak osagarri pertsonalak jaso ditzake irakaskuntzako banakako merituengatik. Kasu batean zein bestean, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuaren baimena. Gaur egun, NUPen ez dago aurreko osagarriak jasotzen dituen kontratatutako irakaslerik.

39. Irakasleen eta ikertzaileen batez besteko kostu osoa eta orduko batez besteko kostua (2008). Unibertsitateak emandako informazioaren

arabera, irakasleen eta ikertzaileen ordainsariak –elkartuak alde batera utzita– 1etik 3,75erako tartean daude, eta ordainsari handienak katedradunenak dira (73.107,8 euro), eta txikiak laguntzaileenak (19.569,5 euro); batez besteko kostu osoa –gizarte-segurantzaren barne–, 1etik 3erako tartean dago.

Katedradunaren orduko batez besteko kostua 44,4 eurokoa da; laguntzailearena, berriz, 15,8.

Komeni da nabarmentzea irakaskidegoetako irakasleak estatuko funtzionarioen mutualitateetako kide direla; horregatik, ez dute gizarte-segurantzako kostu patronalik.

Bestalde, ordainsari horietan ez dira sartzen ikerketagatik jasotako zerbitzu-sariak, ez eta Fundazioan emandako irakaskuntza ere. Azken horri dagokionez, 2008/2009 ikasturtean, guztizko gordina 86.000 eurokoa izan zen Unibertsitateko 42 irakaslerentzat.

40. Irakasleen eta ikertzaileen kudeaketaren beste zenbait alderdiren artean, hauek ere dira azpimarratzekoak:

A. Irakasleen eta ikertzaileen presentzia fisikoaren kontrola. NUPen ez dago inolako egiaztapen-mekanismoak, sistematikoki bermatzen duenik irakasleek bete egiten dituztela eman behar dituzten eskolei eta derrigorrezko tutoretza-orduetan izan behar duten presentziari dagokienez dauzkaten betebeharrak.

Aurreko ondorio hori gehiago doitu behar da gaur egun, batez ere irakasleen ebaluazio-prozesuagatik –zeinean presentzia fisikoa gehien balioetsitako alderdietako bat baita–, eta irakasleen nahiz ikertzaileen Ikuskaritza Unitatearen sorreragatik.

Unitate hori 2009ko azaroan onartu zuten, zuzenean dago errektorearen mende, eta NUPek eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea etengabe hobetzeko sortu zen. Haren garapenarekin batera, irakaskuntza-jardueraren barne-ebaluazioaren prozesua osatzen da, Unitateak, besteak beste, informazio objektiboa eman behar duelako jakiteko zein den irakasleen jokabidea, eta nola betetzen dituzten beren betebeharrak.

2010. urtearen hasieran, errektoreak pertsona bat izendatu zuen unitatearen arduradun.

B. Irakasleen eta ikertzaileen absentismoa. Irakasleen eta ikertzaileen absentismoa hauengatik gertatzen da:

- Baja medikoagatik (gaixotasuna eta lan-istripua)

- Auzitegietara eta batzordeetara joan behar izateagatik, edo probak eta azterketak egiteagatik.

- Funtzio publikoaren Estatutuan halakotzat onartutako beste arrazoi batzuegatik.

NUPen aplikagarria den printzipio moduan, absentismoak inoiz ere ez dakar berekin aurreikusitako irakaskuntza ez gauzatzea. Praktikan, iraupen luzeko bajetan izan ezik, absentismo-orduak kasuan kasuko departamentukoek betetzen dituzte.

Irakasleek eta ikertzaileek 2008an izandako absentismoaz dagoen informazioa dela eta, beharrezkoa da alde zuzenetik honako hauek zehaztea:

- Nominan eragina duen absentismoari buruzko informazioa baino ez dauka.

- Irakasle eta ikertzaile funtzionarioen kasuan, gainera, eragin hori gaixotasunagatikko bajaren 91. egunetik aurrera baino ez da zertzen; 2009ko ekainetik, ordea, lehen egunetik erregistratzen da, nominan daukan eragina gorabehera.

- Absentismoaren arrazoiak mugatzen dira: lan-istripuak, gaixotasunagatikko behin-behineko ezgaitasunak eta amatasun-/aitatasun-baimenak.

Igorritako informaziotik, hauek azpimarratzen ditugu:

- 2008an, irakasleen eta ikertzaileen artean, guztira, 93 baja izan dituzte kontrolatutako arrazoi-etak edozeinengatik; horren ondorioz, 3.386 lantzaio edo egun galdu dira, eta enplegatu horietako bakoitzak 36 lanegun galdu ditu batez beste. Baja izan duten pertsonen kopuru hori 2008ko irakasle eta ikertzaile guztien %11 izan da.

- Baja hartzeko arrazoiari dagokionez, gaixotasunagatikko behin-behineko ezgaitasuna da zabalduena, bai pertsonen kopuruan –%72–, bai galdutako egunetan –%55–.

- Galdutako egunak 3.386 eta laneguna 7,5 ordukoa izanik, horrek esan nahi du 25.000 ordu inguru galdu zirela guztira absentismoagatik. Era berean, urteko lanaldi osoa 1.647 ordukoa bada, irakasle berriak kontratatu behar izanez gero, urteko, guztira, 15 pertsona kontratatu beharko lirateke.

NUPen lan egiten duten guztientzat –bai irakasle eta ikertzaileentzat, bai administrazio eta zerbitzu-erakundeentzat– absentismoari buruzko sistema orokor bat zehaztea gomendatzen dugu, eta argi adieraztea zein diren haren arrazoiak, bai eta, hala egokituz gero, zer eragin duen ere.

41. Unibertsitateko irakasleei eta ikertzaileei buruzko adierazleen bilakaera. Irakasleei eta ikertzaileei buruzko adierazleen bilakaerari dagokionez, eta aztertutako aldirian beste bost titulazio eskaini direla kontuan hartuta, honako hauek azpimarratzen ditugu:

- 2001 eta 2008 artean, Unibertsitateko irakasleen eta ikertzaileen kopurua %26 handitu da; hau da, 189 pertsona garbi gehiago. Horrenbestez, 911 irakasle zeuden guztira 2008an. Irakaskidegoen presentziak, ehunekotan, behera egin du, %48tik %41era; horren ordez, kontratatutako ehunekoa handitu egin da –%52tik %59ra–. 2001etik izandako bilakaera urtez urte aztertuta, 2005. urtean izan ezik, urte horretan ez baitago aldaketarik, gainerako urteetan gora egiten du irakasleen eta ikertzaileen kopuruak, eta bereziki azpimarragarria da 2007tik 2008ra gertatutako aldaketa, kopurua %6 handitu baitzen; hau da, 53 irakasle eta ikertzaile gehiago.

- Irakaskidegoetako irakasle bakoitzeko, kontratatutako 1,5 irakasle zeuden 2008an; 2001ean, berriz, 1 eta 1,1 artekoa zen proportzio hori.

- Irakaskidegoak %9 handitzen dira, 30 pertsona garbi; horiei unibertsitateko 66 kide gehiago dagozkie (katedradunen eta titularren artean), eta unibertsitate-eskolako 36 kide gutxiago (katedradunen eta titularren artean). Hazkunde handiena unibertsitateko titularrena da: 52 pertsona gehiago.

- Kontratatutako irakasleen kopurua %42 handitzen da: 159 pertsona garbi. Hazkunde handienak hauek dira: elkartuak (130 pertsona), doktore diren irakasle laguntzaileak (38) eta kontratatutako doktoreak (48). Laguntzaileen artean, jaitsiera gertatzen da: 70 pertsona.

- Denbora osoko (DO) IIL (irakasleak eta ikertzaileak) baliokidean (E) (IIL-DOB) 130 pertsonako hazkunde gertatu da 2001 eta 2008 artean –hau da, %20–; 2008an 767 IIL-DOB zeuden.

- Matrikulatutako ikasleen eta IIL-DOBen arteko ratioaren balioa pixkanaka jaitsiz joan da 2001etik 2008ra bitartean, eta 14,48 baliotik 10,52ra aldatu da. Hau da, ikasleen kopurua jaitsi egin da, eta irakasleena eta ikertzaileena handitu, eta, beraz, ratioaren balioak behera egin du. Jaiste horrek esan nahi du irakasleei eta ikertzaileei ikasle-kopuru txikiagoa dagokiela, eta horrek, hasiera batean, irakaskuntzaren kalitateak hobera egin duela adieraz lezake.

- Irakasleen eta ikertzaileen aurrekontu-gastua %62 handitu da aldirian, irakasleen eta ikertzaileen kopurua baino gehiago, %26 handitu baita; per

capita gastuak %28 egin du gora. 2008an, guztizko gastu hori 28,5 m.e.koa da, eta per capita gastua 31.276 eurokoa. Era berean, azpimarratzekoa da 2008. urte horretan, 2007. urtearen aldean, gora egin zutela guztizko gastuak -3,3 m.e.-, kopuruak -53- eta per capita kostuak -2.000 euro-; 2008ko zenbatekoaren hazkunde hori hauengatik gertatu zen neurri batean: aurreko urtearekiko KPIaren desbideratzearen ordainketagatik (%2,2), eta aparteko ordainsariei, estatuko araudiaren arabera zehaztuta, dagokien zenbateko berriagatik.

- 2008an, irakasle-kopuru handiena duten departamentuak (22) Ingeniaritza Elektrikoa eta Elektronikoa (88), Enpresen Kudeaketa (84) eta Ingeniaritza Mekanikoa -69- dira; txikiena dutenak, Elikagaien Teknologia (13), Geografia eta Historia (15) eta Kimika Aplikatua (18) dira. Kontratatutako irakasleen kopuru handiena (betiere 50etik gora), Ingeniaritza Elektriko eta Elektronikoak, Ingeniaritza Mekanikoak eta Enpresen Kudeaketak dute; txikiena (5 baino gutxiago), berriz, Elikagaien Teknologia, Kimika Aplikatuak eta Geografia eta Historiak.

- Irakaskidegoetako eta kontratatutako irakasleen eta ikertzaileen egitura aztertzen badugu, ikusten dugu irakasle eta ikertzaile funtzionarioak %50 baino gutxiago direla 15 departamentutan.

- Soil-soilik irakaskidegoetako irakasleen eta ikertzaileen %3k dauka dedikazio partziala. Osasunaren Zientziak departamentuan da handiena horrelako irakasleen kopurua.

- Irakasle eta ikertzaile guztiak kontuan hartuta, doktoreak %58 inguru dira; 2008ko plantilla-irizpideen arabera, adierazle horretan %70era iristea da Helburua.

- 2001 eta 2008 artean, aitortutako seiurtekoen kopurua ia bikoiztu egin da -270etik 500era-; NUPen ikerketaren alde egin izanaren adierazgarria da aurreko hori. Jakina, horrek langile-gastua handiagoa izatea eta irakaskuntza-karga areago murriztea dakar.

- NUPeko irakasle elkartuen kopurua %49 handitu da 2001 eta 2008 artean, eta azken urte horretan ia 400 ere izan ziren. Dedikazioari bagazkio, bost ordukoen kopurua handitu da gehien -%200-, eta hiru ordukoena -%186-. Denbora osokoena baino ez da murrizten; kategoria hori desagertzeko bidean dago. Elkartuen %57k, 2008an, 6 orduz dihardu.

- Iraunkorrak izatea lortu duten eta alde zuzenetik NUPekin kontratu bidezko lotura zuten irakasleen kopuruari dagokionez, 68 irakasle berritik 65ek

lotura zuten aurretik Unibertsitatearekin; hau da, hiru urteetan %95,6ko batez bestekoa.

- 2008 eta 2010 artean, guztira 62 irakasle eta ikertzaile kreditatu dira. Kreditatze-sistema nazionala borondatezko prozesu bat da, apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak ezarria (lege organiko horrek 6/2001 Lege Organikoa aldatu zuen, abenduaren 21ekoa, Unibertsitateei buruzkoa), eta alde zuzenetik irakasleekin ezinbesteko baldintza da irakaskidegoetan sartzeko. Kreditazioa lortu ondoren -ANECAK ebaluatu eta emana-, hautagaia Espainiako unibertsitateek irakaskidegoetako postuak betetzeko egiten dituzten deialdietara aurkez daitezke. ANECAK ez ditu argitaratzen kreditazio negatiboak.

IV.7. ADMINISTRAZIOKO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK (VII. eranskina)

42. Unibertsitate Publikoaren hasieran, estatuko araudiak zehazten zuen administrazioko eta zerbitzuetako langileei aplikatu beharreko erregimen juridikoa, Unibertsitatearen Erreformari buruzko 11/1983 Lege Organikoan adierazitakoaren arabera.

Geroago, unibertsitateei buruzko 6/2001 Legeak aurreko egoera aldatu zuen. Eta hala, lege horrek dio administrazioko eta zerbitzuetako langileen erregimen juridikoa, legean bertan adierazitakoaren bidez ez ezik, funtzionarioen legedi orokorraren bidez ere arautuko dela, bai eta azken legedi hori garatzeko autonomia-erkidegoek eta Unibertsitateko Estatutuek xedatutakoaren bidez ere.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren estatutu berriak onartu zituen 110/2003 Foru Dekretuak berriaz eta aginduzko eran dio Foru Komunitateko funtzio publikoari buruzko legediak arautuko dituela administrazioko eta zerbitzuetako langileak, inola ere baztertu gabe Unibertsitatearen esparruan ezartzen diren berezitasunak.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen abenduaren 28ko 1601/2006 ebazpenaren bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Administrazioako eta Zerbitzuetako Langileei aplikagarria den Erregimen Juridikoa Egokitzeko Akordioa onartzen da. Akordio horretan, eta estatutuetan adierazitako aginduari erantzuteko, administrazioko eta zerbitzuetako langileen zuzenbide- eta ordainsari-erregimena foru-araudira egokitzeko prozesua hasten da, eta Unibertsitateko Gerentziari ahalmena ematen zaio prozesu hura, sindikatuarekin beharrezko negoziazioa egin ondoren, buruzko eta aplikatzeko nahitaezko tresna

arau-emailearen onarpena proposa dezan urtebeteko epean.

2009ko urrian, Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak erabakita, behin betiko onartu zen Nafarroako Unibertsitate Publikoko administrazioko eta zerbitzuetako langileen plantilla organikoa, bai eta haiei plantillan dagozkien lanpostuen esleipena ere.

43. Plantilla organiko horren eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen lanpostuen zerrendaren azterketa egin ondoren, hauek azpimarratzen ditugu:

- Guztira, 504 postu dira; horietatik, hiru zuzendaritzako karguenak dira, eta 15 behin-behinekotak.

- A eta B mailak esleitzen zaizkien lanpostuak guztien %30 inguru dira.

- Esleitutako ordainsari-osagarriak foru-araudian jasotakoen barruan daude: 36 lanpostuk esklusibotasun-osagarria dute esleituta; 106k, bateraezintasun-osagarria; eta 123k, azkenik, zuzendaritzako postuena.

- Lanaldi-motaren arabera, postuen %58k goizean lan egiten du; gainerakoek, lanaldi zatikatua dute, edo txandakakoa, edo arratsaldean dihardute.

- Plantillako plazen %28 bete gabe dago. Ehunetokan, bete gabeko plazen kopuru handiena A eta B mailetan dago.

- 2008. urtearen amaieran, behin-behinean, guztira, 62 plaza beteta zeudela kalkulatu da; horregatik, betetako postu guztiak kontuan hartuta, behin-behinekotasunaren indizea %15 inguru da.

44. Administrazioiko eta zerbitzuetako langileen batez besteko kostu osoa eta orduko batez besteko kostua. 2008ko ekitaldiari dagokionez: Administrazioiko eta zerbitzuetako langileen ordainsariak 1etik 3,5erako tartean daude, eta ordainsari handiena zerbitzu-zuzendariarena da (57.569,3 euro), eta txikiena ordenantzarena (16.883,3 euro); batez

besteko kostu osoa –gizarte-segurantza barne–, 1etik 3erako tartean dago.

A mailan, orduko batez besteko kostua atalburuaren 38,6 euroen eta zerbitzu-zuzendariaren 41,7 euroen artean dago; B mailan, gestorearen 26,3 euroen eta atalburuaren 34,0 euroen artean; C eta D mailetan, administrari laguntzailearen 16,2 euroen eta ofizial tekniko informatikoaren 21,3 euroen artean; eta, azkenik, E mailan, kostu hori ordenantzarena da: 14,8 euro.

45. Administrazioiko eta zerbitzuetako langileen ordainsarien eta beste unibertsitate batzuetako langileen arteko konparaketa. Ondoriozta dezakegu NUPeko administrazioiko eta zerbitzuetako langileen ordainsari-kontzeptuak ez direla konparagarriak ez beren izaeran ez beren zenbatekoan aztertutako gainerako unibertsitateekin, eta azken horien artean ere gauza bera gertatzen dela.

Konparagarritasun falta horren arrazoia hau da: Nafarroako Administrazio Publikoetan aplikagarria den ordainsari-erregimena –Unibertsitate Publiko administrazioiko eta zerbitzuetako langileekin erabiltzen dena– ez dator bat Espainiako gainerako unibertsitate publikoen erregimenarekin, estatu-ko ordainsari-erregimenaren eskemari jarraitzen baitiote nagusiki.

46. Lanaldia eta oporrak. Unibertsitateak, bere Gobernu Kontseiluaren akordio bidez, administrazioiko eta zerbitzuetako langileen lan-baldintzak arautzen ditu espezifikoki. Administrazioiko eta zerbitzuetako langileen egoera Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari (NFA) aplikagarriak zaizkion baldintza orokorrekin konparatu da, eta alderdi hauek nabarmentzen dira:

a. Jai diren lanegunak. Unibertsitatean, eta 2008rako, administrazioiko eta zerbitzuetako langileek (AZL) gutxienez hiru opor-egun gehiago dituzte, gehi Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuko 7/2007 Legearen aplikaziotik ondorioztatutakoak:

Kontzeptua	Jai diren lanegunak	
	NFA	NUP
	27	24
	3	6
	0	1
	0	2
	4	4
	0	X
Guztira	34	37+X

(*) Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuko 7/2007 Legearen aplikazioan

20010ean, Unibertsitateak beste opor-egun bat onartu du, fakultateen edo zentroyen patroiyaren egunagatik.

b. Lanaldia. 2008an, bai NUPen bai NFAn, 7,25 orduko (edo 7 ordu eta 15 minutuko) eguneko

	NFA	NUP
Urteko lanaldia	1.787,75	1.729,50
Oporrak	-195,75	- 174,00
Orduak guztira urtean	1.592,00	1.555,50

2009an, NFAk 7,33 orduko (edo 7 ordu eta 20 minutuko) eguneko lanaldia ezarri zuen; NUPen, berriz, aurreko urtekoari eutsi zioten, hau da, 7,25 orduei, ez baitzuten kontuan hartu aurreko urtean, bisurtea izateagatik, bi lanegun gehiago egon zirela. Urte osoko lanaldiari dagokionez, 74,44 ordukoa izan zen NFaren lanaldiaren -1.591 ordu- eta NUPen lanaldiaren -1514,60 ordu- arteko aldea.

2010ean, NFAko orduen kalkulua 1.580 ordukoa da, eta NUPekoa 1.474 ordukoa; beraz, aldea 106 ordukoa da.

47^a. Administrazioiko eta zerbitzuetako langileen kudeaketaren beste zenbait alderdiren artean, hauek ere dira azpimarratzekoak:

A. Prestakuntza

- 2006 eta 2008 artean, administrazioiko eta zerbitzuetako langileen artean, pertsona bakoitzeko urteko batez besteko prestakuntza-orduak 37 izan ziren; hots, guztira, urteko 17.000 ordu.

- Mailak kontuan hartuta, nabarmentzekoa da asko gehitu zirela prestakuntza-orduak A eta B mailetan; izan ere, 2006 eta 2008 artean, %145 eta %113 gehitu ziren, hurrenez hurren. Era berean, maila horietako orduak prestakuntza-ordu guztien %21 ziren 2006an, baina, 2008an, %30 izan ziren.

- Gainerako mailetan, prestakuntza-orduen kopurua antzekoa izan da 2006 eta 2008 artean, E mailan izan ezik, prestakuntza-orduak %41 gutxitu baitira.

- Zerbitzuek zuzenean eskatutako prestakuntza nabarmen handitu da aldian -%193-; 2008an, guztizkoaren %10 izan zen. Kanpo-prestakuntza batez beste guztizkoaren %5 da.

B. Barne-sustapenerako politika. Administrazioiko eta zerbitzuetako langileen kudeaketari dagokionez, haien erregimen juridikoa foru-araudira ego-

lanaldia daukate araututa. Praktikan, NFAn 1.592 ordu egiten dira urtean; hala ere, NUPen, kopuru hori 1.555,50 ordukoa da; hau da, 36,50 ordu gutxiago, kontuan hartu gabe, hala egokituz gero, norberaren aferengatik hartzen diren hiru egunak, ez eta antzinasunari lotutako opor-egunak ere.

kiaraztea izan zen azken urteetan Unibertsitatearen politika orokorraren helburua. Hori lortu ondoren, zenbait kontu oraindik landu eta garatu gabe daude; besteak beste: plantillaren egitura, enplegu-eskaintza publikoa eta barne-sustapena eta sarrera-sistemak.

Barne-sustapenari dagokionez, aurreikusita dago mugikortasunari lotutako sustapena arautzea, mugikortasuna Unibertsitate barruko mailaz mailakoa izan, zein Unibertsitatearen eta Foru Komunitateko Administrazioaren arteko horizontala.

Gomendatzen dugu administrazioiko eta zerbitzuetako langileen erregimenaren egokitzapen-prozesua amaitzea aurreko alderdietan.

C. Administrazioiko eta zerbitzuetako langileek lanpostuan duten presentzia fisikoaren kontrolei dagokionez, 2010ean kontrol-sistema automatizatu bat ezartzea dago aurreikusita. Gaur egun, kontrol horiek zerbitzuen arduradunek egiten dituzte zuzenean, administrazioiko eta zerbitzuetako langileek esleitu zaien lanaldia betetzen dutela egiaztatu behar baitute; ez betez gero, ohartarazpenak edo kargu-hartzeak gertatzen dira, edo ez-betetzea opor-egunen bidez konpentsatu behar izatea, edo, hala egokituz gero, diziplina-espeditentea abiaraztea.

Gure gomendioa da presentzia fisikoaren kontrol-sistema esperimintatu ondoren behin betiko ezartzea, eta haren funtzionamendua behar adina erregulatzea.

D. Administrazioiko eta zerbitzuetako langileek duten eta Unibertsitateak kontrolatzen duen absentismoaren kausa nagusiak amatasun-/aitatasun-baimenak, gaixotasun arrunta eta lan-istripuak dira. 2008rako emandako informazioaren arabera, administrazioiko eta zerbitzuetako langileen absentismoa hurrengo taula honetakoa da:

Absentismoaren arrazoa	Kasuak	Galdutako lanaldia 2008
Amatasuna	20	2.382
Aitatasuna	4	52
Gaixotasun arrunta	253	5.393
Lan-istripuak	2	157
Guztira	279	7.984

Galdutako lanaldien datuak ordutan adierazten baditugu, orduak 56.000 inguru dira; horrenbestez, %8,24 da absentismoaren ehunekoa. Prestakuntza-ordua -16.819 ordu- absentismoaren barruan sartzen baditugu, %10,72 da haren ehunekoa.

NUPen lan egiten duten guztientzat -bai irakasle eta ikertzaileentzat, bai administrazio eta zerbitzuetako langileentzat- absentismoari buruzko sistema orokor bat zehaztea gomendatzen dugu, eta argi adieraztea zein diren haren arrazoiak, bai eta, hala egokituz gero, zer eragin dituen ere.

48. Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako langileei buruzko adierazle bilakaera. Administrazio eta zerbitzuetako langileei buruzko adierazle guztien bilakaerari dagokionez, alderdi hauek azpimarratzen ditugu:

- 2001etik 2008ra bitarteko aldian, administrazio eta zerbitzuetako langileen kopurua, lanpostuen zerrendaren arabera, 300dik 426ra aldatu da, hau da, %42 handitu da; langile horiek Unibertsitateko enplegatu guztien %31-32 inguru dira.

- Oro har, eta nahiko modu orokorrean aztertutako aldian, administrazio eta zerbitzuetako langileen %70 inguru C, D eta E mailetakoa da, eta gainerakoa, %30, A eta B maila dagokie; mailetan gertatutako aldaketari dagokionez, C maila handitu da gehien, atzetik B eta A mailak dituela.

- Administrazio eta zerbitzuetako langile gehienak Gerentziari atxikita daude -%77 inguru, hazkundera %33koa izanik-. Langileon bilakaera aztertuta, ikusten dugu igoera handiena, ehunekoan, Errektoretzan gertatzen dela, nagusiki Idazkari pertsonala atxikita daukalako, lehen Gerentzian agertu ondoren; era berean, azpimarratzekoa da Ikerketari esleitutako administrazio eta zerbitzuetako langileak hartzen ari diren pisua, bai berrantolaketa administratiboan ondorioz, bai behar berrien ondorioz.

- Urte bakoitzeko abenduaren 31n Unibertsitatean benetan diharduten administrazio eta zerbi-

tzuetako langileen kopurua %32 handitu da 2001 eta 2008 artean, eta 360 pertsona izatetik 475 pertsona izatera aldatu da. Hazkunde hori irakasleen eta ikertzaileen artean gertatutakoa -%26- baino handiagoa izan da.

- Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako langileen aurrekontu-gastua Unibertsitateko aurrekontu-gastu osoaren %19 inguru da batez beste, eta %68 handitu da aztertutako aldian zehar. 2008an, 16,44 milioi euro izan dira guztira. Batez besteko kostu unitarioa kostu osoa baino gutxiago handitzen da, 27.236 eurotik 34.620 euro-ra aldatu delako; hau da, %27 handitu da.

- Administrazio eta zerbitzuetako benetako langileen kopuruaren eta IIL-DOBi dagokionaren arteko erlazioa poliki-poliki jaitsi da aldian -1,8tik 1,6ra-; jaitsiera horren arrazoa da IIL-DOB administrazio eta zerbitzuetako langileak baino neurri txikiagoan handitu dela -%20 bata; %32 besteak-; oro har, esan dezakegu bi IIL-DOB daudela Unibertsitateak administrazioan eta zerbitzuetan enplegatzen duen langile bakoitzeko.

- Administrazio eta zerbitzuetako langile guztiekiko irakasleen eta ikertzaileen guztizko ratioa Espainiako unibertsitateetako batez bestekoarekin konparatzen badugu, NUPen balioak batez bestekoa baino zertxobait txikiagoak dira; adibidez, 2007an⁽¹⁴⁾, 1,7 eta 1,8 izan ziren, hurrenez hurren.

- Matrikulatutako ikasleen kopuru osoaren eta administrazio eta zerbitzuetako langileen kopuruaren arteko erlazioa nabarmen jaitsiz doa aldian zehar; adibidez, 2001ean, administrazio eta zerbitzuetako langile bat zegoen 25,6 ikasleko; 2008an, berriz, langile bat 17,0 ikasleko. Hitz batean, administrazio eta zerbitzuetako langileen kopurua handituz joan da -%32-; ez, ordea, ikasleen kopurua, beharantz egin baitu -%12-. Unibertsitate guztien ratio horren batez bestekoarekin alderatuta, NUPen balioa batez besteko hori baino txikiagoa da -2007an⁽¹⁵⁾, 18,3 eta 20 hurrenez hurren-.

(14) Unibertsitate guztientzat, datuak eskura egon diren azken urtea izan da.

(15) Idem 15 oharra.

IV.8. IKASLEAK, IRAKASGAIK ETA IKASLEKO AURREKONTU-GASTUA (VIII. eranskina)

49. Matrikulatutako ikasleak. 2001/02tik 2008/09ra bitarte izandako bilakaeran, %14 jaitsi zen 1. eta 2. zikloetan matrikulatutako ikasle guztien kopurua –8.548 ikasletik 7.348 ikaslara–; ikasle berrien kopurua, berriz, %6 handitu da –1.733tik 1.844ra–.

NUPko ikasleen kopuru osoa (3. zikloa ere kontuan hartuta) %12 gutxitu da. Hala ere, 2008/2009 ikasturtean igoera txiki bat gertatu da, %1eko, matrikulatutako ikasleen kopuru osoan.

50. Ikasleen jatorri geografikoari dagokionez, hauek azpimarra daitezke: nafar jatorriko ikasleen beharazko joera –%91tik %86ra–, Espainiako beste lekuetatik datozenen nolabaiteko egonkortasuna, eta atzeritarren kopuruak pixka bat gora egin izana, nahiz eta, guztira, azken horien kopurua garrantzi txikikoa izan.

51. Titulazioko eta irakaskuntza-adarreko, matrikulatutako eta sarrera berriko ikasleen bilakaeraz, hauek azpimarratzen ditugu:

- Adarrez adar, eta matrikulatutako eta sarrera berriko ikasleei dagokienez, beharazko joera ikusten da bai Irakaskuntza Teknikoetan, bai Gizarte Irakaskuntzetan, nahiz eta, azken horietan, igoeraxo bat gertatu azken ikasturtean. Osasun Zientzien adarrean, berriz, goranzko joera ikusten da, batez ere Tuterako campusean Fisioterapia ematen hasi direlako.

- Titulazioei dagokienez, matrikulatutako ikasleen kopurua ia ingeniari-tza guztietan jaisten da, telekomunikazio-tekniketan eta kudeaketako informatikan izan ezik. Jaitsiera goi-mailako ingeniari-tzetan da bereziki azpimarragarria, salbu eta industrialetan.

- Gizarte Zientzietako eta Zientzia Juridikoetako titulazioetan, ia guztietan jaisten da ikasleen kopurua, Irakasletzan eta EAZLn nahiz Zuzenbidean izan ezik. Azpimarragarria da Soziologian eta Ekonomian gertatutako jaitsiera.

- Osasun Zientzietako titulazioetan, ikasleen kopuruak gora egiten du, Tuteran Fisioterapia abiaraztearen ondorioz. Erizaintzak aldatu gabe jarraitzen du.

Titulazioen laburpen moduan hau esan daiteke: beharazko joera dago Nekazaritzako Ingeniaritzetan, Enpresa Zientzietako Diplomaturan, Gizarte Lanean, Telekomunikazioetan, Ekonomian eta Soziologian. Ikasleen kopuruak nabarmen samar egiten du gora Irakasletzako ikasketetan,

Telekomunikazio Tekniketan eta Kudeaketako Informatikan.

- 2001/2002 ikasturtean, ikasleen ia %50 diplomaturetan zegoen, eta antzeko kopurua zegoen lizentzietan; 2008/2009an, berriz, diplomaturetan ikasleen %60 zegoen.

- Azkenik, campusei erreparatzen badiegu, Tuterakoan igoera handia gertatu da –logikoa, sortu berria baita, eta ikasi beharrekoak bata bestearen ondoren ezartzen ari baitira–; Iruñekoan, berriz, aldiaren %16ko jaitsiera gertatu da.

52. Eskainitako plazak eta sarrera berriko matrikulatutakoak konparatzen baditugu, ikusten dugu guztiek gorantz egin dutela aldiaren zehar, baina biak erlazionatzen dituen ehunekoa jaitsiz joan da 2003tik. Hau da, plazen eskaintzaren eta eskariaren artean nolabaiteko desoreka dagoela ondoriozta liteke. Azterketa hori zentroz zentro egiten badugu, hauek ikusten ditugu:

- Txikia da matrikulazio-ehunekoa Nekazaritzako Ingeniarien Eskolako ikasketetan, urtez urteko jaitsiera ageriko eta esanguratsuen adierazgarri. Egoera hori bat dator lehen orokorrean aztertutako beharazko bilakaerarekin.

- Matrikulazio edo ehuneko handiena Osasun Ikasketetako Unibertsitate Eskolako eta Ekonomia Zientzietako Fakultateko ikasketetan. Urtero, oso joera egonkorra izan dute.

- Batez besteko bera Industria Ingeniaritzetako eta Giza eta Gizarte Zientzietako ikasketetan; hala ere, jaitsiera adierazgarria ikusten da urtero ingeniari-tzetan. Bitxia bada ere, aipatutako fakultateko eta eskola honetako ikasketen gehienak diplomaturak dira, eta Telekomunikazioen Ingeniaritzakoa da matrikulazio-indize txikienekoa.

- Matrikulazioen maila ertain-altuaren barruan, Zientzia Juridikoen Fakultatea egonen litzateke, eta Zuzenbideko Lizentziak zigortuko luke matrikulazio-ratioa Lan Harremanen Diplomaturaren aurrean.

53. Titulatuaren kopuruan eta uzteen kopuruan gertatutako bilakaeraren joera beharazkoa da, eta, ziur aski, ikasleen kopuru osoa jaisteari lotuta dago. Uzteei dagokienez, titulazio hauek nabarmen dira: Telekomunikazioetako Ingeniaritza, Industria Ingeniaritza, Ekonomia Zientzia eta Enpresa Zientzietako Diplomatura.

54. Titulazio bat lortzeko batez besteko aldiaren bilakaera eta aldi haren eta teorikoaren arteko konparaketa. Oro har, goranzko joera ikusten da 2, 4 eta 6 urteko karreretan titulazioa lortzeko erabilitako denboran; 3 eta 5 urteko karreretan, berriz,

joera beheranzkoa da. Ingeniaritzako titulazioak urruntzen dira gehien titulazioa lortzeko beharrezko denbora teorikotik; bai teknikoak –errealitatean, beharrezko denbora bi aldiz handiagoa izaten baita–, bai goi-mailakoak.

55. NUPeko ikasleen mugikortasunari eta unibertsitate horrek beste erakunde batzuetako ikasleak erakartzeko daukan ahalmenari dagokionez, hauek azpimarratzen ditugu:

- NUPek mugikortasun-programen barruan bidalitako ikasleei bagagozkie, goranzko joera ikusten da aztertutako aldirian, 2.000tik gora ikasleak egin baitituzte ikasketak beste unibertsitate batzuetan, bai Espainian, bai atzerrian. Erasmus programa nabarmentzen da bereziki: mugikortasun-programa osoaren %70 hartzen du, eta Europako unibertsitateak ditu jomuga. Titulazioen arabera, 2008-2009 ikasturtean, EAZL, Irakasletza eta Zuzenbidea nabarmentzen dira (%21, %18 eta %14 hurrenez hurren). NUPen, ikasleen mugikortasun-tasa Espainiako unibertsitateetan batez beste dutena baino nabarmen handiagoa da; 2,6 eta 1,8, hurrenez hurren.

- NUPek hartutako ikasleen kopuruari dagokionez, 2006/07 ikasturteetik beheranzko joera ikusten da programa guztietan. Ikasle horien artean ere Erasmus programa nabarmentzen da: hartutako ikasle guztien %64. Titulazioei bagagozkie, 2008/09 ikasturtean hauek hartu zuten ikasle

gehien: EAZLk, Zuzenbideak eta Irakasletzak (%19, %16 eta %11, hurrenez hurren).

56. Ikasleek titulazioetan hautemandako irakaskuntza-kalitatea. Ratio hau azken irakaskuntza-ikasturteko ikasleei egindako inkesta bidez lortzen da; 2006koa, 2004ko ikasturteko ikasleei egin zitzaion, eta 2008koa, 2006ko ikasturteko. Azterketa egin ondoren, hauek azpimarratzen ditugu:

- Ikasleek hautemandako kalitatea handitu egin da, batez bestekoa 4,76tik 5,44ra aldatu baita. Hortaz, batez bestekoa gutxiegitik nahikora igo da.

- Bi inkestetan, nahiko egonkor irauten du lortutako batez bestekoa gainditzen duten titulazioen kopuruak: titulazioen %50 inguruk gainditu egiten dute.

- Lortutako batez bestekoak gainditzen ez dituzten titulazioen barruan, Ingeniaritzako multzoa nabarmentzen da.

57. NUPeko langileen (irakasleen eta ikertzaileen –IIL– eta administrazioko zein zerbitzuetako langileen –AZL–) kopuruaren eta ikasle-kopuru osoaren arteko konparaketari dagokionez, ikusten da ikasleen joera beheranzkoa dela, eta NUPeko langileena goranzkoa. Joera horren ondorioz, ikasleen eta langileen –IILren (irakasleen eta ikertzaileen) eta AZLren (administrazioko zein zerbitzuetako langileen)– arteko ratioek behera egin dute.

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Ikasle/IIL-DOB ratioa	14,48	13,51	12,59	11,97	11,68	11,33	11,02	10,52
Ikasle/AZL ratioa	25,6	22,6	21,0	18,5	17,9	18,5	18,3	17,0

Hitz batean, 2001ean irakasle bat zegoen 14,5 ikasleko; 2008an, berriz, irakasle bat 10,5 ikasleko. AZLri dagokionez, 2001ean AZL bat zegoen 25,6 ikasleko, eta 2008an, 17 ikasleko.

58. Nafarroako unibertsitarioak eta non ikasten duten. Ondorio honetan, Nafarroan unibertsitatean

ikasten duten ikasle guztien kopuruari eta ikasten duten lekuari buruzko zenbait kontu biltzen dira.

- NUPen (1. eta 2. zikloetan) matrikulatutako ikasle nafarren eta Nafarroako 18 eta 24 urte bitarteko biztanle-heinaren arteko erlazioa hau litzateke:

	2005	2006	2007	2008
Biztanleak (urte bakoitzeko urtarrilaren 1a)	49.445	47.849	46.472	47.037
NUPeko nafar ikasleak (1. eta 2. zikloak)	6.658	6.525	6.362	6.375
NUPeko ikasleak/biztanleak ehunekoa	%13,47	%13,64	%13,69	%13,55

Hots, Nafarroako 18 eta 24 urte bitarteko biztanleen %13,60 inguru NUPen matrikulatzen da.

- NUPen eta Espainiako gainerako unibertsitateetan lehenengo aldiz matrikulatzen diren ikasleen jatorri geografikoa 2008/2009 ikasturtean, 2.127 ikaslek gainditu zuten Nafarroan Unibertsitatean Sartzeko Proba; kopuru horretatik, 1.882 ikasle Espainiako unibertsitateetan matrikulatu ziren, eta 245 ikasle atzerrikoetan.

Espainiako unibertsitateetan matrikulatutako ikasleak honako hauetara joan ziren:

Unibertsitatea	Zenb.	%
Nafarroako Publikoa	895	48
Nafarroako U.	475	25
Espainiako beste unib.	512	27
Guztira	1.882	%100

Hau da, hautapropa egin ondoren matrikulatzen diren ikasleen %50 inguru NUPera joaten dira.

- NUP ez diren beste unibertsitate batzuetan lehenengoz matrikulatzen diren nafar ikasleei dagokienez, ia %50ek Nafarroako Unibertsitatera jotzen du, %18k EHUra eta %9k Zaragozakora.

Aurreko ikasle horiek matrikulatzen diren titulazioei dagokienez, Medikuntzak, EAZLk eta Arkitekturak jasotzen dute ikasle gehien. Azpimarratzekoa da Medikuntza eta Arkitektura ez daudela NUPen egungo ikasketa-eskaintzaren barruan; EAZL, Eri-zaintza eta Zuzenbide ikasketak, ordea, eskaintzen dira, eta, hala ere, ikasketa horietan handia da unibertsitate publiko horretan matrikulatzen ez diren nafar ikasleen ehunekoa. NUPen beraren informazioaren arabera, azken kasu horretan, erabakigarria da, besteak beste, plazak izatea edo ez izatea, unibertsitate publikoak berak sarbidea izateko eskatzen duen gutxieneko notaren ondorioz.

59. Emandako irakasgaiak. Azken hiru ikasturteei erreparatzen badiegu, hauek azpimarratuko ditugu:

- Kalifikazioarekin eskaintzen diren irakasgaien kopuru osoaren bilakaera, aukeraketa askekoak, nahitaezkoak, nagusiak eta hautazkoak bereiziz:

Irakasgai-mota	2006	2007	2008
Nahitaezkoak	208	207	208
Nagusiak	500	512	523
Aukeraketa askekoak	175	182	182
Hautazkoak	370	353	365
Guztira	1.253	1.254	1.278

Ikusten denez, irakasgaien kopuru osoa %2 handitu da, batez ere irakasgai nagusietan eta aukeraketa askekoetan.

Komeni da zehaztea aurreko irakasgaietako batzuetan ez dagoela irakaslerik, haien artean prestakuntza-osagarriak, karrera amaierako proiektuak, desagertutako planetako irakasgaiak, irakaslea partekatzen duten irakasgaiak, on-line irakasgaiak eta abar biltzen direlako.

- Irakaslea duten eta 10 ikasle baino gutxiago matrikulatuta dauzkaten irakasgaien kopurua.

Ikasmaila	Nahitaezkoak	Nagusiak	Aukeraketa librekoak	Hautazkoak	Guztira	% irakasgaiekiko
2006			11	38	49	4
2007		1	8	27	36	3
2008		3	9	38	50	4

Irakasle dutela eskainitako irakasgaien %4 ingurutan, matrikulazioa 10 ikasletik beherakoa da. Ehuneko handienak hautazkoetan eta aukeraketa askekoetan ikusten dira. Nagusiak Tuterako campuseko Ingeniaritza Tekniko Mekanikoko 3. ikasmailako irakasgaiei dagozkie; ikasmaila hori 2007/2008an abiarazi zen, eta irakasgai haietan matrikulatutako ikasleen kopurua 10etik beherakoa da.

- Aukeraketa askeko irakasgaien %45 inguru on-line ematen dira; ehuneko hori etengabe handituz joan da aztertutako aldiaren.

- Ingeleseztan eta euskaraz emandako irakasgaien kopuruaren bilakaera, titulazioen arabera, honako hau da:

- Ingelesa. Ingeleseztan ematen diren irakasgaien kopurua nabarmen handitu bada ere –orain sei bider handiagoa da; irakasgaiak 6 izatetik 39 izatera aldatu dira–, kopuru hori garrantzi txikikoa da, irakasgai guztiak kontuan hartzen baditugu. Era berean, soil-soilik hiru titulaziotan ematen direla esan behar da.

- Euskara. Euskaraz ematen diren irakasgaien kopurua %28 handitu da aldiaren –120tik 154ra–; hortaz, 2008an, irakasgai guztien %12 dira, eta ia titulazio guztietan ematen dira.

2010/2011 ikasturterako, eta soil-soilik gradu berrietako lehenengo ikasmailari dagokionez, 40 izanen da ingelesez eman beharreko irakasgaien

kopurua –zazpi titulaziotan–, eta 114 euskaraz –13 titulaziotan–.

60. Irakasgaietan matrikulatutako ikasleek lortutako emaitzei dagokionez, hauek azpimarratutako ditugu:

- Titulazio bakoitzean, 2008/2009 ikasturtean aurkeztutako %100ek gainditutako irakasgaien kopurua. Aurkeztutako ikasle guztiek 547 irakasgaietan gainditu zuten irakasgaia, hau da, irakasgai guztien %43tan; titulazioei dagokionez, Informatika Ingeniaritza eta Enpresa Zuzendaritza nahiz Ikasketak Juridikoak azpimarratzekoak dira beren ehuneko handiagatik.

- Irakasgaiak gainditu dituztenen, gainditu ez dituztenen eta aurkeztu gabeko bategen batez bestekoa. Azterketa honetan, 2007/08ko eta 2008/09ko ikasturteei heldu zaie, eta, zehazki, matrikulatutako ikasle-kopuru handiena duten titulazioei; hauek izan dira:

- Zuzenbideko Lizentzia

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako lizentzia

- Erizaintzako Diplomatura

- Industria Ingeniaritza

- Nekazaritzako Ingeniaritza

- Gizarte Laneko Diplomatura

Lortutako emaitzak honako hauek dira:

	2007/2008					
	Zuzenbideko Lizentzia	EAZL	Erizaintzako diplomaduna	Industria ingeniaria	Nekazaritzako ingeniaria	Gizarte Laneko diplomaduna
Gainditu dituztenen batez bestekoak	%76	%77	%90	%78	%79	%79
Gainditu ez dituztenen batez bestekoak	%9	%10	%5	%7	%8	%8
Aurkeztu ez direnen batez bestekoak	%15	%13	%5	%15	%13	%13

	2008/2009					
	Zuzenbideko Lizentzia	EAZL	Erizaintzako diplomaduna	Industria ingeniaria	Nekazaritzako ingeniaria	Gizarte Laneko diplomaduna
Gainditu dituztenen batez bestekoak	%76	%78	%91	%79	%80	%81
Gainditu ez dituztenen batez bestekoak	%9	%9	%4	%10	%8	%7
Aurkeztu ez direnen batez bestekoak	%15	%13	%5	%11	%12	%12

Titulazio eta ikasturte bakoitza aztertu ondoren, balioak oso antzekoak direla ikusten da. Era berean, azpimarratzekoa da posizioirik onena Erizaintzari dagokiola emaitza orokorren ikuspuntutik, irakasgaiak gainditu dituztenen ehuneko handiena duelako eta, jakina, irakasgaiak gainditu ez dituztenen nahiz aurkeztu gabekoen txikiena. Erizaintza alde batera utzita, irakasgaiak gainditu dituztenen batez bestekoa %79-%80 ingurukoa da.

- Gauditutako kredituei bagagozkie, aztertutako hiru ikasturteetako batez bestekoa guztira matrikulatutako kredituen %72,61 da. Titulaziokoa, Enpresen Zuzendaritza eta Ikasketa Juridikoak titulazio bikoitza nabarmentzen da –%95,41 da

onartutako kredituen ehunekoak, bai eta Informatika Ingeniaritza ere –%91,52–; beste muturrean, ingeniari tekniko industrialak dira azpimarratzekoak, %60 baino ez baitira onartutako kredituak.

61. Ikasleko aurrekontu-gastua. Lehen ere aipatu dugu NUPen ez dagoela kostu-sistematik; horregatik, ezinezkoa da ikasleko eta titulazioko kostuaren kalkulu fidagarria egitea. Hala bada, ikasleko aurrekontu-gastua aztertuko dugu (bai lehen zikloari eta bigarrenari dagokiena, bai guztizkoari dagokiona), eta guztizko gastua arruntetik bereiziko dugu, hurrengo tauletan ikusten den bezala:

Ekitaldia	1.-2. zikloetako ikasleak	Indizea	Ikasleko aurrekontu-gastua	Indizea	Ikasleko gastu arrunta	Indizea
2001	8.548	100	5.884	100	4.957	100
2002	8.094	95	7.660	130	5.691	115
2003	7.688	90	8.656	147	6.704	135
2004	7.500	88	9.620	163	7.221	146
2005	7.396	87	8.994	153	7.714	156
2006	7.330	86	9.551	162	8.236	166
2007	7.276	85	10.404	177	8.680	175
2008	7.348	86	12.272	209	9.590	193

Ekitaldia	Ikasleak guztira	Indizea	Ikasleko aurrekontu-gastua	Indizea	Ikasleko gastu arrunta	Indizea
2001	9.226	100	5.452	100	4.593	100
2002	8.755	95	7.082	130	5.261	115
2003	8.409	91	7.914	145	6.129	133
2004	8.261	90	8.733	160	6.556	143
2005	7.963	86	8.354	153	7.165	156
2006	8.032	87	8.716	160	7.516	164
2007	8.008	87	9.453	173	7.886	172
2008	8.073	88	11.170	205	8.729	190

Abiapuntutzat hartuta aurrekontu-gastu osoaren bilakaeraren azterketa inbertsio-gastuek –Tuterako campusak bereziki– baldintzatuta dagoela, hauek azpimarratzen ditugu:

- Ikasleen kopuruaren joera beheranzkoa da, baina ikasleko aurrekontu-gastua eta gastu arrunta nabarmen dira goranzkoak, biak ia bikoiztu direlako aztertutako aldian. Horretan, eragina dute ikasle-kopuruaren jaitsierak berak eta aurrekontuen igoera orokorrak, batez ere langileei eta inbertsioei dagokienez.

- Inbertsio-gastuen garrantzi kuantitatiboak eragina du ikasleko gastu osoan, eta horrek neurri

batean azaltzen du zergatik izan dituen halako gorabeherak aldian zehar. Ikasleko gastu arruntek, ordea, goranzko joera dute aldian.

- Ikasleko gastu arrunta ikasleko gastu osoa baino apalago handitzen da.

- Euro konstantetan, ikasleko gastu osoan eta gastu arruntan izandako igoera %50 ingurukoa da.

Komeni da zehaztea ezen, “ikasleko gastu arrunta (1. eta 2. zikloak)” ratioa Espainiako unibertsitateen rankingetan gehien erabiltzen direnetako bat izaki, ikerketako gastu arruntak egozteko edo ez egozteko erabiltzen diren kontabilitate-irizpide-

ek eragina dutela lortutako eta konparatutako balioetan.

Adibidez, NUPek erabiltzen duen irizpidearen arabera, ikerketa-gastuetan gastu arruntak –soldaten kostua izan ezik– eta inbertsio-gastuak banakatzen dira, eta, aurrekontuaren ikuspuntutik, dagokien atal ekonomikoan jasotzen dira. Irizpide hori, gure iritziz, zuzena da –eta Ganbera honek NUPi buruz egin dituen fiskalizazio-txostenetan

hala adierazi du–, baina Espainiako gainerako unibertsitateetan salbuespena da haren aplikazioa, banakatze horren zailtasun teknikoagatik. Horregatik, ratio hau erabiltzen duten unibertsitate-rankingetan, NUPen balioak handienetakoak dira.

NUPeko “ikasleko gastu arrunta” ratioaren balioaren bilakaera ikerketako gastu arruntak kontuan hartu gabe aztertzeke, hauek dira azken hiru ekitaldietan lortutako emaitzak:

	2006	2007	2008
NUP. Ikasleko gastu arrunta	8.236	8.680	9.590
NUP. Ikasleko gastu arrunta ikerketarik gabe	7.321	7.585	8.363
Espainiako unibertsitateetako ikasleko gastu arruntaren batez bestekoa	5.710	daturik ez	daturik ez

Hau da, ikerketako gastu arrunta kontuan hartzen ez bada, NUPeko ikasleko gastu arrunta %13 inguru gutxitzen da.

Hala ere, 2006. urteari dagokionez, NUPeko ikasleko gastu arrunt zuzenduak Espainiako unibertsitateek duten batez bestekoa baino %28 handiagoa izaten jarraitzen du. Zuzenketarik gabe, ehuneko hori %44 da.

IV.9. IKERKETA ETA JAKINTZAREN TRANSFERENTZIA (IX. eranskina)

62. Unibertsitatearen ikerketa-ahaleginen helburu/jomugaren ildo nagusiak ikerketa-politikaren tresna hauetan oinarritzen dira:

- Ikerketaren kudeaketari laguntzea, batez ere taldeentzako laguntza administratiboa bideratuz, bai proiektuak eta kontratuak eskuratzeko, bai haiek kudeatzeko. Horretarako, Ikerketa Zerbitzua berregituratzen da.

- Gutxieneko baldintza batzuk gainditzten dituzten ikerketa-taldeen oinarrizko finantzaketa, lortutako emaitzei lotua. Funtz horiek taldeen urteko barne-ebaluazioaren arabera banatuko dira, eta aurreko hiru ekitaldietan kanpo-finantzaketa lortu duten taldeei baino ez zaizkie ematen, taldeak nagusiki kanpo-baliabideen bidez finantzatzea baita asmoa.

- Laguntza berezia eta negoziatua bikaintasun-taldeei, bai eta garapen-ahalmen handiko agertu berriei ere, Ebaluazio eta Prospekzio Agentzia Nazionalak (ANEP) egindako kanpo-ebaluazio borondatezkoaren arabera. Ebaluazio horren emaitza gisa, talde horien finantzaketa babesten da, urte anitzeko jardueretarako eta laguntzaile-plazen zuzkidurarako.

- Tresna horizontalak, honako hauei lotuak: etorkizuneko ikertzaileen prestakuntza, irakasleen eta ikertzaileen prestakuntza iraunkorra, ikerketa-jardueren antolaketa eta emaitzen dibulgazioa eta zabalkundea.

63. Gaur egun, jakintzaren eta, bereziki, teknologiaren transferentzia egiteko politika orokorra unibertsitatearen hirugarren zutabea dela pentsatzen da, eta jarduera hauek nabarmentzen dira:

1. Politika orokor gisa, transferentzia-jarduerak (bereziki, kontratuak eta patenteak) ikerketa-taldeen barne- nahiz kanpo-ebaluazioaren barruan sartzen dira.

2. Transferentziaren kudeatzaileak oinarri dituen enpresekiko elkarreragin-eredu bat ezartzen ari da, unibertsitatea ezagutzen duten enpresa-esperientzia handiko pertsonak bilatuz, NUPen eskaintza egokitzeke eta erakargarri bihurtzeko gauza izan daitezen. Egun, eredu hori IKT esparruetan aplikatzen da, Jeronimo de Ayanz I+G zentroa marka izanik.

3. Unibertsitateak presentzia instituzionala du Foru Komunitatean sortzen diren zentro, egitura eta organo guztietan, haiek industria- eta ekonomia-sarearekiko elkarreragina izanez gero.

4. Unibertsitateak hasiera-hasieratik ematen du laguntza Unibertsitatean egindako ikerketen emaitzetatik sortzen diren enpresak eratzeko prozesu osoan. Alde horretatik, enpresen aurreinkubagailu bat dauka, bai eta akordio bat ere CEINekin, enpresak sortzen direnean laguntza tekniko eta enpresa-esparruko emateko prozesu osorako.

5. Unibertsitateak, SODENA eta PrincipiaTech Navarrarekin batera, FIDENA fundazioa sortu zuen 2008ko urtarrilean, nanoteknologiaren esparruko ikerketa eta garapenerako. Bere langileak

erabiliz, lankidetzak-akordioak ditu Nafarroako Unibertsitate Publikoko taldeekin, bokazio industrial argiko proiektuak aurrera eramateko.

6. Unibertsitateak, 2009an, NUPen PSISen (Udalerriz Gaindiko Eragineko Sektore Plana) lurretan Parte Teknologiko bat sortzeko akordio bat sinatu zuen, lehentasunez NUPekin batera lan egiten duten IKT esparruko enpresa berritzaileak koka daitezzen haietan.

Gomendio orokor gisa, eta NUPen egitura eta neurria kontuan hartuta, nabarmentzeko aukera eman diezaioketen eta errentagarritasun ekonomiko eta sozial egokia lor daitekeen adar edo esparruetarantz bideratu behar dira ikerketa aplikaturako eta jakintzaren transferentziarako politikak; horrek, halaber, berekin dakar lankidetzak handiago izatea enpresa-sektore produktiboarekin. Era berean, beste unibertsitate batzuekin elkartzeko aukera azter daiteke, prozesu honetan eskalako ekonomiak lortzeko.

64. 2007tik, NUPeko ikerketaren kudeaketaren administrazio-egitura Ikerketa Errektoreordetzari atxikitako Ikerketa Zerbitzuan biltzen da. Zerbitzu horrek ikerketa- eta jakintzaren transferentzia-proiektuekin egindako prozesuak eta ikerketa-jardue-

ra horri lotutako deialdiak kudeatzen ditu. Gainera, administrazio-zerbitzuek bezala, ez dauka araubiderik edo eskulibururik bere funtzio eta arduretarako.

Unibertsitatean, "ikerketa-taldeak" dira ikerketaren funtsezko unitatea, eta antzeko ikerketa-ildotan lan egiten duten departamentuetako edo departamentu bateko ikertzaileak dira talde horietako kideak, borondatezkoak betiere. Ikerketa Taldeen Katalogoan jasotzen dira. Katalogoa urtero eguneratzen da, oinarritzko informazioa jasotzen du talde bakoitzaren izenez, osakeraz eta ikerketa-ildoez eta Unibertsitatearen web-orrian iragartzen da.

Talde horiek sustapen-plan baten eta aurrekontuetan dagozkien kontusailen bidez finantzatzen dira; finantzaketa hori Ikerketa Batzordeak banatzen du, eta ikerketa-ekipamenduaren, material suntsikorren, liburuen eta langileen gastuetarako erabiltzen da. Era berean, talde horietako kideek ikerketa-proiektu eta -kontratuatan parte har dezakete.

Ikerketari laguntza teknikoa emateko langileei dagokienez, NUP taula honetan agertzen den bezala hartuz joan da langile horiek:

Taldea	2002	2008
A	1	1
A/B		3
B	2	3
C	2	5
C/D	1	2
D	3	7
Guztira	9	21

Ikusten denez, kopuru osoa %133 handitu da aldi horretan; taldeka, A eta B taldeei laguntzeko langileen kopurua guztizkoaren %33 izan da bi ekitaldietan; C eta D taldeetan, berriz, %67 izan da.

Langileen kopurua bi arrazoi hauengatik handitu da: alde batetik, ikerketa-zuzkidura berrien beharengatik; bestetik, proiektuen finantzatzaileek eskatutako baldintza administratiboak bete behar izategatik.

65. Ikerketa-proiektuak eta -kontratuak kudeatzeko eta kontrolatzeko mekanismoak. Unibertsitateko barne-kontrolak eta Comptos Ganbera honek arreta berezia jarri dute ikerketa-kontratuaren eta -proiektuen kontrolean eta jarraipenean. Gai horretaz egindako txosten guztietatik, Unibertsitateko Barne Kontu-hartzaileak 2009ko martxoan Iker-

keta Esparruaz egindako txostena nabarmentzen dugu, denboran bat datorrelako aholkularitza-txosten honekin.

Txosten horretan, proiektu horien kudeaketa hobetzeko Ganbera honek egindako gomendioak kontuan hartu direla nabarmentzen da. Adibidez, besteak beste: 2008ko urtarrilean, lan zientifikoak, teknikoak edo artistikoak egiteko Kontratazio Araudia onartu zen; 2007tik, antolamendu-aldaketak egin dira ikerketaren kudeaketa-unitateetan; eta ikertzaileen ordainsariak langileen gastuetako 1. kapitulan jaso dira 2008. urtearen amaieratik.

2009ko azaroan, eta errektorearen 1658/2009 ebazpenaren bidez, LOUko 83. artikuluan araututako ikerketa-kontratuak betetzeko araudia onartu zen. Ebazpen horretan, gastu hauek hautagarriak direla esaten da:

- Ikerketa-ekipamendua, inbentaria daitezkeen ondasunak erosteari buruzko barne-araudiaren arabera.

- Bibliografia erostea
- Patenteen kudeaketa eta erregistroaren ondorio diren gastuak
- Material suntsikorra eta gastu arruntak; besteak beste:
 - Bulegoko eta laborategietako materiala
 - Kanpo-lanak, dagokien fakturaren bidez ziurtatuak
 - Ezin inbentaria daitekeen material informatikoa
 - Kongresuetan, ikastaroetan eta prestakuntza-jardunaldietan izena ematea
 - Abegi protokolarioak eta Unibertsitateko edo hark gonbidatutako ikertzaileen egonaldien kudeaketa, NUPen ostatzeko eta mantenurako jarritako mugen barruan.
 - NUPeko ikertzaileen ordainsariak, araudian adierazitako mugak errespetatuz.

- Ikertzaileen eta laguntzaileen kontratazioa, eta dagozkien gizarte-segurantzako kostuak.

Ebazpen horren aplikazioaren bidez, gastu horien barne-kudeaketa arautu, argitu eta kontrolatu egiten da, eta aurreko egoera hobetzen da; izan ere, ez zegoen inolako araudirik, eta, horregatik, segurtasunik eta gardentasunik eza nagusitzen zen.

Orokorrean, ikerketarako laguntzak jasotzeko deialdi publikoetan arautu eta zehaztu egiten da zein diren gastu hautagarrien betebeharrak, baldintzak eta zer-nolakoa, bai eta laguntza horiek jasotzeko zer txosten behar diren ere. Unibertsitateak, ordainketa bakoitza egin baino lehen, gastua hautagarria den ala ez, zer-nolakoa den eta zentzuzkoa den ala ez aztertzen du.

66. Ikertzaileen ordainsariei eta haien mugen kontrolari dagokienez, komeni da hauek zehaztea:

a) Plan Nazionalako proiektuetan, ikerketa-taldeko kideen soldata-ordainsariak ezinen dira izan urteko 2.100 eurotik gorakoak.

b) LOUko 83. artikuluko kontratuei dagokienez, kontratu horien araberrako irakasle baten urteko zenbatekoak ezin izanen du gainditu Unibertsitateko katedradun baten ordainsaria %50 handitzean lortzen den kopurua, baldin eta katedradun horrek errektore-kargua betetzen badu, 14 hiru-urteko aitor-tuta badauzka eta 5 ebaluazio positibo izan baditu

irakaskuntza-merituengatik eta ikerketa-jarduera-gatik; 2008an, 130.400 euro da gehieneko kopuru hori. Unibertsitateak emandako datuen arabera, 2008an, zerbitzu-sari horiengatik jasotako batez besteko ordainsaria 7.653 eurokoa izan zen, guztira 112 pertsona izanik –irakasle eta ikertzaile guztien %12 inguru–.

c) Europako zein nazioarteko proiektuetan, 2008an behintzat, ez dago ikertzaileei ordainsaria emateko aukera jasotzen duen proiekturik.

Unibertsitateak emandako informazioaren arabera, Unibertsitatean ez da izan muga horiek gaintu dituen inolako ikertzailerik.

2008. urtearen amaieratik, ikertzaileen ordain-sari guztiak nominarekin batera ordaintzen dira, eta horrek erraztu egiten du Unibertsitateak mugak kontrolatzea.

Hala ere, Kontu-hartzailetzaren txostenak dio, Ganbera honek ere aurreko txostenetan adierazitakoaren ildotik, ez dagoela irizpide bateraturik zerbitzu-sari gisa jaso beharreko zenbatekoa zehazteko, eta, era berean, ez dagoela inolako kalkulurik jakiteko orduan zer dedikazio izan den kontratatutako ikerketan.

Irizpide objektiboak zehaztea gomendatzen dugu, zerbitzu-sarien zenbatekoa eta ikertzaileen dedikazioa zein den jakiteko, horiek espezifikoki zehaztuta ez dauzkaten kontratu eta proiektuetan.

67. Ikerketaren zeharkako kostuak.

Ikerketaren –kontratuen eta proiektuen– kostua zein den jakitea erabakigarria da Unibertsitatearentzat, behar bezala kuantifikatzeko zein den kostuaren eta prezioaren arteko erlazioa eta zer ekarpen egiten duen unibertsitatearen karga orokorretan; horri esker, besteak beste, hauek galarazten dira: deskapitalizazioa, azpiegituren hondatzea/amortizazioa eta lehia desleialean sartzeko arriskua.

Oro har, badirudi zentzuzkoa dela Unibertsitateak ikerketa-proiektuen eta -kontratuen ondorio diren kostuak guztiz berreskuratzeko asmoa izatea. Kostu horien artean, laburtuta, bi multzo bereizten ditugu:

a) Kostu zuzenak: kontratuari zehaztasunez egotz dakizkioke, behar bezala identifikatuta eta kuantifikatuta egoteagatik.

b) Zeharkako kostuak: administrazio- eta zerbitzu-jarduera orokorrekin eta ekipamenduen amortizazioarekin zerikusia dutenak; dagokien kontratuari egotzeko, beharrezkoa da ondo zehaztutako banaketa-irizpideak izatea.

Espainiako unibertsitateetan, ikerketa-kontratu- en aurrekontuan hauek izan ohi dira: barne- eta kanpo-ikertzaileen ordainsariak; ekipamenduetan eta haiek abiarazteko behar den eta ezin inbentaria daitekeen materialean egindako inbertsioaren zenbateko osoa; eta zeharkako kostuen tasa edo ehunekoa.

Unibertsitateek, oro har, kostuak kalkulatzeko sistemarik ez dutenez, zeharkako kostuak egozteko tasa hori, normalean, hautazko eran eta/edo beste unibertsitate batzuetan aplikagarria denarekin erlazonatuta finkatzen da.

Nafarroako Unibertsitate Publikoan kontratuei eta proiektuei egozten zaizkien zeharkako kostu horien ehunekoari dagokionez, 2007ra bitartean, ez zegoen arauketa espezifikorik. OTRI kontratuetan, zenbateko garbiaren %10eko atxikipena aplikatzen zen, eta atxikipen hori kopuru beretan banatzen zen proiektua hartzen zuen departamentuaren eta Unibertsitatearen artean, gastu orokorreari aurre egiteko; gainerakoari dagokionez, eta hala egokituz gero, emakidarako araubidean adierazitakoa baliatzen zen.

Unibertsitateak 2007rako zeukan aurrekontua betetzeko oinarrietan, atxikipena %20 zen. Hala ere, errektorearen ebazpen bidez eten zen ehuneko horren aplikazioa.

Azkenik, 2008ko urtarrilean, lan zientifikoak, teknikoak edo artistikoak egiteko Kontratazio Erre-

gelamenduan, erabakitzen da %13koa izanen dela zenbateko garbi baliagarrian zeharkako kostuentzatik atxiki daitekeen ehunekoa (%5 departamentuarentzat eta %8 Unibertsitatearen gastu orokorretzat); Jeronimo de Ayanz zentroaren barruan egindako proiektuei dagokienez, atxikipen-ehunekoa %15ekoa izanen da (%7 zentroarentzat eta %8 Unibertsitatearentzat). Ez dago egiaztatutako metodologiarik aurreko ehunekoak oinarritzeko.

Ehuneko horiek ekitaldiko aurrekontua betetzeko arauen bidez egunera daitezke urtero, benetako kostuetara gero eta gehiago hurbiltzeko.

Finantzaketa publikoa duten proiektuen kasuan, erakunde emaileak bere emate-araudian zehazten du gastu orokorren zer ehuneko onartzen den; eta hala, Plan Nazionalako proiektuetan, ehuneko hori %21ekoa da (5 departamentuarentzat, eta 16 Unibertsitatearen gastu orokorretarako); beste administrazio batzuek %10 izatea erabaki dute (departamentuaren eta Unibertsitatearen artean banatu beharrekoa); are gehiago, beste batzuek (Nafarroako Gobernuak, adibidez), normalean ez dute onartzen atxikipen hori gastu hautagarria izatea.

Espainiako beste unibertsitate batzuekin alde-raketa eginez, NUPek 42 unibertsitateri buruz zertutako ikerketa batean, agerian utzi da zein den 83. artikuluko kontratuetarako atxikipen-ehunekoaren egoera:

Zeharkako kostuen atxikipen-ehunekoa	0	5	10	12-13	15	18-20	25	Guztira
Unibertsitate-kopurua	1	1	18	6	12	3	1	42
%	2,4	2,4	42,9	14,2	28,6	7,1	2,4	%100

Hortaz, NUP aztertutako unibertsitateen erdi-ko-goiko aldean dago.

Rodrigo Martínez-ek eta Villarroya Berges-ek⁽¹⁶⁾ gai honetaz egindako artikulua batean, ondorio gisa esaten dute zeharkako kostuak kalkulatzeko eta egozteko egungo sistemaren araubidea kontzeptualki iluna eta arbitrarioa dela, eta kostu horiei benetakoa baino balio txikiagoa ematea dakarrela. Era berean, adierazten dute komeni dela kontratatutako ikerketaren kostuei buruzko ikerketa-ekimen bateratura izatea Espainiako unibertsitateek, kontratuetan guztizko kostuak berres-

kuratzeko, eta prezioa jartzeko erreferentzia gisa baliatzeko.

Gomendatzen dugu NUPen abiarazi beharreko kontabilitate analitikorako sisteman kontuan hartzea kontratatutako ikerketari esker zehaztutako kostuak.

68. Ikerketari buruzko adierazleen bilakaera:

- Ikerketako aurrekontu-gastuak aldian ia bikoiztu badira ere -5,5 m.e.tik 11 m.e.ra-, ia aldatu gabe jarraitzen du Unibertsitatearen gastuen guztizkoarekiko haien pisu erlatiboak -%11 eta %12 bitartean-.

(16) Rodrigo Martínez, I. y Villarroya Berges, C. "Ikerketa-kontratu- en kostua Espainiako Unibertsitatean" ("El coste de los contratos de investigación en la Universidad Española"). *Revista Valenciana D'Estudis Autònomic*s, 27. zk.

- Ikerketako aurrekontu-sarrereren kopurua 2,5 bider handitu da aldian –4 m.e.tik 10 m.e.ra–, eta sarrereren guztizkoarekiko haien pisu erlatiboa %7tik %11ra aldatu da.

- Aurrekontuen ikuspuntutik, ikerketak saldo defizitarioa dauka, urtean, batez beste, milioi bat euro ingurukoa.

- Taldeen eta ikertzaileen kopuruak gora egin du aldian –87 taldetik 101 taldera; 633 ikertzailetik 891 ikertzaileira–; hala ere, azken urteetan nolabaiteko geldialdia gertatu da kopuruaren goranzko bide horretan. Ondorio bera atera dezakegu irakurritako tesien kopuruari dagokionez.

- Ikerketa-kontratuen kopuruaz eta haietatik lortutako sarrererekin bezainbatean, nolabaiteko geldialdia ikusten da kopuruan –130 kontratu inguru urtean–, eta haien zenbatekoak milioi bat euro egin du gora aldian zehar.

- Science Citation Index-en (SCI) argitalpenen bagazozkie –argitalpenak nazioko eta nazioarteko zientzia-ospe handieneko aldizkarietan–, jauzi kuantitatibo garrantzitsuak izan dira aldian; horregatik, zaila da haien joerari buruzko ondorioa ateratzea.

- Era berean, goranzko joera ikusten da ezagututako patenteen kopuruan eta haiei lotutako sarreretan.

- Irakasleei beren ikerketagatik ofizialki aitortu zaizkien seiurtekoei dagokienez, seiurteko horiek 270etik 500era aldatu dira aztertutako aldian, eta urtero, batez beste, 33 seiurteko inguru eman dira.

- Ikerketa-kontratu eta -proiektuengatik –normalean zenbait urtetakoak– lortutako kanpo-baliabideak %70 handitu dira aldian –6 m.e.tik 10,2 m.e.ra–. Ikerketagatik lortutako 100 euroko, 25 euro esparru pribatutik iristen dira, eta 75 erakunde publikoetatik. Erakunde publikoen artean, lortutako funtsak gehienbat Estatutik eta Nafarroako Gobernutik iristen dira.

IV.10. INBERTSIOAK ETA EKIPAMENDUA (X. eranskina)

69. 2006tik 2009ra bitarteko aldian, NUPek 23,5 m.e. inbertitu ditu guztira eraikinetan eta beste eraikuntza batzuetan; kopuru horren %72 Tuterako campusari dagokio. Inbertsio horien %93 Nafarroako Gobernuaren funtsen bidez finantzatu da.

70. Aldi horretan, guztira 12,8 m.e. inbertitu ditu “proiektu konplexuak” izeneko kontzeptuaren

barruan. Kontzeptu horren barruan, besteak beste, hauek daude: ekipo informatikoak, softwarea eta laborategi nahiz tailerretarako ekipamendua. Zenbateko hori departamentuen artean banatzen da, irizpide batzuen arabera; irizpideok ekitaldia hasi baino lehen finkatzen dira eta, nagusiki, haien irakaskuntza-ahalmenari eta laborategiak eta tailerak izateari daude lotuta.

Hortaz, banaketa horrek ez die beti erantzuten aipatutako departamentuetan izan ditzaketen benetako beharrei, irakaskuntza-jardueran oinarritutako adierazle batzuei baizik. Kontu-hartzailetzaren txostenaren arabera, departamentuen ekipamendu-eskaerak ez daude beti ondo oinarrituta.

Ekipamenduen %85 inguru laborategietan dago. Haien erabilerrari dagokionez, %81 irakaskuntzarako da, eta %19 ikerketarako.

Funts horiek departamentuen benetako beharrei erantzuten dieten irizpideen arabera banatzen diren ala ez aztertzea gomendatzen dugu.

Aztertutako ranking guztietan, NUP lehentasunezko lekuetan dago, instalazioen, laborategien eta tailerren ekipamenduari dagokionez.

71. Bibliografia-funtsetan, Unibertsitateak 7,5 m.e. inbertitu ditu guztira 2006 eta 2009 artean; kopuru horren %72 aldizkarietan egindako gastuari dagokio.

Aldizkariak erostea funtsezko elementua da NUPen ikerketa-politika garatzeko, eta departamentuen eta haietako ikerketa-taldeen beharrei erantzuten die.

Gaur egun, aldizkari elektronikoak ez dira lortzen tituluz titulu, baizik eta haietara plataforma elektronikoen bidez iristen da, eta Unibertsitateak haietarako sarbidea erosten du, harpidetutako eperako; hau da, aukeratutako tituluen harpidetzagatik ordaintzen da, baina, aldi berean, benetan harpidetutakoetarako baino titulu gehiagotarako sarbidea izaten da. Horretarako, ordea, gutxieneko inbertsio-atalasea izan behar da tituluen harpidetzetan.

Gastu hori optimizatzeko, NUPek bat egin du beste unibertsitate batzuekin, lizentzia elektronikoen prezioak negoziatu ahal izateko. Horri dagokionez, esan behar da herrialde jakin batzuetan nazio-mailakoa izaten dela jokabide hori.

Gaur egun, Unibertsitate Publikoan 14.556 titulu (batzuk, paperezkoak; besteak, elektronikoak) daude eskura; taulan ikusten den bezala daude banatuta:

	Tituluak
Papera (aldizkari itxiak, dohaintzak, trukea...)	4.671
Argitaratzen ez diren aldizkarietarako sarbide elektronikoak	1.423
Harpidetutako paperezko tituluak	976
Harpidetutako titulu elektronikoak	7.486
Guztira	14.556

Harpidetutako titulu elektronikoen kopuruari dagokionez, Unibertsitateak, guztira, 559 zientzia-aldizkari elektroniko ordaintzen ditu harpidetza bidez, eta, horri esker, gaur egun 7.486 titulurako sarbidea du.

72. Ekipamendu informatikoa. 2001 eta 2008 artean, NUPek urtero 1,6 m.e. ordaindu ditu batez

beste kontzeptu honengatik, batez ere korporazio-mailako informazio-sistemetan eta ekipoetan. Zerbateko horretan ez da sartzen proiektu konplexuetan kontabilizatutako izaera bereko gastua, ezin identifikatuzkoa izatearen ondorioz.

Egun, Unibertsitateak ekipo hauek ditu:

	Aleak
Eramangarriak	1.100
Zerbitzariak	88
Mahai gaineko PCak	5.000

Mahai gaineko PCetatik, 1.800 inguru ikasgeletan eta liburutegietan daude; 1.400 laborategietan, 550 administrazioko eta zerbitzuetako langileen-tzat dira; eta 1.100 irakasle eta ikertzaileentzat; gainerakoak, beste zerbitzu batzuei dagozkie. Sei urteko epea aurreikusten da haiek berritzeko; lehen baino bi gehiago.

Korporazio-sarea eguneratzeko dago 2010ean, eta 5.000 erabiltzaile-leku inguru dauzka. Datuen

sare kabledunaren osagarri, alanbrerik gabeko 120 sarbide-leku daude.

Gerentziak egiten ditu ekipamendu informatikoren erosketak, baina beharrezkoa da Informatika Zerbitzuaren aurretiko txostena. Irizpide orokor gisa, produktuen homologazioa aplikatzen da, 2004an abiarazitako esparru-akordio baten bidez. 2009an, honela egin ziren erosketa-espeditentak, ehunekatotan adierazita:

	2009
Prozedura irekia (homologatuak)	68,35
Informazio-sistemen hedapenak (SIGMA eta OCU) hornitzaile bakararekin	11,50
Zuzeneko esleipena (<15.000 €)	20,15
Guztira	%100,00

Homologatu gabeko produktu bat erosteko, beharrezkoa da eskatzailearen arrazoitutako txostena.

Oro har, ondoriozta dezakegu Unibertsitateak, produktuen homologazio-politikari eta, jakina, erosketa handiei esker, oso prezio lehiakorrak lortzen dituela produktu hauetan.

73. 2010etik 2012ra bitarteko aldian, Unibertsitateak eraikinetan eta ekipamenduan egindako zenbait inbertsio lehenetsi ditu; haien zenbatekoa 23,4 m.e. izan da, eta kopuru horretatik 19 milioi

Iruñeko campusari dagozkie, eta 4,4 milioi Tuterakoari. Inbertsio-plan hori Nafarroako Gobernuarekin negoziatzeko dago.

Finantzaketa-hitzarmen berriaren barruan, eta kontuan hartuta Foru Ogasunaren egungo finantza-egoera eta azken urteotan egindako inbertsio-ahalegin handia, gomendatzen dugu egin beharreko inbertsioen finantzaketa gogoan izatea, kontuan hartuta haien beharra eta/edo lehentasuna, parametro eta ikerketa objektiboen arabera, eta gizarte-errentagarritasunari lehentasuna emanaz. Horri dagokionez, beste finantzaketa-bide

batzuk azter eta aplikatu daitezke, finantzaketa publikoa egiteko bide hori ezin balia dezaketean lehentasunezko inbertsioetan.

IV.11.TUTERAKO CAMPUSA (XI. eranskina)

74. Nafarroako Parlamentuak 25/2002 Foru Legea onartu zuen 2002ko uztailaren 2an, Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzeko Foru Legea aldatzeko buruzkoa, Tuteran unibertsitate-ikasketak jartzeko.

2004/2005 ikasturtean, Tuteran Unibertsitatearen jardura akademikoa hasi zen, eta gaur egun eskaintzen ez diren bi master eman ziren behin-behineko instalazio batzuetan, bai eta Esperientziaren Gela ere; 2006/2007 ikasturtean, berriz, ikasketak hauek hasi ziren: Fisioterapia eta

Ingeniaritza Tekniko Industrial Mekanikoa (Diseinu Industrialaren espezialitatea).

2008/2009an, Tuterako campusa inauguratu zen. Campus horretan egindako lanaren kostua, 2009ko azarora bitarte, 15,43 m.e.koa izan da, eta ekipamenduan beste 4,1 m.e. gastatu dira; hitz batean, inbertsio osoa 19,53 m.e.koa izan da.

75. Tuterako campusean bi titulazio ofizial ematen dira: Fisioterapiako diplomatura eta Ingeniaritza Tekniko Mekanikoa (Diseinu Industrialaren espezialitatean); gainera, berezko ikasketa gisa, Esperientziaren Gela ere ematen da.

Ikasketa ofizialen barruan, matrikulatutako ikasleen kopurua lau bider handiagoa egin da 2006/2007 ikasturteetik –76 ikasle– 2009/2010 ikasturtera –229– bitarte.

Matrikulatutako ikasleen bilakaera.	2006	2007	2008	2009
Ingeniari Tekniko Industrial Mekanikoa-Diseinu Industriala	26	37	55	69
Fisioterapiaren Diplomatura	50	98	149	160
Guztira	76	135	204	229
Indizea	100	178	268	301

Jakina, hazkunde horrek lotura estua du ikasmailak ezarri ahala titulazioetan denboran zehar gertatzen den garapen akademikoarekin.

Ikasleen jatorria aztertzen badugu, hauek azpimarra daitezke:

- Fisioterapiaren, ikasle nafarren ehunekoa pixkanaka jaitsiz joan da, %44tik %33ra aldatu baita aztertutako aldian. Lau ikasturteetan, ikasle nafarren kopurua beti izan da beste lekuetatik etorritakoena baino txikiagoa.

- Ingeniaritzan, berriz, ikasle nafarrak nagusi dira argi eta garbi; hala ere, haien nagusitasun erlatiboa poliki-poliki jaitsi da: %96tik %83ra azken ikasturtean.

- Ikasle nafarren jatorriari erreparatzen badugu, ikusten dugu Iruñeko ikasleen ehunekoa jaitsi dela Nafarroa osoko ikasleen ehunekoarekin alderatuta, eta hori Fisioterapiaren eta Ingeniaritzaren gertatu dela; izan ere, lehendabizikoan, Iruñeko ikasleak %32 izatetik %29 izatera aldatu dira; bestean, berriz, %12 izatetik %2 izatera.

Hitz batean, Ingeniaritza Teknikoan batez ere nafarrak aritzen dira; Fisioterapia diplomaturan, berriz, kanpotik etorritakoak. Bietan, ikasle nafarrak gehienbat ez dira Iruñekoak, probintziako gainerako lekuetatikoa baizik.

Esperientziaren Gelari dagokionez, unibertsitate-hedapenerako tresna bat da, 50 urtetik gorako pertsonentzako, NUPen berezko titulu bat lortzeko aukera ematen duena. Nafarroako Gobernuak haren finantzaketan esku hartzen du. Programa, bai Iruñeko campusean bai Tuteran ematen da; azken horrek 125 ikasle ditu.

Ez dago azterketa eguneraturik eta teknikoki oinarriturik campus honetan emanen liratekeen titulazio berriez etorkizunera begira egindako aurreikuspenei buruz.

76. Tuterako campuseko irakasleak eta administrazioako langileak.

Tuterako campusean lan egiten dutenen kopuruaren eta kostuaren bilakaera, Unibertsitatearen informazioaren arabera, taula honetakoa da:

	2006		2007		2008	
	Kop.	Zenbat	Kop.	Zenbat	Kop.	Zenbat
IIL funtzionarioa	4	67,544.35	7	106,134.32	11	192,290.75
IIL kontratatua	15	55,312.77	27	150,556.97	44	330,533.57
AZL	3	24,674.94	4	78,474.88	13	194,701.08
Guztira	22	147,532.05	38	335,166.17	68	717,525.40

Ondorio nagusi gisa, eta kontuan hartuta irakasleen eta ikertzaileen kasuan haien irakaskuntza-dedikazioaren kostua bakarrik egotzen dela, hauek azpimarratzen ditugu:

- Tuterako campusari atxikitako pertsonen kopurua hirukoiztu egin da aldiari, eta finantza-kostua ia bost bider handiagoa egin da.

- Irakasleen eta ikertzaileen artean, kontratatutako funtzionarioak baino gehiago dira: lau bider gehiago. Bi dira horren arrazoi nagusiak: funtzio-

narioak campusera ekartzeko zailtasuna, eta irakasteko premiazko beharrak. Proporzio horrek irauteak arazo handiak sor ditzake Tuteran irakatsitako tituluen kreditazioa berritzean; bereziki, Fisioterapiako gradu berrian.

Tuterako campuseko irakasleen eta ikertzaileen, administrazioko eta zerbitzuetako langileen eta ikasleen kopuruak erlazionatzen dituzten ratio nagusiak eta Iruñeko campuseko 2008ko datuekin egindako alderaketa taula honetan agertzen dira:

2008ko ratioak	Tuterako campusa	Iruñeko campusa
IIL/ikasle	0,27	0,12
AZL/ikasle	0,06	0,06
IIL/AZL	4,23	2,15

Kontuan hartuta Iruñeko kasuan irakasleek eta ikertzaileek graduondoko ikasketetan erabiltzen dutela beren irakaskuntzaren zati bat –Tuteran hori ez da gertatzen–, hauek ikusten dira:

- AZL/ikasle ratioa bera da bi campusetan.
- IIL/AZL ratioak oso desberdinak dira: Tuterako bi bider handiagoa da Iruñeko baino. Desberdintasun horren arrazoia da zerbitzu administratiiboak eta ekonomikoak Iruñeko campusean daudela zentralizatuta, eta Unibertsitate osorako lan egiten dutela.

- Ikasleko irakasleen dedikazioari dagokionez, Tuterako ratioa hobea da, Iruñeko baino bi aldiz handiagoa baita; edo, bestela esanda, Tuteran irakasle bat dago 4 ikasleko, eta Iruñean irakasle bat 8 ikasleko.

77. Campusari buruzko aurrekontu-alderdiak. Aztertu den aldiari, hartan egindako inbertsio-lan handiek eta jarduera hasteko prozesuak berak eragin handia izan dute aurrekontu-zenbatekoetan.

Aurrekontu-gastu eta -sarrera arruntei erreparatzen badiegu, 2007 eta 2008 artean hauek gertatu dira:

- Tuterako gastu arruntak halako bi egin dira azken bi urteetan –0,66 m.e.tik 1,12 m.e.ra–; sarrera arruntak, berriz, %40 handitu dira –0,22 m.e.tik 0,31 m.e.ra–.

- Hurrengo taulan, Unibertsitate osoko 1. eta 2. zikloko ikasleko gastu arrunta Tuterako campusekoarekin alderatzen da:

Ikasleko gastu arrunta (1. eta 2. zikloa)	2007	2008
NUP	8.679,86	9.589,73
Tuterako campusa	4.854,71	5.688,05

Ikusten denez, Unibertsitateko ikasleko gastu arrunt osoa ia bi aldiz handiagoa da Tuterakoa baino, baina aldea poliki-poliki txikitzen ari da. Egoera horretan, Tuterako irakasleak eta ikertzai-leak gehienbat elkartuak izateak ere dauka eragina; horrek soldata-kostua txikiagoa izatea dakar berekin.

Hala ere, Tuteran gastuak ez du jasotzen Unibertsitateko zerbitzu zentraleri lotutako gastu orokorren eta zeharkakoen egozpena. Horregatik, Ganbera honek kalkulatu du 2008an Unibertsitateko Gerentziako langile-gastuen %5 eta %10 bitarte legozkioketela gastu orokorren aipatu egozpen horri. Kalkulu hori kontuan hartuta, ikasleko gastu arrunta banakatu da, bai Tuterako campuserako, bai, berariaz, Iruñeko campuserako:

Ikasleko gastu arrunta 2008an	%5eko egozpena	%10eko egozpena
Tuterako campuserako kalkulua	7.815,97	9.943,89
Iruñeko campuserako kalkulua	9.640,38	9.579,62

Hortaz, ikusten dugu bi campusetako ikasleko gastu arruntak elkarri hurbiltzen zaizkiola, aipatutako hipotesiak kontuan hartuta; are gehiago, parekatu ere egiten dira.

Jakina, aurreko datu horiek gastu orokor horietatik Tuterari legokiokeen ehunekoaz Ganbera honek egindako kalkuluan oinarritzen dira; egozpen hori bestelakoa balitz –handiagoa ala txikiagoa–, ondorioak ere desberdinak liraitke.

IV.12.UNIBERTSITATE-GIZARTE FUNDAZIOA (XII. eranskina)

78. Unibertsitate-Gizarte Fundazioa Unibertsitateko Gobernu Batzarraren 1996ko abenduko erabakiaren bidez sortu zen, 24.040,48 euroko sorrerako zuzkidurarekin; berezko izaera juridikoa du eta jarduteko ahalmen osoa, Nafarroako Foru Berriko 43. Legean ezarritakoari jarraituz.

Fundazioa interes sozialekoa da eta ez du inolako irabazi asmorik. Fundazioa honako helburu hauek erdiesteko sortu zen: Unibertsitatearen eta eragile ekonomiko eta sozialen arteko elkarriketa

sustatu eta bultzatzea; erakunde horientzat interesa duten edozein motatako azterketak eta ikerketak sustatzea; unibertsitatearen eta enpresaren arteko harremana sustatzea, unibertsitateko tituludunen prestakuntzarako praktiken bidez, tituludun horiek enpresa munduan errazago sar daitezten. Era berean, fundazioak Unibertsitatearen berezko tituluak eta Unibertsitatearen Hizkuntzen Goi Mailako Etxea ere kudeatzen ditu. 2008ra bitartean, unibertsitateko kultura-jarduerak kudeatu ditu; orduz geroztik, Unibertsitateak berak gauzatzen ditu zuzenean.

Unibertsitatearen eta Fundazioaren arteko harremanak mandatuen bidez arautu dira nagusiki.

Agindutako jardueraren kudeaketan izandako defizita finantzatzen dio Unibertsitateak Fundazioari; defizit hori agindutako jarduerarekin zerikusia duten sarrera eta gastu guztiak kontuan hartuta kalkulatu da.

79. Fundazioak jardueraz jarduera azken hiru urteetan –2006tik 2008ra– guztira izan duen gastuaren bilakaera hau da:

	2006	2007	2008
Enpleguaren arloa	3.814.348	3.673.056	4.457.594
Prestakuntzaren arloa	824.303	715.032	676.711
Kultura Jardueren arloa	69.248	99.042	
Hizkuntzen Goi Mailako Eskola	1.267.714	1.328.159	1.092.936
I+G sustatzailea			66.858
Atal honetan, guztira	5.975.613	5.815.289	6.294.099
Zeharkako gastuak	283.994	292.416	266.949
Gastuak, guztira	6.259.607	6.107.705	6.561.048

Hortaz, Fundazioaren gastuak gutxi samar aldatu dira aztertutako aldian zehar.

Arloei dagokienez, azpimarratzekoa da emandako beken dela kontusail garrantzitsuena Enpleguan –2008an, arloko gastu guztiaren %87–; Prestakuntzan, berriz, Fundazioarekin lotura zuzenik ez duten irakasleen kontratazioa da kontusail garrantzitsuena –2008an, arloko guztizkoaren %51 izan zen; Hizkuntzetan, azkenik, langile-gastuak arloko gastuaren %89 dira.

Oro har, langile-gastuak gastu osoaren %28 inguru dira. Aipatu epean, Fundazioko enplegatu-en kopurua 55 pertsonatik 46 pertsonara gutxitu da. Gutxitze horren arrazoi nagusiak hauek izan dira: Fundazioaren jarduerak eten egin dira harre-

man instituzionalen esparruan eta kultura-esparruan; eta langileen kopuruak behera egin du Hizkuntzen Goi Mailako Eskolan, eskola horretan jarduerak gutxitu egin delako.

Sarreretan, enpresek eta erakundeek beketarako egindako ekarpenena izan da kontusail garrantzitsuena; izan ere, 2008an, 3,7 milioi euro izan dira, guztizkoaren %59. Bigarren kontusail garrantzitsuena ikastaro eta programetako matrikula-eskubideena izan da: 1,2 milioi euro; hau da, guztizkoaren %17.

Lan-praktiken eta -eskaintzen kudeaketagatik, Fundazioak 0,6 milioi euro jaso ditu guztira.

Babes-sarrerek bilakaera hau izan dute:

	2007	2008
Administrazio publikoak	404.331	406.335
Beste sektore batzuk	45.189	59.417
Babesa guztira	449.520	465.752
Sarrereren zenbateko osoaren ehunekoa	7	7

Babesagatik jasotako sarrereren %85-%90 inguru administrazio publikoetatik dator; Nafarroako Gobernutik, bereziki. Babesa jaso duten arloak kontuan hartuta, ia babes osoa enplegu- eta prestakuntza-arloetara bideratzen da.

80. Fundazioak egindako jarduerak Unibertsitatearentzat izan duten kostua gutxituz joan da hiru urteetan, bai kopuru absolutuetan, bai Unibertsitate Publikoaren gastu guztiekiko pisu erlatiboan; Hizkuntzen Goi Mailako Eskola da, alde handiz, Unibertsitateari kostu handiena dakarkion jarduerak.

Arloa	2006	2007	2008
Enplegua	11.567	20.182	(19.249)
Prestakuntza	92.439	60.567	27.130
Hizkuntzak	558.383	487.214	537.807
Kultura Hedapena	78.912	113.135	-
I+G zentrorako laguntza	-	-	74.214
Kostu osoa Unibertsitatearentzat	741.301	681.098	619.902
NUPen gastuekiko ehunekoa	%1,06	%0,90	%0,69

Laburpen gisa, ondoriozta dezakegu Fundazioak urteko 0,65 m.e.ko kostua duela Unibertsitatearentzat –aurrekontuaren %0,7–. Kudeatzen dituen jarduerari dagokienez, enplegua eta berezko tituluak autofinantzatu egiten dira. Kudeaketa-defizita Hizkuntzen Goi Mailako Eskolan gertatzen da nagusiki; baliteke jarduera horrek, epe ertainean behintzat, bultzada handiagoa behar izatea Bolog-

nako prozesuaren barruan; gainera, ez da ahaztu behar NUPen ikasketak bukatu dituztenen hizkuntza-maila zela Nafarroako enpresaburuek gutxien balioesten zituzten kontuetako bat. Badago aztertu beharreko beste kontu bat ere: hizkuntzen arazoa Unibertsitatean bertan ala Nafarroako unibertsitatez kanpoko hezkuntza-curriculumean konpondu behar da?

IV.13. INKESTA NAFARROAKO ENPRESABURUEI, NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO TITULUDUNEI BURUZ (XIII. eranskina)

81. Nafarroako enpresaburuek Unibertsitate Publikoko tituludunei buruz duten iritzia (2009). Eskaera parlamentarioaren barruan, esaten zen beharrezkoa zela jakitea zer iritzi zuten Nafarroako enpresek kontratatutako Unibertsitateko tituludunei buruz.

Horretarako, Ganbera honek enpresa espezializatu bat kontratatu zuen, ikasketak Unibertsitatean amaitu eta azken hiru urteetan Nafarroako enpresek kontratatutako ikasleei buruz enpresek zer iritzi zuten eta, era berean, haietaz zer irudi zuten azter zezan. Guztira, 104 elkarrizketa egin zitzaizkien enpresei, titulazio eta, egiten duten

lanari dagokionez, jarduera-sektore guztietako ikasleak kontuan hartzeko.

Ikasketak Unibertsitatean amaitu dituzten 514 pertsonari buruz egin zen azterketa; pertsona horiek Nafarroako enpresetan lan egin dute azken hiru urteetan, hainbat jarduera-sektoretan, hain zuzen ere.

Aurreko kopuru hori azken hiru urteetan Unibertsitateko ateratakoen kopuruaren adierazgarria da $-$ errore-maila $_+$ %4,2koa da $-$, baina laginak titulazioen arabera segmentazioan dauzka errore-maila handienak, haietako batzuen kopurua oso txikia delako. Ikerketaren gaian, emaitzak ez dira adierazgarriak, hiru enpresak baino ez zituztelako kontratatu horrelako lanak.

Indizeetatik lortutako emaitza orokorrak taula honetan daude:

Indizeak	Batez beste
Gaitasuna	6,9
Lanera egokitzea	7,3
Jarrera	7,9
Harremana lanean	7,7
Hizkuntzak	6,5
Informatika	7,6
Mugikortasuna	6,8
Gizarte-elkarreragina	7,4
Batez beste	7,3

Indizerik onenak jarrerari, laneko harremanari eta informatikako ezagutzei dagozkie; guztiak ere zortziko batez bestekotik hurbil daude.

Gizarte-elkarreraginaren eta lanera egokitzearen indizeak ere onak dira, zazpitik gorakoak; jarrera zazpitik behera dago, baino oso hurbil zenbaki horretatik.

Argi dago, ordea, mugikortasunak eta hizkuntzen ezaguerak indize txarrak dauzkatela.

Asetasuna	Eskala
Kalitatea	7
prezioa	7
Entrega-epeak	4,3

Horrenbestez, argi ikusten da agindutako txostena edo azterketa entregatzeko denbora izan dela gutxien ase dituen.

Bestalde, azpimarratzekoa da elkarrizketatutako enpresen %88k ikasketak Unibertsitatean amaitu dituztenak kontratatuko dituztela, langileak behar dituztenean. Era berean, enpresek oso iritzi ona dute Unibertsitatearekin daukaten harremanaz; iritzi on horri 8,1eko batez besteko balioa ematen diote.

Ikerketari dagokionez, kontuan hartuta hiru zerbitzu-enpresak soilik kontratatu dituztela lan horiek Ingeniaritzarekin eta Soziologiarekin, emaitza hauek lortu dira:

IV.14. UNIBERTSITATEEN RANKINGA ETA NUPEN POSIZIOA (XIV. eranskina)

82. Aztertutako ranking guztietatik, ondorio hauek ateratzen ditugu:

- Nafarroako Unibertsitate Publikoa unibertsitate txikia da, Espainiako unibertsitateen %0,7 hartzen ditu, eta bere aurrekontu-gastua unibertsitate publikoen gastu osoaren %0,9 da. Nafarroakoak ez diren ikasleak neurritz erakartzen ditu.

- Ematen dituen ikasketak teknikoak dira nagusiki –ikasleen %46,1 adar tekniko karreretan dago matrikulatuta; beste unibertsitateetan, ordea, ehuneko hori 28,29 da batez beste–, eta baliteke prestakuntza-hutsuneak izatea humanitateetan eta osasun-ikasketetan.

- Eskaintzen dituen titulazioak Espainiako unibertsitate publikoek guztira eskaintzen dituztenen %1 dira; ikasleen %69,9 ziklo laburreko karreretan dago matrikulatuta; Espainiako unibertsitateetan, berriz, ehuneko hori 45,5 da batez beste.

- Unibertsitate horien artean, lehendabiziko lekuetan dago ikasleko finantza-adierazleei dagokienez (gastu osoa; gastu arrunta; eta sarrerak, autonomia-erkidegoaren transferentziengatik).

- Akademikoki eta giza baliabideetan zein baliabide materialetan, ondo hornituta/kokatuta dago, ikasleen eta unibertsitateko langileen (irakasleen, ikertzaileen, eta administrazioko nahiz zerbitzueta-ko langileen) arteko erlazio onenetako bat duela.

- Irakaskuntzaren kalitateari dagokionez, NUPen, azpimarragarria da ikasleen uzte-tasak, batez ere adar teknikoan, baina oso arrakasta- eta errendimendu-tasa onak ditu bertan ikasten jarraitzen duten ikasleen artean, lehenengo postuan baitago unibertsitate guztiak kontuan hartuta.

- Ikerketaren kalitateari buruzko rankingean, bitarteko postua betetzen du, eta hori garrantzitsua da unibertsitatea txikia eta berri samarra delako, eta ez daukalako titulaziorik oinarritzko zientzietan.

- Ikusgaitasun txikia du nazioarteko rankingetan, bai eta Espainiako unibertsitateen artean ere.

Egindako lanetik, halaber, ondorio gisa ateratzen da beharrezkoa dela Espainiako unibertsitate publiko guztiek adierazle-sistema egoki bat izatea, beren jarduera modu homogeen, sendo eta egiaztagarri batean ebaluatu eta alderatu ahal izateko.

V. AMAIERAKO ONDORIOA

Laburbilduz, eta amaierako gogoeta gisa, hona azpimarratu behar duguna:

Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortu berri samarra eta neurri txikioa da, eta kokatuta dagoen lurraldea ere txikia da –geografikoki eta biztanle-kopuruaren aldetik–, estatua eta Europa osoa kontuan hartuta. Presentzia handiko eta ondo errotutako unibertsitate pribatu baten eremu geografiko berean dago. Neurritz erakartzen ditu Nafarroakoak ez diren ikasleak, eta, Espainiako unibertsitate guztiek bezala, ikusgaitasun txikia du nazioartean.

Hautaprobaren bidez Espainiako unibertsitateen lehenengo aldiz matrikulatzen diren 100 ikasle nafarreko, 48 NUPen matrikulatzen dira, 25 Nafarroako Unibertsitatean, eta 27 Espainiako gainerako unibertsitateetan.

Nafarroako enpresaburuak irudi ona du Unibertsitate Publikotik ikasketak amaituta ateratzen direnei buruz, bi salbuespen hauekin: nolabaiteko gabezia hizkuntzetan eta lekuz mugitzea oso gogoko ez izatea. Gehien-gehienek diote NUPeko tituludunak kontratatzen jarraituko dutela.

Espainiako unibertsitate-rankingetan, NUP oso leku onean dago kokatuta, finantza-, giza eta ekipamendu-baliabidez ondo hornituta dagoelako; ikerketaren esparruan, erdialdean dago; eta lehenengo postuan, irakaskuntza-kaliterara hurbiltzeari buruzko rankingean.

Hitz batean, Nafarroako Unibertsitate Publikoak kopuru adierazgarri hauek ditu:

	2001	2005	2008
Gauzatatuko aurrekontu-gastu osoa	50.296.590	66.519.330	90.171.760
Langile-gastuak	27.133.673	36.788.393	48.202.534
Gutzizkoarekiko langile-gastuen ehunekoa	%54	%55	%53
Funtzionamendu-gastuak	42.365.604	57.047.965	70.399.958
Inbertsioetan eginiko gastua	7.925.026	9.467.209	19.706.430
Aurrekontu-sarrerak guztira	55.174.846	67.106.513	87.416.652 ¹
Dirusarrera berekiak	9.987.363	11.725.182	14.611.835
Dirulaguntzen bidezko sarrerak	45.187.483	55.381.332	72.804.817
Dirulaguntzekiko mendekotasuna	%82	%83	%83
Aurrekontu-saldoa	4.878.256	587.184	-2.755.108
Diruzaintzako gerakina	13.980.166	12.854.385	19.141.033

	2001	2005	2008
Diruzaintzako atxiki gabeko gerakina	Ez da aplikagarria	7.245.500	8.268.016
Hurrengo ekitaldiko aurrekontua finantzatzen duen diruzaintzako atxiki gabeko gerakina		4.000.000	8.000.000
Ekonomia- eta ondare-emaiza	3.317.533	327.430	7.857.577
Langileen kopuru osoa	1.082	1.246	1.386
AZL kopurua	360	445	475
IIL kopurua	722	801	911
IIL-DOB kopurua	637	682	767
Irakasle elkartuen kopurua	267	308	397
Iraunkorrek ez diren irakasleen ehunekoa	%52	%56	%59
IIL-DOB/AZL ratioa	1,8	1,5	1,6
Ikerketa-kontratuen eta -proiektuen kopurua	139	100	129
Ikerketagatik lortutako baliabideak guztira	6.301.815	5.612.212	9.680.560
Ikerketagatik lortutako baliabide pribatuak	1.475.407	1.644.020	2.872.665
Ikerketa-taldeen kopurua	87	98	101
Irakurritako tesien kopurua	36	46	34
Onartutako seiurtekoen kopurua	238	391	493
Eskainitako titulazio ofizialen kopurua	21	24	26
1. eta 2. zikloetan matrikulatutako ikasleak	8.548	7.396	7.348
Ikasleak guztira	9.226	7.963	8.073
Eskainitako ikaspostuak	1.890	1.785	1.980
Sarrera berriko ikasleak	1.733	1.737	1.844
Graduatutako ikasleak	1.580	1.345	1.357
Ikasle guztiak/IIL-DOB ratioa	14,48	11,68	10,52
Ikasle guztiak/AZL ratioa	25,6	17,9	17,0

(17) NUPen 2008ko sarreraren likidaziotik 3,45 milioi euro kendu dira, Nafarroako Gobernuaren transferentzia arrunten murrizketa-gatik; murrizketa hori Lanbide Heziketa eta Unibertsitateetako zuzendari nagusiaren ebazpen bidez gauzatu zen, eta 2009ko martxoan jakinarazi.

Aurreko informazio horretatik, hauek azpimarratzen ditugu:

- 2001 eta 2008 artean, gastuak %45 handitu dira termino konstantetan. Unibertsitateak gastutako 100 euroko, euro horiek hauetarako erabili dira: 52 euro, langileak finantzatzeko; 28,5 euro, beste funtzionamendu-gastu batzuetarako; eta 19,5 euro, inbertsioak finantzatzeko. Gastuen erdiak baino gehiago langile-gastuetarako dira.

- 2001 eta 2008 artean, sarrerak %34 handitu dira termino konstantetan. 100 euroko, honela lortu dira: 75 euro, transferentzia arrunten bidez; 16 euro, tasen eta beste sarrera batzuen bidez; 8 euro, kapital-transferentzien bidez; eta euro bat, bere ondarearen sarreraren bidez. Sarreraren %83 inguru dirulaguntzetatik dator.

- Aztertutako aldiari, beste bost titulazio ere eman dira, eta Tuterako campusa ireki da.

- Nafarroako Gobernuak Unibertsitatearen finantzaketan egiten duen finantza-ahalegina, batez beste, Nafarroako BPGd-aren %0,35 ingurukoa da. Ikasleko, ahalegin hori 8.312 eurokoa izan zen 2008an.

- Diruzaintzako gerakinaren erabileran, hurrengo ekitaldiko aurrekontua zuzenean finantzatzeko joera gero eta handiagoa ikusten da. Erabilera horren ondorioz, Unibertsitatearen finantza-esparruko maniobra- edo likidezia-tartea pixkanaka gutxitzen da, baina kudeaketa-erabaki jakin batzuek ere eragina daukate egoera horretan, erabilera askeko gerakin-zuzkidura mugatzen dutelako.

- Ez dauka epe luzeko zorrik aipatutako aldiari, eta Espainiako unibertsitate saneatuenetako bat da.

- Enplegatuen kopuru osoa %28 handitu da aldiari, baina 1. eta 2. zikloetan matrikulatutako ikasleen kopurua %14 gutxitu da, eta ikasle guztien %12.

- Administrazioiko eta zerbitzuetako langileen kopurua %32 handitu da 2001 eta 2008 artean; irakasleen eta ikertzaileen kopurua, berriz, %26 handitu da. Irakasleen eta ikertzaileen artean, azpimarratzekoa irakasle elkartuen kopurua asko handitu dela: %49.

- Ikerketatik lortutako baliabideak %54 handitu dira 2001 eta 2008 artean, eta azken urte horretan aurrekontu-sarreraren guztien %11 izan dira.

- Ikasleko aurrekontu-gastua eta ikasleko gastu arrunta ia bikoiztu egin dira aldiari; euro konstantetan, %50 handitu dira.

- IIL-DOB eta AZLrekiko ikasle guztien ratioen balioek behera egiten dute denboran, eta horrek esan nahi du txikiagoa dela ikasleko eta AZLko ikasleen kopurua.

- Aztertutako aldiari, Tuterako campuseko lanak eta ekipamendua amaitu dira, eta horien kostua, guztira, ia 20 m.e.koa izan da. Gaur egun, campus honek bi titulazio eskaintzen ditu, eta 229 ikasle daude matrikulatuta; Ingeniaritza Tekniko Industrial-Mekanikoan ikasleak batez ere nafarrak dira; Fisioterapiako diplomaturan, berriz, kanpotik etorritakoak.

EEES abiaraztea erronka handia izan da Espainiako unibertsitateentzat, eta haien kudeaketaren zati handi bat ikasketa-mapa berria behin betiko 2010/2011 ikasturtean ezartzeko erabili da. Aurreko hori, administrazio publiko guztiei eta, oro har, gizarteari eragin dien ekonomia- eta finantza-krisiarekin batera gertatu da. Ondorioz, uste dugu Nafarroako Unibertsitate Publikoak gastu publikoaren kontrol-politika aplikatu behar duela, bai eta bere kudeaketan bikaintasuna bilatu ere. Gastu handiena bertan lan egiten duten langile guztien denez –gainera, bere aktibo handiena dira–, bere egituraren egungo zurruntasunak –gainerako administrazio publikoetan bezala– aldaketa-ahaleginak honako hauetan ere egitera behartzen du:

- Gradu berriak abiarazteak sortutako irakasle-beharren azterketa, irakasle-plaza jakin batzuetan egin litekeen birmoldaketa kontuan hartuta.

- Plaza berriak behar bezala arrazoitzea.

- Egungo zuzeneko irakaskuntza-dedikazioari eta behar horiek kontratazio berrien bidez betetzeak berekin dakartzan irakaskuntza-ahalmenaren murrizketei buruz gogoeta egitea.

- Nafarroako Gobernuarekin eta Gizarte Kontseiluarekin batera, egungo ordainsari-tarte autonomikoa zehazteko oinarri diren kontzeptuak berriz aztertu ahal izatea, ordainsari hori unibertsitate-jardueraren helburu zehatzak lortzeko tresna gisa erabiltzeko.

NUP, Espainiako beste unibertsitate publikoak bezala, administrazio zentralak emandako oinarriko arautegiaren mende dago bere kudeaketa-egiturari; finantzaketa- eta kontrol-esparruan, berriz, Nafarroako Foru Komunitateko xedapenen mende dago. Hortaz, Ganbera honek, kudeaketa-esparruan zer maniobra-tarte duen kontuan hartuta, lehentasunezko zatitza jotzen du Unibertsitateak:

- Nafarroako Gobernuarekin batera, urte anitzeko finantzaketa-eredu bat zehaztea, Nafarroako unibertsitate-erakunde publikoaren finantza-egonkortasuna eta -bideragarritasuna bermatzeko. Eredu horrek bide eman behar du gardentasuna, kalitatea, efikazia eta efizientzia sustatzeko esparru guztietan: irakaskuntzan, ikerketan eta unibertsitateak baliabideak kudeatzeko duen moduan.

- Foru-instantzia eskudunek honako hauei buruzko unibertsitate-lege organikoetan jasotako

aurreikuspenak garatu eta kontuan hartu beharko lituzkete: Unibertsitatearen aurrekontuak garatzea eta betearaztea; haren urteko kontuen edukia eta aurkezpena; gizarteari kontuak emateko prozesua; eta Gizarte Kontseiluak kudeaketari eta finantzaketari dagokienez bete behar dituen kontrol- eta gainbegiratze-funtzioak.

- Kudeaketa-egitura: Nafarroako Unibertsitate Publikoaren egungo kudeaketa-eredua, Espainiako gainerako unibertsitate publikoetan bezala, estatuko oinarritzko araudian dago zehaztuta, baina araudi horretan kudeaketa-ahulgune handiak daude, erabakiak hartzeko prozesuan erabiltzen den eredu burokratiko eta kolegiatuaren ondorioz. Araudi horren erreforma gauzatzen ez den bitartean, Unibertsitateak zenbait neurri har ditzake egungo lege-esparruaren barruan, honako hauek lortzeko: erabakiak azkarrago hartzea –estrategikoak bereziki–; gizartearen eta unibertsitatearen arteko harremana handitzea eta sendotzea; gardentasuna eta ardura hobetzea kontuak ematean; eta plangintza estrategiko egonkorra prestatzea, agindu politikoei baldintzatuta egon gabe, eta boterearen barruko barne-oreketatik kanpo.

- Irakaskuntzaren antolaketa:

- Ahaleginak egitea bere plantilla-irizpideetan eta LOUren mandatuan zehaztutako IIIren egitura lortzeko.

- Irakaskuntzaren Antolaketa Planaren benetako aplikazioari buruzko kontrola areagotzea.

- Honako hauek egiaztatzea: irakaskuntza-jarduerak –teorikoak eta praktikoak– benetan gauzatzen direla; taldeen zehazpena; programatutako eta iragarritako ordutegiak betetzen direla; eskolak benetan ematen direla; eta tutoretza-orduak zorrotz betetzen direla.

- Administrazio-antolaketa:

- Unitate organikoen funtzioak, eskumenak, aginte-ildoak eta errektoreordetzei esleitutakoekin nola egokitzen diren zehaztea.

- Organigrama bat onartzea eta prozedura-eskuburuak egitea.

- Espezializazio tekniko handiagoa ematea administrazioko eta zerbitzuetako langileei, unibertsitate-jarduera guztiei laguntzeko.

- Administrazioko eta zerbitzuetako langileak egituratzea, ordainsari-mailak eta -osagarriak

esleitzean dagoen behin-behinekotasuna kenduz, eta hutsik dauden postuak betez joatea.

- Unibertsitatearen barne-kontrolerako sistema behin betiko eratzea, eta, horretarako, Gerentziarekiko egungo lotura organikoa aztertzea eta Gizarte Kontseiluarekiko harremana arautzea.

- Presentzia fisikoaren kontrol-sistema behin betiko ezartzea, eta haren funtzionamendua behar bezala arautzea.

- Ikerketa-politika:

- Ikerketa-egituraren diseinu berria amaitzea.

- Ikerketari lotutako gastuen eta sarreraren kontrol-prozesua osatzea.

- Nabarmen daitekeen edo bikaintasuna lor dezakeen adar edo alorretarantz zuzendutako ikerketa-politika bideratzea, bultzatzea eta sustatzea, eta errentagarritasun sozial eta ekonomikoa lortzea.

- Berme handiena ziurtatzea Unibertsitatearen interesen defentsan.

- III Plan Estrategikoa gauzatzea, eta haren lehenetsunezko ardatzak zehaztea; gainera, horiek helburu kuantifikagarriekin, adierazleekin eta kostuekin lotzea, neurtu ahal izateko, bai eta bidezko aurrekontu-kredituekin ere, bete ahal izateko; eta, era berean, planaren urteko jarraipena egitea, zer neurritan betetzen ari den eta, hala gertatuz gero, zer desbideratze atzeman diren jakiteko.

- Kontabilitate analitikorako sistema abiaraztea, erabakiak hartzeko prozesuan funtsezko laguntza izateaz gain, kontuak ematean beharrezkoa den gardentasuna erraztuko duelako. Ahaztu gabe kostuek eta adierazleek ezinbesteko elementua izan behar dutela Unibertsitatearen finantzaketa publikorako edozein sistemaren definizioa, jarraipena eta kontrola egiteko, prezio publikoak finkatzeko eta ikerketari lotutako kostuak zehazteko.

- Ekipamenduaren erosketa zuzenago lotzea benetako beharrek.

- Gogoeta egitea bere ikasleen uzte-tasa handiei buruz, bai eta titulazioa lortzeko behar duten denbora (batez ere ingeniari-tza-ikasketetan) gero eta handiagoa izateko joerari buruz ere.

- Beste unibertsitate batzuekiko aliantza estrategikoak aztertzea⁽¹⁸⁾, masa kritikoa handitzeko

(18) Txosten hau idazten ari den honetan, Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Zaragozako, Errioxako eta Lleidako unibertsitateekin batera, "Iberus" proiektua aurkeztu du, Hezkuntza Ministerioak aintzatetsitako nazioarteko bikaintasun-campus bihurtzeko.

unibertsitate-kudeaketaren funtsezko alderdietan: irakaskuntza eta ikerketa.

- Ikasleen eta irakasleen mugikortasuna gehiago sustatzea, atzerriko –Europako eta Amerikako– unibertsitateekin egindako akordioen bidez, kolektibo horien hizkuntza-prestakuntza bultzatzeko beharra ahaztu gabe.

- Kontzientzia harrarazteko neurri gisa eta kostu-sistema ezarri ondoren, aztertzea komeni den ikasle bakoitzari “faktura birtuala” ematea, matrikulatzen den ikasketen benetako kostuaren eta haiengatik benetan ordaintzen duenaren adierazgarri.

- Nafarroako gizartera begirako komunikazio-politika bultzatzea.

Jarduera-multzo hori Europako goi-mailako hezkuntzaren kudeaketaren bilakaeran ikusten den joeraren barruan kokatzen da: agintari betearazle boterea handitzea; erakundea ordezkatzeko duten organo kolegiatuaren eragina gutxitzea; unibertsitate-kudeaketaren profesionalizazioa; finantza- eta giza baliabideen kudeaketa-autonomia handiagoa; eta unibertsitatekoak ez diren sektoreen parte-hartze erabakigarri eta gero eta handiagoa, Gizarte Kontseiluaren funtzioak indartzearen bidez.

Ignacio Cabeza del Salvador auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako iza-pideak bete ondoren.

Iruñean, 2010eko abuztuaren 31n

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas